



Iturria: *Euskera aundiki-soñekoz*, Jose Maria Agirre Lizardi
(Lourdes Otaegiren edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1995.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LizardiAundiki.htm>

EUSKERA AUNDIKI-SOÑEKOZ

Xabier Lizardi

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.<Ninguno(a)>

Jose Maria Agirre «Lizardi»

EUSKERA AUNDIKI-SOÑEKOZ

Lourdes Otaegiren edizioa

Klasikoak

Bilbao

1995



I. EUSKARAREN ALDEKO EKINTZA KANPAINA

1. EUSKARA IRAKASKUNTZAN



ZARAUTZ, ERDELERRI (I)

Pralle prantziskotarrak biotzez maite ditugu. Eriotzari belarriak ikusi dizkagunean, aien laguntzaz lotu nai izan degu zerura-bideko pardeltxo. Badirudi Aita Prantzisko goxoagandiko otzantasan eta lore-usaia dariote-la aldean.

Gaurdaño, gañera, bazerioten Euskalerrian euskeltaletasuna ere; eta esan bearrik ez ori dala bide maiteago genitula.

Orra, ordea, orain egun gutxi jaioterrira itzulia naizelarik; orra non dakusten euskera emengo kaletatik oso baztertzen asia, bi urtez aurreko aldean ere.

Nexka-motzarik, beñipein, eztezute arkituko erderaz ari eztanik. Aspaldidanik degu ikasia, ori bai, emakumezkoak askoz bizkor, aurre-ratu eta «gusto» obekoak dirala gizasemeak baño; —arrokeriak amaika izen gozo artzen ditu munduan!— Baita ere, arretxengatik guri baño amar-ogei bat urtez lenago, euskera lotsagarri zatar au (!) ezpain gorri —gorriegitan!— agortzen zaiela. Ta emen, non nai bezela ori gerta dalarik, igerrri diteke mutil koskorrak berak ere bide negargarri ortan sartutxoegi dirala.

Aguro antz eman genion —zakur zarrak baigera ortan— udazaleak baño ere areago... beste batzuek gaitz aren errudun dirala.

Monjetzaz ez gera gaizki-esaka ekiteko ausarta; gañera, alperrik litza-ke, emakumeak baitira aiek ere. Zuzendu dezaiegun, ba, pralleai gere eskabidea, ta eztezatela, arren, zigortzat artu.

Gu ez gera zarauztartxoak erderaz ikastearen etsai. Pozik ikusiko genituke, gazteleraz ezezik, prantzes, aleman ta ingeleraz jarduten. Baña, gaurdaño euskeldun uts izandako erria bat-batean erdeldun uts biurtu bearri —euskerak kalte osoa jasotzen duala— orreri ezteritzogu ez zuzen ez bidezko, ta ezago euskeldun zintzotzakoak lan artan buru agertzeari.

Ain eziñezko gauza ote litzake pralleak duten ikastola ederrean ordu betetxo bat —tira, ordu erdia baikere!— Jainkoak emandako euskerari eskeintzea? Ain ote litzake lotsagarri, ala Goikuak gaitz etsia, zarauztartxoei euskeraz ongi irakurri ta idazten irakastea, geren izkeraz sortutako paper ta liburuak ederretsi-araziaz? Askio eskatzea ote, pralle begiragarriok, zeuen aldetik ondar-alea jartzeko, ume biguñok, amaren izkuntza ezetsi bearrean, edozein añako badala-ta aintzakotzat artu dezaten?

Esan digu iñork, alakorik egitea pralleak politikatzat jotzen ote duten... Kertenkeri ori sarri esana da; asko baitira munduan burua lepo-gañetik ala galtzarbean daramaten eztautenak. Orretxengatik, pralleak ori esana eztegu egundo sinistuko; ainbeste ikasi ta goi-maitasunez ain betetako gizonen ezin zezaketen.

Gauzak ala izanik ordea, praka-gonadunak ere, zenbait praka-uts ainbat, «eguzkia-nora»-koak ote ditugu?

Jainkoa lagun, urrena ekingo diogu berriro saillari, ta ez al dira geren esan guztiak miñak izango.

Argia, 1929-02-03



ZARAUTZ, ERDELERRI (II)

Esan gendun, lengoan, ikastetxetan euskeraren alde egin diteken apurtxoak. Lanbide aundirik eztu jartzen: biotzak pitin bat laguntzea asko.

Badakigu, gañera, zenbait prallek gure aburuari ondo iritzi diotela; orretzek erakusten digu ezteguna esan-ezbearrekorik idatzi.

Baña, ikastolak añako lanik, euskera zaitu ta jazten, iñork ezpalezake ere —gurasoak izan ezik— bada, artarako, beste bide bat, eroso ta ekarkorra: erderaz «beladak» deritzen jaialdiak. Irakurtzeak, esate baterako, lana eskatzen du; baña antzezten (teatroa egiten) ikusteak eztu nekerik: zere ipurmamiok alki baten atsedinari (deskantsuari) eman, begiak ernaitu, ta zutitu belarriak; besterik ez...

Ikus dezagun bada, erri ain euskaldun ontan «beladak» nolakoak oi diran.

Nik dakidana auxe da, utsik. Igandero, erreskadan, pralleen ikastetxe bai Gaztediko neskatx-mutillak lau-bat «belada» egin dituzte. Lan oietan, naiz guzitik izan, izneurtuak, abestiak (kantak), antzezkiak (teatro-lanak) eta abarra, sinistuko al zenidateke gauzatxo bat bakar-bakarra egin dala euskeraz, ta ura sermoia: beraz, ez mutiltxoek ez neskatxa gazteak egiña?... Orrelakoak negargarri ezpaditugu euskaldunok, gureak egin du; ta «gora Euskalerrria»-ka aritu bearrean guziok, nork-baño-nork otsago deadartzen Ieiatuaz, eztarriei eman dezaiegun beingoan pakea alperrik larrutu zorian ibilli gabe.

Lenengo jaialdira joan nintzan zer egingo ote zuten ikusi nairik. Mutiltxoena zan. Bost-bat-sei eginkizun bakarrik zituzten: guzitik, len esan bezela. Euskeraz orde... ezta «gabon, jaunak» ere.

Eninduten urrengo igandean atzitu euskeraz zerbait bazala jakin izan epanu. Ekin diote ba neskatxak, eta sartu digute «drama» izugarri bat, iru ataletan; nai bazendun ta nai ezpazendun, malko utsetan urtu bear, enetxoak!... Ederki jardun zuten, urrean mutillak baño obeto. Esanik baigera, beti ere gu, mutillok, —«bueno», nik mutiltzari laga nion, baña... tira— buruaundi astoxeagoak gerala, ta ez emakumezkoek bezin erako; ta argatiktxe asten dirala emeok, lenbizi, beren marrubizko —ala marrubizkotzako— ezpañentzat euskerari ez-egoki irizten. Alderdi ederra, biarko aurtxoan euskeltzaletasunarentzat!...

Diogunez, bada, poliki aritu ziran; ta izkuntza berririk ikasi bezin erre, belau-mokorrak —exerita diranean— estaltze al balituzte, aze

poza gajoak! Orretzek ibilli baitzitan estu ta larri baten batzuek. Dana dala, euskeraz, nik uste, bestelako gatza eman zezakioten esanari; alako doñutxo bat erasten baitiote erderari zenbaitek. Balladolitartzat ezin beintzat nastu, berak nai ta ere. Baña ez estutu, gazteak, ez estutu; sagartxoak elduko zaizute. Ekin zuek eta jarrai, alaba zoragarri oiek, len aitatuko marrubiki goxoetatik euskera-kutsu kiratsa kendu arteraño.

Euskerazko itzaldia ezin ezti ta polikiago esana izan zan: Larrea'tar Nikasi apaizak egin zuala jakitea asko. Egileari gure zorion-agurra, ta txalo beroak praileei. Baña..., antzezki edo teatro-lan luxuegiaren buztantxotzat sermoia eskeñi ezkerro jendeari, jendeak... anka! sermoia zein-nai izkeretan dalarik ere.

Baña, irakurle enetxoak, etzazula uste Zarautzen antzoki edo teatro-agerleku bakarra degunik. Ortze dago, ez-pazenekian ere, Eliz Nagusiko Gaztedikoena. «Gaitzerdi —esango dezu— auek baikere, egite al ditek zedozer euskeraz!...». Bai! zakurraren... zera!... Asi ziran, asi ziran, «Jesusen jaiotza» gozoa egiñaz...; baña bertan loak arturik ditugu. Orain beñipein, New Yorkeko zine aundienetan bezala, —gu ez gera aspaldi ontan an izan, egia...— onelatsu iragarri edo ezagutzea ematen dituzte beren egitekoak: «Pasen señores, pasen!... Música, arte, lujo, fastuosidad!...».

Gonadun guziak astindu bearrik ote gera, naiz emakume, naiz gizonezko?

Ona emen gure eskaria, ezin apal eta apurragoa: arren, alako jaialdiero, sartu dezazutela, pralle-apaiz euskaldun zintzo begiragarriok, gauzatxo bat baikere —al dala, antzerki edo teatroa— euskeraz. Beronen eskar ona, ez gurea, jasotzearen, egin al diteke orrenbestetxo!...

Kalean iñork jan, ala miñ-artutakoek giltzapean sartzen ezpanaute, baditeke urrena ere zerbait geiago maxiatzea.

Argia, 1929-02-10



ZARAUTZ, ERDELERRI (III)

Oraingoan, enetxoak, ukondoa ondo-ondoraño sartuak ote geran diote; baña berori gaur atera-bearrak emandako poza jai-egunetarako baikere artuko genduke.

Larri ezpagiñan, ba, gaur zortzi, irentsi-bear ginduzelata apaizak atzetik genbilzkiela ikusi gendunean!

Agidanez, oker-entzunik giñan, Eleiz Nagusiko Gaztediaren jaialdiei buruz, Illabete-terdi ontan —aurreko igandean izan ezik— euskerazkorik egin ez tuten arren, lenago alegia guk esana baño geixeago arituak omen dira, tarteko batek esan didanez.

Poz-pozik entzun degu ori, ta lengoan eztena gogortxo sartu bagenizuten ere, barkatu, gaur azukre-koxkorrik goxoenak eskeñi nai dizkizutegu-ta.

Joan dan igandeko antzerki-jai edo teatrua, uraxe bai, zearo euskerazkoa izan zan. Ona emen egindakoak:

1. *Damua garaiz* (bakarrizketa).
2. *Eliz-mutilak* (antzerki parregarri bizkorra).
3. *Bein batean Loiolan* (abestia).
4. *Gizon bikañak* (par-antzerkia).
5. *Maite beartsua* («opera», «armomum» eta pianoaren laguntzaz).

Asko atsekabetu ginduzan bertara ezin joanak. Baño iñor biali genduan, ango berri ikustearren, eta ala dakigu jaialdi ori zenbateraño izan zan atsegiña. Antzestlari guziek berebiziko jator aritu omen ziran. Jendeak ala omen zion, erteterakoan: «Berdingabeko kutsua ta gatza du gero euskerak, eusko belarrientzako!»... Noski, ba! Euskerari euskaldunak gatzik ez ateraenean, zeri? Mutil bizkor oientzat gure txalo bizienak joaz gero, bat gorde dezagun, berezi-berezia, euskera-gaia gertutzen ari oi dan apaiz jaun gaztearentzako: izenik eztegu esan nai, atsegin Izango elitzaiokela baitakigu.

Ta aurreko gure oker-entzuna zuzendu nai goriaz, otoi, l'tar J. begiko ori, biali zaiguzu orain arte euskeraz egin dituzuten antzerki, bakarrizketa, abesti ta gañerakoen izendia, ementxe zuen omenez azaldu ditzagun, guzien ikasbidetzat.

Prantziskotarrei ere orrelako itz eztiak zuzendu nai geniezke. Aurki izango al da...

* * *

Sail ontaz besterik bagendun idatzia, baña baztertu bearrik gera, gertarien begira erne gelditzen galararik.

Argia, 1929-02-24

2. EUSKAL EGUNKARIA



BARATZA AZI BEARRA

Zertxo bi begietara ditut atzeko egunotan. Bata, zenbait Idazki «Euskel Atala»-peko otarrera botea. Bestea, «Mendi-Lauta»-ren amets gozoak.

Argi dakuskegunez, tokiaren uts gera euskel idazleok. Gutxi giñala-koan, amaika negarrek erden digu; baña, egia, gure ingien zabalerako geigi gera, ezpaitegu non idatzi.

Gertari oni begi-eman bear zaio lenbait-len. Eztegu euskel idazlea bakantzera jo bear, ugaltaraztera baizik. Bestela, zertarako litzake atzeko amabost-ogeitarte egindako lan etengabea? Orixe nai ez genduan, bada?... Euskel idazlea ugaltu-eske ez geniardun?... Bai, ta zuzenki: ortik bailetorke euskera iñoiz senda al izatea.

Baña, euskel idazleak, edozein idazlek beste, tokia bear du. Lana non agertua ezpadu, ezta lanik egingo. Ta orra orduan, ez soilki idazle bat galdua, baizik aren ikasbide ona ere, idazlekumerik sortzeko bideak langatuaz.

Beraz, baratza-bete aza badaukagu, ta azarik geiago gose, nai-ta-nai ez baratza azi bear.

Euzkadi-ri arlo ortaz, beste ainbestetaz bezela, asko, eunetiko laro-gei, zor diogu. Berorik dago «Kirikiño» zanaren oroitzeta, ta alperreko lana litzake ori erakutsi bearrez izketa luzietan jardutea.

Baña, *Euzkadi*-k ezta lanbide ortan mugarik nai bear, arik eta euskel egunkari bikain bat izan genezaken arte. Idazle-ugaltze orreri, begi-itsuka, nik uste, bear-alako paper-langille-ugaltzeaz erantzun bear dio. Ez aztu, euskel idazlien sari-eska-ekaz zenbaterano bidea erreztan dion.

Ongi zion, beraz, lengoan «Irular»-ek, gure Atala zabaltzeko *Euzkadi*-ri otoi-zegionean. «Euskaltzaleak» deritzan bazkunak ere otoi orixe egitea erabaki du, azkenengo billaldian. Eguneroko maite onen agintariei, gaurko nere itz auetaz otol ura egintzat etsitzea eskatzen diet.

«BAI»

Baña, euskel baratza azi bearraz gogoeta egiñak, gereziak gereizia bezela, euskel egunkariaren ametsa dakargu.

Ona, begiak itxita, nolakoa dakustan.

Jainkozale garbia, euskeltzale yaukala; ederra, argia, erreza; ongi ordaindutako gizonak egiña; berriez, lan benez ta arin-alaiez —parrirudiak aztu gabe— naroki ornitua; erri bakoitzean izperkari on bat du, zer-

baitez sariztatua, bertako gaztun arazo guztiak, baita berriak ere, garaiz ta ongi bialiko dituanak; lankidien artean, maiz agertzen dira erbesteko euskel jakintsuen izenak, bein Alemanitik, urrena Errusitik, Txekoslovakiatik, non-naitik. Labur esateko: erderazko zenbait bezin eder-osoaa...

Euskeltzale guztiak ditu asieratik arpidedun; apaiz ta Jainko-gizaki orok laguntzik zabalena zor lioteke; beste askoek erosten dute, jaio-berri-tan ikusmiñez, gero aren erreztasun-atsegiñez gogoa irabazita; mendian lenbizikotik ezta sarbide eroso: baserritarra —*Argia*-k eta asko egin dute-larik— eztegu oraindik ugari ta egunero irakurtzeko gertu: ori urteak, agian, dakarkete. Bitartean, astean bein, igandietan, egunkariak ale berezi bat daterake: asteko berri-laburpena, parrirudien bat, izkirimiri ta ipui alaiak, Jainko-gaiak, nekazaritza ta abar...: gaurko *Argia*-ren oñordekoa.

Euskelerri osoan amar-amabi milla ale ez ote legizke saldu, zabal-kundea bear bezin sakonki egin ezkerro?

Bestalde, len esandako guztiez gain, iragarkiz poliki bete dakust. Lantegi ala saltoki, edozein irabazpidedun euskeltzalerik ezta berea uka dionik: eta euskeltzaliez ateko zenbaitek ere balemaioleke, Euskelerri osoan poliki edatu ta bazter urrutietara eltzen dala oartemanik.

Esan bearrak ez, idazleak erruz ta gero ta yaiagoak ditu, gizarteko gai guzietaz aritzeko gai. Ordaindu egingo baitzaie, ainbestean. Gaurdañoan, utsean, agertu beste sail goldetu dalarik, zer litzake gero, euskera irabazpidetean, eguneroko leiaketak idazkortzak metu ta eskuak artarakotzean?

Ainbestetaraño da ene ametsaren sor-bearra, ikusten baitet argi-argi, ukabilla añako izki lodiez, egunkari orren izen berbera ere!

«BAI»... «BAI» du izena. Baietza du ikurritz, baietza ekin-deadarra. Egona Ez da, aritzea BAI; illa Ez da, bizitzea BAI; egia BAI da, gezurra, berriez, Ez... Ta egunkaria ari-otsa, bizi-otsa, egi-otsa: euskua badalaren BAIETZIK gorenena baikenduke...; orretxengatik, aren izenik egoki errez laburrena au izatea: «BAI»...

Ta amets ipurtzuriak zer dira? galdegin lezake norbaitek, irriparreka. Ametsa, berez, Ez izatea nai badezu ere, BAI-aren azia diteke. Zenbat bider izanik ote da, ludian gizadia danetik!

Baña, amets-goi urdiñetik bee arre zakarrera amildu bearrak gera, onezkero. Egin dezagun ala, urrango batean egunkariarekiko gertu-lanak gaurtik, nere aburuz, nola asi ditezken azalduaz.

Euzkadi, 1929-03-13



EUSKEL EGUNKARIA

Opa nioke nik «Mendi-Lauta» bizkorrari, ametsetan ikusitako milloietxo oiek eskuratzea. Baña beldur naiz aren aberastea luzetxo ez ote dan joan.

Benetan ezer oberik ez litzake: euskeltzale zintzo aberats batek beregain ta begipean egunkaria artzea. Baña... auxe bai ametsa!... Aberastuzkero, zintzoenak ere sakela itxitzen baitizue, gu bezelako txiro gizaxoei arpideak-eta gizentzeko lanbidea utziaz. «Kirikiño»-sariaren makalari oar, bestela.

Iñola ateratzekotan, ba, egunkaria, askoen alkar-arte ta laguntzaz bear bide da, nik uste.

Egunkari ON bat —eta bearrezko dezu ona, erderazkoak bezin ona; bestela, zeren indarrez edatu?— egunkari on bat, bada, ateratzeko, zillar-pilla bearko litzake. Zenbat?...

Orra, nere ustez, lendabizi egin-bearra. Beste egunkarietatik, bear bezela ta zeatz, xetasun oro ikasi: zenbat diru bear egunkaria irasteko, zenbat eusteko; zurki jota, zenbat emate'al luken, saltzez bai iragarki bidez.

Ori eginda, diru-biltzea letorke. Atera ditzagun, adibidez, euna laurlekoko akzioak. Artu nai orok len-agiri bat izendu bezate, onenbeste-ainbeste eman-agindua sendotzen dutelarik. Onela beintzat ikasiko genduke zer itxaron genezaken, zenbatera eldu gintezken, jendea bero bero ala otz al dagon eginkizun aundi ari bizkarra erasteko.

Euskeltzale txiroak ongi erantzutea jo diteke, gaur-geroz.

Euskel egun ala orren antzeko arpide bati bost laurlekoa botatzen dionak, egunkari-akziotan emango lizkizuke berreun, bosteun, agian milla. Baña, besterik gabe, euskeltzale aberatsen laguntza (ta laguntza zabala) gabe, eztegu bearra osatzen. Gero beti dituzu, ta asko, naiz txiro naiz aberats, epel, otz ala gori, ukabilla itxita etxera ezipazinjoakie gorra-rena egingo dutenak. Beste zenbaitek berriz, berez erantzunda ere, mordoska aundia utzi bearrean, aien aberatsai ala dagokiolako, uskeri batez etsiko dizute, ta kito.

Ikusi zer nai nuken esan... Dirurik jasotzeko, alegia, eskatzen lenik jakin bear dala, ta eskatze ortan txanpon batzuek eralgi ere. Norbait bear dala eskale, ta ez nolanaikoa, gizakume azkarra ta atsegiña baizik... ta lotsagabe samarra. Norbait oni beribilla eman zaiozu, ta legokion saria, ta

izendi bat erri bakoitzerako, lagunez-lagun eskean asi dedin, ta bakoitzari atera al dezakion eman-ustea baño geiago.

Ta ona betikoa... Len ere, amaika bider, artara-ontarako, edozertarako, esan izan degu ori bearra dala zenbait arlo astindu ta eragingo badira. Erakutsi nai izan diotegu orixe «anai zarrei», baña, egia esan, ezer askorik iritxi gabe. Oraingoan nora joko?...

Baña, goazen aurrera. Esandakoak, len-azterkia ta eskale yaioa badi-tugu, esate baterako, ta diru-biltzea poliki asia da. Askoek esango liguteke: egunkaria jarri baño aurretiagokoa da asterokoa sendotu, zabaldu ta obetzea, ark bearko dituan langille azkarrak bertan ikasi ta zailtzen dirala. Egia. Baña bai auxe ere: gaurdañokoan asterokoaz jarraituzkero, ezin bizi aundirik eman genezaiokela. Paper geiago bear, zabalkunde sakonagoa, zuzendari ordaindua, artan aritze-utsatik bizibidea atera lezakena. Orrela ez izanenean, gerora ere motel, geza, txikia izango degu asterokoa; ezin iñoiz eragin izate'al diogu goraka aundirik. Ortarako —au bai betikoa!— dirua bear. Zer egingo?...

Len esandako akzio-saria baldintza batez jaso dezagun. Epea, bost urte-edo, jarri, egunkariaren etortzea gertutzeko. Dirutza, bitartean, «Eusko-ikaskuntza»-pean edo zaitu-arazi. Urtero, aren adarra, aren eka-rria jaso, ta epea azkentzeraño orixe erabilli asterokoa indartzen.

* * *

Euskeltzale guztiei, ta bereziki «Euskaltzaleak» bazkunari, jarduntxo ayek eskeñi nai dizkiet, gaia pitin bat astindu ta otsarazi dezagun. Ortatik letorkiguen kalterik aundiena len-añean gelditzea da, ta, agian ere, euskel egunkariarekiko aurrezkai on bat egiñak izatea. Otoi, bada, nor-berak zeren aldetik jo zazute arloa, iritzi oiek guztien alkar-laguntzaz osotu ta obetu al ditezen.

Nik nerez dakidana... Asmo gaitz: auek gogoan maiz erabillizkero, asieran urruti zenkusana gero ta bertarago egiten zaizu.

Urte bete t'ardi, geiago apika, dalarik, landolako atean kaxk-kaxk jo ta pralle aundi bat, irriparre emea ezpañetan zuala, aurrera sartu zitzaidan. Ekin zidan bereala euskeraz, bizkaieraz, sutsu ta zoli, ta euskeltaletasungaiak generabilzkian gure jardunean. Jainko-gizon auen soñekoak bai kol-kope sakona!... Ari zaizkizu, ari zaizkizu malgu-malguki izketan, ta nondik nora eztakizula, eskua murgildu dizute illunpe artan, ta ona geroxeago liburu bat atzituta agertu... Bear bada, zere gogoan neurtitz-bazka gozo-ez elikatzeako asmo dezu gizon begiragarria. Ta egingo nuke, barrupe arta-



tik amar, ogei, berrogeitamar idazti atera baietz parra-parra, norik artua izan ezkerok... Bai, benetan dute sakona ezkutupe illun ura!

Baña, barkatu, bidetik ate diarduzutet. Ontaraxe nentorren: Jainkogizon maitagarri ura euskel egunkariaz mintza zitzaidan, ta, gutxi gora bera, ni gañeko lerroetan bezelatsu. Egin nion nik entzuna, baña jaramon gutxi: ain urruti bainenkusan asmoaren bete al izana. Gaur ordea, aitortu bearrik naiz, ordutik onuntz askotan buruan erabilliaz, bertaragotu, errez-iritziagotu egin zaidala, azia izanik ene gogo-lurrean erne ta loreztu balitz irudi...

Besterik ezer iritxiko ezpagenduke ere, ontaz ari gera nok, zuen gogoekiko, ezkenduke astia alperrik galdua...

Euzkadi, 1929-03-16

EUSKEL EGUNEROKOA

(«Eusko-Ikaskuntza»-aretoan, 1929-gneko Garagarilla-27-gnean., irakurritako itzaldia)

Jaun-andreak: Makal samar nengoalarik —ibillia bainaiz soro aundi-rako langa zabaldu ez zabaldu—, idazki bat, karta bat, etorri zan gurera. Emendixek bialia zan, eta... a zer nolako «intentzioa» zekarren!... Euskel izketa auetxen burugoa, zuzentza, eskeintzen zidan «Eusko-Ikaskuntza»-k. Omen aundiegia, leen-begiraturuz; baña ez adar-jotze makala ere, bigarrenez... Ari izan baigiñan igaz, gallendu-samarturik, ementxe, «Eusko-Ikaskuntza»-ko jaun begiragarri oiek, kolkorako esan dute, noski: —Bai, eee?... Berriketarako gogoa, beraz?... Ekiok bada zeregintxo on!

Ta, benetan, zigor astunagorik ezin zezaketen asmatu neretzat. Adiskide artean nagola gogoratuak eusten dit, ala-ola... Bestela, sinis zadazute: pozik, zintzurrari eldu, ta abots itzal batez, esango nizuteke: —Jaunak!... Nere eztarri au oso dago makal!... —ta, bereala, txapela artu, ta... anka!

Izketa auen gaiari buruz, onela zion arako idazki ark: «Labor realizable por la Federación de Acción Popular Euskerista». Au da, —zuek uler dezazuten—: «Euskeltzale Errikoi Batzak zer ta zertzuk egin ditzaken».

Ontaz, bada, ari bear nuan.

Guziok dakizute, igaz, emen bertan, batze aipatu bat egin genduala. Alegia, papertxo batean ipiñi genizuten, Bazkun euskeltzale oro alkartu egiten zirala, ta arrezkero, alkartze onen bidez, berebiziko lanak egin bear genituala. Baña..., zenbait papertxoetan idatzi izan ditugu leen ere amaika asmo, ta, gerora beti,... itz uts, itz uts, itz uts...

Agian, batze ori beste nolabait eratu ezkerok, ala besterik ezean ere, idazkaritza, sekretaritza, on bat balu —artarako otseñik, alegia, ongi ordaindua— Bazkun-Batz edo Bazkun-Elkarte orrek egite aal luke zerbait onik euskera bai euskotasunaren alde. Bestela, ordea, ezer gutxi; naspil auetan gabiltzanok, urri izanaz gain, guziok baikaude leendanik geren eginbearrek lanbetu-ezindu askirik, bestelako zenbait eginbeartxoei, langaraiaz ate, buru emateko.

Alderdi ortatik, bada, zertaz ari nintekean ez nekian. Bestalde, geren itzaldi ta alkar-izketetan berritsuegiak oi gera. Ateratzen ditugu asmoak



eta asmoak, gerezia gereziari lotuta irudi, baita oñazpitik ere... Asmo-pillak, asmo-mordoak, asmotzak... Baña, gero?... Asmook alkar-ito; oien ugariak berak gu okitu-arazi... Ainbeste eginkizun ederretarik... azkenera-ko egiñik bat ere ez.

Nola, bada, erantzun, bear bezela —ondore onez alegia—, eskeñi lanbideari?...

Gogapen astunok buruan nerabilzkiela, nere estuasun larri artatik nola ertengo ezin suma, ona non datorkidan gizon txiki bat. Ez, alegia, Calleja-ren arako ipui mamitsuetan oi diran txano ta bizar xuridun gixakumeetarik bat, auek ere amaika korapillo estu askatu izan dituelarik; baidizan, legezko gizona, gu bezelakoxea: soñez apurra izatea, baña aundia amesenez, ta bixia berriz suangilla ez beste... Dagoan tokitik ezur bat arpegira botako badit ere, zor dizutet aren izena: «Mendi Lauta».

—Bart amets eder bat egin diat —esan zidan. Eta nik: —Bejondaikela, gizona. Alarik ere, lo ederra beti obe amets ederragoa baño.

Baña oker nengoan. Aren ametsa loa baño ohea zan, bai alegia!... Paper batean zekarren arraioak idatzita, *Argia*-ra bialtzeko. Irakurtzeko eman zidan, ta nere artean: —Gizaixoa! —egiten nun— Ez aiz mundu txarrean bizi!...

Labur: amets aren gaia guziok dakizute: Euskel egunerokoa.

Enintzaion berealakoan oartu. Asi gera bat eta beste izparringietatik ametsarekiko iritziak agertzen, eta, alako batean, «Eusko-Ikaskuntza»-ren idazkia gogora zait; eta nere buruari kaskarreko eder samar bat ematen niola: —Orra —diot— Orra korapilloa askatu!

Banuan gaia.

Lau, zortzi, berrogeitamar «egin diteke» kaxkar baño, ez al da ohea «egin dezagun» bikain bat?...

Nik ala uste. Bestalde: egunkari-asmoa, eginbidean jarriko bada, ez al da guzi-guzion laguntza-bear?... Beraz, Bazkun Euskozale Elkartearen eginkizunaz egoki dator.

Ona, bear baño itz geiagoz, esan, zergatik eta nola erabaki nuan izketaldi auen jardungai.

* * *

Aurrean zauzkaten eusko jator oiek arritu samarturik zakuskit neri begira, kolkorako diozutela: —Arraio au ere, ba, gizaseme lasai samarra diagu. Or aritu uan, orain bi urte, jo ta keak atereaz, iñoizko «Elazkona» gaixo ari kaikua bete ozpin irentsi-arazi nairik. Eta orain berriz egunka-

riaren alde, alajainkia!... Kristau orrek alkandora maiz samar aldatzen ote duan esango nikek...

Bai, alaxe da. Egi-egia atorra aldatzearena. Ta eskar-natzaio gizarte-ari, aldatze ori egite omengarrizat etsia dulako.

Baña, ez atzo, jaunak, izparringien aurka, ez gaur ikastola-arloa azturik ez gaude, garai artako lagunak. Leen eta orain, atzo ta gaur, gure euskera zorigabeak laguntza aundia, ta alde askotatiko laguntza, bear duala uste degu. Ta ezta larrez, alegia, lan ortarako urri baigera, nondik asi-bearra asmatzen.

Euskera goserik degu, ta orren bazkatze ta zuzpertzeko zenbait opil gozo eman bearrik gatzio. Baña, zein opillik leenen?... Nere ustez, leenbizi erre ditekera. Ta egunkari-opilla erregaitza dalarik, alegia, eztaikit gaur egunean ez ote dan zallagoa ikastoleena.

Adibidez: badakizute guziok, Tolosan euskel ikastola polit bat degula, aspaldiko urteotan. Baña, oraingo aldian, gorriak ikusi bear: ia euskerraren izpirik bertan ezin irakasteraño beartu gaitue.

Errenderiarrak ere, oraindik orain berriro eskatu dute ikastola zabalteko baimena, artarako —gure aolkuz, «Euzkaltzaleak»-en aolkuz— ia euskel usairik geiena kentzen ziotelarik. Baña... ezta izan baimenik.

Leengo ikastola-zaleok, bada, gaurkoz, egunkarizale biur gatzazute: ezpaigeunden batzuk eta besteok alkarrengandik urruti. Etzaitzela orain leengo izparringi-zaleak gu baño epelagoak agertu, egunkaria atera ez atera darabilgun indarketa ontan.

Biotz guziak ondo-ondoan jo, ta eusko-gogo jator oro gorituko al ditu asmo eder onek!... Zin egin dezagun emen geran guziok, berori eginbidean sartu, ta geren indar osoez elburura bultzako degula.

Ta goazen arira, garaia da-ta.

* * *

Guziok dakizute, guziok dezute ezagun, aurreko illabeteotan egunkari-asmoatzaz zenbait idazleek egin duten jarduketeta. Leen aitatu ametsa sortu ondorean, «Euzkaltzaleak» deritzan bazkunak gai orri aize eman ta ots-arazitzea erabaki zuan. Aren deiari zenbait idazle azkarrek erantzun diote, ta emendixek bijoazkie eskarrik beroenak.

Jardun artatik egi bat, beintzat, jaso degu: guziok —euskozale zintzo guziok, alegia— biotz-biotzez nai degu egunkaria; orixe egiñik ikustearren, aste betean baraurik egongo giñake, agian, baten-batzuek.



Gure bazkun orrek —«Euskaltzaleak»— ori ikusita, asmoaren gaitza iñork baño obeto igerri arren, egunkari-ateratze orren gorabeerak aztertu nai izan ditu; ta ez ori bakarrik, baizik, bere kutxa erdi-utsak ordainduta, egunkari orren ale berezi bat, BALITZ-ko eguneroko orren aurre-erakuski bat egin nai izan du: emen sartzerakoan eskuetan ipiñi dizutegun orixe.

Gañera, batzaldi auek ondore bikañik ekarri aal dezaten Euskeltzale-Batzako bazkun guziei dei egin zaie, bakoitzak, izketaldi bietara, ordezkarrien bat biali dezan. Agur, bada, ta milla eskar zuei: «Euskaltzaindi», «Jaungoiko-Zale», «Euskeraren Adiskideak», «Baraibar»-taldea, «Euskal-Esnalea» ta bereziki, «Eskualtzaleen Biltzarra»-ko Añia-mendiz andiko anai maiteoi.

Nere egin-bearra auxe da orain: «Euskaltzaleak» egindako azterketa orren ondatz eta ikasiak zuei ezagutu-arazi, zeok esan dezazuten gero egunerokoa egin diteken ala ez, ta, baizkoan, bereala, bertatik, eginkizun orreri bideak urratzen asi gaitean.

Jainkoak argitu gaitza: Ark, euskaldun onen bitartez, Euskalerrria gaizka beza!

* * *

Ona emen, bada, «Euskaltzaleak» egin azterketaren ondatzak: zutitu berlarriok, nik amaitutakoan zeok izango baitzerate iztun.

—GURE EGUNKARIAK NOLAKOA BEAR LUKE, GOGOZ?

Ontantxe guziok batera gatoz noski: ontan ezta ezbaierik. Gure egunkariak KRISTAU, katoliko uts-utsa bear luke, ta EUSKALDUNTASUN AREN aldeze neke-gabea; baña, alako edo olako politikari bere burua lotu gaberik. Soil-soilki au: Jaungoikoa ta Euskalduntasuna, euskotasuna.

—GURE EGUNKARIAK NOLAKOA BEAR LUKE, SOÑEZ?

Txikia, mottela?... Ala, erderazkoak baño ohea?... Gure aburuz, bien arteko. Izan bitza aal dalarik, ori bai, berri ugariak eta berri «berriak»; bedi «izpartsu» ta benetan eguneko. Izan bitza otsein iaioak, eta idazkide, kolaboradore, berezi onak, lan mami-gazirik dakitenak. Izan bitza errietan izparkari azkarrak. Baña eztegu alako papertza aundirik bear; baizik, oso aundia ezalarik ere, ongi egiña bedi, errez idatzia, ta itz gutxiz, erderazkoak aña lastorik gabe, oiek aña esango duana.

Orretarako, eskuan dezuten erakuski ori, naikoa da. Orretzek ere emango lizkiguke lanak, egunean-egunean; batez ere pixkaen bat arlo ortan zaildu arte.

—EGUNKARIA EUSKERA UTS-UTSEZKO, ALA EUSKEL-ERDEL DUNA BEAR GENDUKE?

Orain arte EUSKEL EGUNKARIA-tzaz ari izan gera, ta galde orrek norbait arritu-araztea baditeke; baña nik, entzun dedan guzia, nor-nairen iritzia emen jaso nai det.

Zenbaitek uste dute egunkari orrek zerbait erderazkorik izatea elitzakela txar. Baña au, bi eraz diteke.

Lenengoa: Iñork uste du erdel atala oso laburra bear lukela, ta ezer baño geiago goiko baimenak erreztu utsarren. Adibidez: oraingo agintarrien «nota oficioso» edo diralakoak, eta beste puxkaen bat, euskal-erdel izketa edo, erdera irakatsi-bidez bezela.

Bigarrena: Beste batzuen iritzi, egunkariak ia erdiz-erdi, esateko, bear litzuke euskera ta erdera. Donostian ez omen dago —ta egia da— Kristautasuna ta Euskalduntasuna, biak erabat, bear bezela aldezen dituan egunerokorik. Oien ustez, euskal-erdel egunkari orrek euskera utsezkoak baño sarbide askoz zabalagoa luke, ta, euskera utsezkoa izanik artuko ez luteken zenbaitek, bestetara bai omen, pixkaria-pixkariaka euskeraz irakurtzeko oitura ta zalea sortzen litzaiotekelarik.

Ni, nerez, gauz oso-zalea naiz: laukia lauki ta biribilla biribil; ura ur, ardoa ardo: ur-ardoa ez atsegin. Baña orrela uste degunok bagaudeke okerean. Ez ote diteke, alegia, euskera berarentzat ekarri obekoa egunkaria, euskera ta erdera naasi ezker?...

Artarako, zeintzuk atal euskeraz eta zeintzuk erderaz?... Berriak edo informazioa, zein izkuntzez?... Eztakit banatze au erreza dan.

Eta, izanda ere, badirudi batzuek euskera ta besteak erderarengatik artu nai izango lutekela, ta gutxik biengatik. Ala, beraz, geinentzat, egunkari osoa bearrez, egunkari-erdi?...

Bestalde, ez ote genduke beti ere joko euskera baxterrean uztera, ta ez al du egunkariak naiz gure beste edozein asmok elburu nagusizat auxe bear: euskera zokotik, sukaldetik, goizeko seiretako mezetatik, zabaldegi-ra, jangela apañera ta meza nagusietara bultzatzea?...

—EGUNKARIA NOLATAN ATERAKO GENDUKE?

Guzia, bai etxe, bai lankin eta abar, berriro-berritotik erositat? Ez: argi dago ezetz. Argi dago, askoz gutxiagotarako ere nekeak eta izerdiak izango dirala. Beraz, iñoren babesean atera bearra litzake, ta zenbat eta babesago obe.

—NOREN BABESEAN?

Gure ustez, aukerakoena *Argia* asterokoa degu. Ori izan da egunkariaren aitzindari edo aurrelari. Orrek diardu bideak zakarrez garbitzen.



Ori dago lanbide orretan zerbait zaildua, ta orren lantegietan baditugu artarakoxe irar-langille euskeldunak...

—ARGIA-BABESEAN IZANIK, NOLA BEAR LUTEKE ASTEROKO-EGUNKARIOK?... BIAK BAT, ALA NORBERE ALDETIK?

Ontaz luzaro jardun degu.

Nere aburua zan astekari-egunkariak BAT egitea. Artara, egunkaria besterik elitzake izango, ta onek, astean bein, ale berezi bat ateratze'aal luke. Astearen egunetarik bostean, beraz, egunkaria eskuan dezutenaren aundikoa litzake. Igandeetan, berriz, ale berezia, ale aundia: au da, egun ari dagokion egunerokoa ta, erdian sartuta, beste ainbesteko astekaria.

Ale aundi ori egunkari naiz *Argia*-irakurle guziei elduko litzaloke: bere lanik aundiena egunkaria zabaldu ta bazte-rretarañotzea litzake. Egunkariak, esateko, aste gorrian egunero iru milla ta bosteun ale salduko lituke, ta igandean zazpi, zortzi, agian amar milla ale, berezi oietarik, orrela bere bideak gerorako urratuz.

Badirudi, gañera, biak bat ez egiñenean elitzakela ain erreza astekari-arpideduna egunkari-arpidedun egiten.

Baña, gai ontaz nik baño geiago dakitenekin jardun degu, ta oien ustez ohea omen da asterokoa ta egunkaria berezi ta norbere aldetik gel-ditza.

Bien artean euskaldunei euskel ingietarako dirutza aundigoa aterako omen lioteke, bai arpidez, bai iragarkiz. Alkarri urratuko omen lizkio teke zabalkunde-bideak, bien arteko eztabaidak ere, bear bada, sortuaz. Azkenik, jendearentzat, izenez ta izatez berezi izan arren, etxe-barrenean, itunben-bidez, batze'aal omen lirake, diruz, alkarri eutsi, lagundu ta bion zoriak alkar-lotzeko. Ta baditeke auxe oberena izatea.

—EGUNKARIA IRASTEKO ZERTZUK BEAR?

Dirutza, arpideak, iragarkiak. Otseñak, idazkideak errietako izparkaria. Bear da, bazkun (empresa) benetako, edo formala, egitea, akzio-bidez. Bear ere bear da, gaurkoz, goikoen baimena; baña, au gerorako uzten degularik ere, ezin galazi dezaiguteke dirua, arpideak, iragarkiak, otseñak, eta leen aitatu gañerakoak itzartzen astea: itz batez, gure indarra neurtzea, ta, zeatz-zeatz, egunkaria ateratzeko añakorik badegun ala ez erriz-erri ta lagunez-lagun aztertzea.

—OÑARRI-DIRUTZA TA EUTSI-DIRUTZA.

Oñarri-dirutza —erderaz «capital», «capital social» deritzana— au da, azkio-ordañez jaso bearra, eun milla laurleko Jotzen degu.

Baña, garrantzi aundi-aundikoa litzake, oñarri-dirutzaz edo «capital»-az gañera aal-besteko eutsi-dirutza, edo «fondo de resistencia» bat sortzea, leenbiziko urteetan diteken galtzeari erantzuteko. Agian, orretan-txe egon diteke egunkariaren iraupen-giltz bakarra.

Eutsi-dirutza ori Ameriketara biltze'aal balitz! Iñork esan digu badi-tekela. Kuban eta Arjentinan bildu dezakegula dirurik, ango gure anaien artean, itzaldi-sail baten bidez, Prantziko euskaldunak, adibidez, Larresoro-apazgaitegirako jaso duten bezela.

Dana dala, nere ustez, akzioak Euskalerriko euskaltzaleen esku bear genituzke. Angoak ezpaitituzte kristau-euskozaletasun-gaiak guk bezela jotzen, beti ere on litzake, egunkariaren zuzenbiderako, aren oker-eziñe-rako, oñarri-dirutza, ta aginbidea beraz, emengo euskaltzaleen gain izatea.

—EGUNKARIAREN EMAN-ARTZEKOAK, EDO «PRESU-PUESTO»-A.

Egin ditzagun «número» batzuek, egunkaria astekariak batugabeko etsian.

1.— Eralki-bearrak, lazkatu-bearrak, au da: *gastoak*.

Otseñak. Idazkola edo redakzioan bost lagun bear lirake. Bata, zuzendaria. Gero, asieran beintzat bear-bearreko litzake, urrutizkiñez berriak artu ta izparringitzaren berezko makurkeriak guri irakasteko, izparringi-gizon ibillien bat, erdelduna. Oietaz gañera, berri-itzultzalle bi, ta berribatzalle edo «reporter» bat. Bost lagunon irabaziak, batera jota: ogei-ta sei milla laurleko (26.000). Banakaritza edo Administrazioan bear lirake Banakari bat, eta mutil laguntzallea. Bion irabaziak, sei milla ta bosteun (6.500). Otseñak, guzira: ogeita amabi milla ta bosteun (32.500) laurleko.

Idazlanak, kolaborazioa alegia, zerbait ordaintzen asi bearko luke egunkariak. Baita ere, gutxi bederik, erri nagusitxoenetako izparkaritza. Alaz guztiaz ere, bearrezko litzake zenbait idazleek, abertzaletasunez, leenbiziko urteetan lana (ilean bein-edo) utsean, edo ia utsean egin-itza ematea. Jo dezagun, asko ezalarik, zenbakiko ogei laurleko idazlan ordainduetarako. Urteko sei milla bat (6.000) datoz.

Gero, izparringietan «aria» esaten zaiona, au da, urrutizkiñezko izke-taldiak, Madrid eta Bilbokin: illeko seireun eta berrogeita amar (650). Madrideko izparkaria: berreun ta berrogeitamar (250). Bilbokoa: eun (100). Gipuzko-urrutizkiña: eun (100). Beste egunkari ta aldizkari-arpideak-eta: eun (100). Guzitara: illean milla ta berreun, eta urtean amalau milla ta lareun laurleko (14.400).

Banakaritza-gastoak, bidaien itundua ta abar, illeroko seireun jotzen dala: urteko zazpi milla ta berreun (7.200).



Landola-saria, eraena, «alkilerra»: milla ta berreun.

Azkenik, zenbaki bakoitzeko paper-irartzeak, papera ta inprenta ale-gia, iru milla ta bosteun aleetarako jo diteke berreun ta irurogei (260) laurleko. Urtean irureun ta amar zenbaki, beraz, guzitara, urteko: larogei milla ta seireun laurleko (80.600).

Gastoak, guzitara: eun ta berrogeita bat milla ta bederatzireun (141.900).

Urteko eralkibear orrek, zer sarbide eskatzen du?

Gutxienez auxe:

Arpidez: iru milla lagun, ogeita amaikana laurleko larogei ta amairu milla (93.000).

Eskura saltzeko eguneko bosteun ale jota, bakoitzak zazpi eunen edo xentimo garbian uzten ditula: amar milla zortzireun ta berrogeita amar (10.850).

Iragarkiak, anuntzioak, eguneko eun laurleko jota: ogeita amaika milla (31.000).

Guzitara, sarbideak: eun ta ogeita amalau milla zortzireun ta berrogeita amar (134.850).

Alarik ere, betebear au, utsunetxo au degu, aterea ta sartuak berdintzeko: zazpi milla berrogeitamar (7.050) laurleko.

Ori besterik ezpalitz!

EMAN-ARTZEKOAK, XEE:

ERALKI-BEARRAK:

Idazkola:

Zuzendaria: 8.000.

Erdalduna: 5.000.

Itzultzalle bat: 4.000.

Beste itzultzallea: 4.000

Berribatzallea: 5.000 26.000 Lko.

Banakaritza:

Banakaria: 4.000.

Lagun-mutilla: 2.500 32.500 Lko.

Idaz-lankideak: 6.000 Lko.

Berriak:

Madrid-Bilbo-aria: 7.800

Madrideko izparkaria: 3.000

Bilboko izparkaria: 1.200

Gipuzko-urrutizkiña: 1.200 13.200 Lko.

Banakaritza-gastoak. 7.200 «

Arpideak-eta: 1.200 «

Paper-irartzeak: 80.600 «

Landola-saria: 1.200 «

Guzira, gastoak: 141.900 Lko.

SARBIDEAK:

Egunkaria-saltzea:

Arpidez (3.000): 93.000 Lko.

Eskura (500): 10.850 Lko.

Iragarkiak: 31.000 Lko.

Guzira, sarbideak: 134.850 Lko.

BERDINBEARRA: 7.050 Lko.

141.900 Lko.

Jaun andreak: Nik gaurkoz nerekioka egin det, eta datorren asteartean, zuen onerako, ezte luzaroan aritzeko usterik.

Lantxo au nik egiña baño zenbait adiskide onek gaiez emana det; izenez aitatzerik ez berok nai, baña, alarik ere, nolabait nere biotzetiko eskarrak ar bitzate.

Eskarrak ere, ta eskar biziak, egunkari-erakuska egiteko ainbat lan eder biali dituzten euskeltzale jatorrei.

Ta orain zuek mintza. Zer derizkiozute nik esanari? Egunkaria egin diteke? Ezin diteke egin? Baiezkoan, ala ori zeatz jakiteko, ekingo al diogu diru-arpide-iragarkiak eskatzeari?

Orritxo batzuek artu dituzute: orra bertan nik ikutu ditudan gai nagusienak.

Zuen eginbearra auxe da: galde oiei erantzun, argibideak guri eskeñiaz.

Gero, berriz, diru-arpide-iragarki eskatzea nola eraldu ta antolako ditugun ikusi, ta noizko itzartu bear geran, bazkun euskeltzale bakoitzak bere barruti edo errialdean egindako lana agertzeko.

Beraz, otoi, bear-bearreko da gaur emen zeratenok, batez ere bazkun-ordezkarriak, datorren asteartean ere etortzea.

Ta besterik gabe: «Yaunak, agur!».

Eusko Ikaskuntzaren Deia, 1929, 42. zbka.



EGUNKARIA

Gai ontaz zenbait idazlek agertu dute iritzia. Asko dira, ordea, ixilik.

Ori bezelako arloetan, orratik, ezer baño lenago, artarakoxe «giroa» sortu arazi bear izaten da, asmoak loreztu ditezen ta, loreztuz gero, igali mardulik ekarri al dezaten. Ta giro on orretartzeko, zabala jo ta jo bear, aizea astindu, esku betean eltxoak atxitzen bagenbiltza bezela... Aizeastintze artarako berriz, jardun ta jardun, mintza ta mintza, ekin ta ekin berritsukerian, atsoak —eztabaida emen, murmuxeta an— ari oi bezela...

Orrelakoxea bear du, gogo-lurrak ur asegarria artzeko gertzen dituan atxurketak. Euskel egunkaria oso urruti ta eziña dakustenak, esanaren esanaz ta ausnartuaren ausnartuz bertago ta errezago etsi dezaten.

Otoi, bada —eskabide au iñola ezpadagokit ere— idazkortza kirnetik artzen dakizuten guztiok, naiz txiki izan naiz aundi, euskel egunkari-gaiaz zenbait idazlan bial ditzazute «Euzkel Atal» ontara, *Argia*-ra, ta abar.

Zuk ere, «Orixe» adiskidea, ekin gogoz arloari zere euskera mamiaz.

Euskel egunerokoatzaz badakar idazlan bat *Euzkerea*-k. Gaia erabilli utsagatik ere eskar-gatzaie arazo ori ari degunok; areago berriz, gure azterketan eskeintzen diguten laguntzarengatik.

Eder zait, batez ere —ta ontan, bada-ezpada aitor dezadan, nere aoz, ez iñorenez, diardut— euskeltzale alderdien arteko elkar-artu-nai apurrenik sumatzea. Ontan, nik uste, gauz guzien gañetik alkar-lagundu bearra jarri bear degu; iritzitxoen gañetik IRITZIA, euskeraren ona. Euskeraren ona ezpaiditeke euskotasun oso-zalearen kaltegarri.

Euzkerea-koak egunkarietaz dakizkiten goraberak zeatz erakustea eskeintzen digute. Eskarrik asko. Esku-tartean darabilgun ikasketa ontan orixe nai degu, askoen iritzi ta onuak, al danik egiena izan dedin. Xetasun oien eske, beraz, etorriko gatzazute inoiz.

Euzkerea-k dionez, euskel egunkariak urte-mordoska aundi samarrean urteroko berrogei bat milla laurleko galdu bear litzuke. Ori ala bada, obe degu ezertan ez astea. Egia, bai, euskeltzale aberatsak laguntza zabal eman ezkerok, orrek ez ginduzkela izutu bear. Baña... Arlo auetan, biotzean, sakelean ez-ezik, bear litzake urrea euki. Ta biotzean, sakelean ezik, txi-roak oi dute; sakelean, biotzean gabe, berriz, aberatsak. Bat-bestean, erabat, gutxik: orixe txarra!... Ortatik baitator gure arloteria... Ni ere etsi-

ta nago, bai, iñoiz aberastuko banintz, ezetz sasi-arte latz auetan oñik sartu!

Baña, aria etena det...

Lengora gerala, irakurle: guk eztakusgu arloa *Euzkerea*-k bezin illun; gaurdañoan beintzat, baikorxeago gaituzu.

Ori bai: ari-mutur guziak lotu bear dira len-lenetik. Ibiltzen asi baño lenago, oñazpian lur ibilkorra ala geldia degun ikasi bear. Zerbait egieñean, dirurik ez galtzeko, porrot ez egiteko ziurtasunez ari bear da.

Gure lan-asmoa, auxe da. Lenbizi, al dan zeatzenik, arloa argi ikusi, zenbaiten iritzi ta aolkuak entzunaz. Ontan *Euzkadi*-k ere, ta *Argia*-k, asko lagunduko al diguten ustea badegu.

Egunkaria berri-berritotik egin, lankiñak eta abar erosiaz? Ala iñoren babesean?... Iñoren babesean, noski amets dana amets izana iñoiz biurtuko bada. Artara, zenbat diru bear?... Zenbat eta nolako otseñak?... Auetek ere aurre-aurretik begiz jo ta itzartu bear dira. Gero, zenbat arpi-dedun eta zenbat iragarki gutxienez bear ditugu, lenengo egunetik galdu gabe, ala oso gutxi galtzen, asteko?

Ona, egin-bearreko azterketaren zati nagusitxoertak.

Azterketa ori oso egiña danean, euskeltzale guztiok, eta batez ere bazkun euskeltzalien ordezkariak, batzar batera deituko zaituztegu. Agian, «Euzko-Ikaskuntza»-ren aurtengo uda-ikastaroko euskel izketal-dietara?... Elitzake txarki...

Antxe egin liteke, guzien iritzi ta eztabaida anaikorrak, azken azterketa. Bertatik baiezko erabakia baletor, bazkun guziek, norbere lurraldean, asi bitez erriz-erriko lanean, diru-arpide-iragarki aginduak jasotzen.

Orrela jakin genezake egunkaria egin diteken ala ez; ta, orra, jakinlarri orretzek eraso gaitu oraingo aldian.

Jarrai gatzakion, bada, len baño ere baikorrago, lan asiari. Astindu dezagun aizea, eltxoak esku-beteka atxitzen bageniardu bezela, ta Jainkoak nai izango al du eltxoa baño zerbait mamiagorik, alako batean, eskuratzea. Listorra eztedilla izan orratik!

Euzkadi, 1929-04-26



EZ SARI TA EZ ESKUPEKO

3. EUSKAL IDAZLEAK

Gazte samarrak geralarik ere (?) —ta, gazte-antzo, sutsu ameskorrak— ari gatzaizu, bai enetxoa, munduko berri ikasten. Adibidez, auxe badakigu: izana, ustearen aldean, ustel oi dala. Izanaren arloteria, ordea, askoz dezu areago euskel ametsen ondoren. Alegia; gere euskotasuna, gere euskeltzaletasuna, ta al dakit nik zenbat «ziri» geiago, ezpain artoberootan maiz darabilzkigu; baña, begira ez dezaion iñork gure eginmenari dei egin. Errezago da, bai, euskerari, erderaz ta begiak irabiatuta «milenario», «venerando», «tesoro secular», ta beste zenbait txaldankeri esatea: errezago noski, gu geok euskeraz aritzea, geren aurrei ala erakustea ta euskeraren bizirako zakela atximurtzea baño...

Bazan gizon bat, guk maitetzat genduna: euskozale eztiran zenbaitek ere agertu baitzieten onginaia. Gizon orrek, euskeraren alde, urte luzetan, neke askorik eraman ondoren, aldegin dizu jaioterrira, angio pakean zartzaroko atea urratzeko ustez.

Munduaren izen onerako beti bear baitituzu gizagajo batzuek, alako bat edo besteri buruak eman die gizon ari gorazarre —omenaje— eder bat egin bear liotekela euskeltzale orok. Gizonak ordea, apala baitzan, gorazarrea euskerari zor zaiola dio.

Jardun batzuen ondoren, ikus zertaratu geran: betirako gorazarre bat, naiz urria, euskerari eskeintzea, gizon zintzo aren izena, oroigarritzat, emanik. Zeaztuz-zeaztuz, Zumarragako euskel egunera gatoz, ta bertan euskel idazleak zearo tajutu dizute asmoa: arpide bat zabaldu bedi, amar milla pesetatxo baderik biltzearren. Diru mordoxka ori jartzak «Euskaltzaindi» naiz «Eusko-Ikaskuntza» zaipean, ta aren adarraz, aren ekarri edo korrituaz sariztu zak, urtero, nonnai argitaldutako euskel idazlanik onena.

Ontara osotu zan «Kirikiño» sariarekiko asmoa. Eguzki ederra ta jai ederragoa baitziran egun artan —jolasa ta oporrerako bakarrik ote zaigu berotzen odola?...— orok uste izan gendun Euskalerriari amar milla laurleko kentzea, itxasertzari eskua bete ondar ainbat zala. Iñork uste zun «uxkeri» ori biltzeko Bilbotik irten bearrik etzegola, «ainbeste adiskide on baitzitan an Bustintza jaunak». Bertan sortutako batzordeak ere etzun uste besterik.



Baña, usteak uste, arpidea asi da, joan ere egin dira lendabiziko illa-beteak, eta orra gu ikara-samartzeari eman, asmoaren azken negargarrien bat sumaturik, ain baitzijoan mottela ta illa.

Bat-batean, inork ustegabekoa dator. Gertari samiña —artakotzat etsi genizun itzez, beintzat— gertari beltza, guk zuzendu eziñekoa, baña orretxegatik euskeltzaleen biotza irabiatzeko añakoa ere, ta, beraz, gure asmoaren zorimotza sendatu zezakean gertaria. «Kirikiño» il da...

Euskerari erderazko itz-putzak esateaz gain, besterik oiuztatzez ere bagaituzu euskaldunak zintzurrok larruturik, eta inguruko arrotz guziek asperrarazita. Alegia, aspaldidanik, larru meezko jatorri-agiria erakusten baño arrokia, or goazkizu esaten itzez laburtxoak gerara, baña... egitez, ordea?... egitez lukaika baño luzeagoak!... Au ere ezta ziri makala.

Il zan «Kirikiño». Eneee!... Ura otsa, ango iskanbilla, gure negar-zotiñak, oroen bularra lertubearra!... , zer zan ura?... Guziok agurka, guziok goreska, guziok illetari alako gizonik gutxi zala, ari euskerak onen-beste zor ziola, arexen oroitzapena beintzat etzala inoiz gure gogoetan itzaliko!...

Arako gizagajoak —munduaren izen ona zaitzeko Jainkoak jarriak, alegia— alkarri esan zioten: «Oraingoan, orraatik! Oraingoan bai, etorri bear dik urreak erruz, urregorritzko baitira, biotzarekiko, oien malko samiñok... Amar milla laurleko, alajaña!... Bai geixeago ere, eman baietz, alkarren leian, beartsuak eta aberatsak!».

Badakuszu, irakurle: alper samarreko lana dirudit «Kirikiño» sariarekiko gorabera azaltzea.

Emen, Euskalerrian, edozein gai irabazigarrik atera zak «emprestito» bat: eskatuala, ta akats, bete baietz ordu betean. Emen, Euskalerrian, oa noiz-nai ardandegiz ardandegi: beti arkituko dituk beterik. Oa ostikoketa-zelaietara: an ere jendea zakarra bezela; bi, lau, seina laurleko aizatu bear izan badituzte ere. Emen, Euskalerrian —asmo begiragarri ta doneetarako, egia, baña, txarrak al dira gureak?— arpideak badituzu eunka milla pesetakoak. Emen, Euskalerrian, amaika dirudun ezagun izan ditugu inoiz, euskozaletasun-garrak kixkalita, esku betekala zillarra botatzen, auteskundeetan garaile izateko... (Nor-gere maitetasuna beti: ezta kigu euskaldunok maitetasun ederragoen berri!...). Bada, Euskalerrian ortantxe bertan, gabetasunik arlosteanean bizi (?) dituzu, euskera, euskal oiturak, euskotasuna zaitzeko jarri diran bazkun guziak. Euskerari ez iltzen laguntzeko, ezin ditezke amar milla peseta zikin batu. Ezta ere beini-betirako eman bear dezula jakinda: urtero-urtero, zuk ezer berriro eman gabe, saria

berriztuko dala: sari orrek gertu aurrena, ta bazkatu gero egin bear duala inoizko gure egunkaria...

Ontara gulararik, zuzenkidez ari ezker, aitortu bear degu gauzatxo bat: aberatsak eta txiroak ez tutelara, alegia, berdina eman. Geiago eman dute, jakiña... txiroak. Gaurdaño bildu mordotxoan, geiena beartsuen aiez egiña da. Zenbaitek, bizibideari gaur ordu bete biar laurdentxoan osturik, euskerari buru-eskuak eskeintzez gañera, ta utsean eskeintzez gañera, berenetik ipintzen baitue papera ere ta selloa, badizute kemenik edozein arpidetara bi pesetatxo, bost pesetatxo, botatzeko. Ostera ordea: aberatsen ukaldi gaitzak, bosteun eta millanako ukaldiak, ez tira gaurdaño «Kirikiño» sari-rako agiri. Aundiki oiek, ez al dute asmo ederraren mamia atxiki?... Ala, etxez-etxe eskean astea bear dute?...

Gogoan det gaur ere, Zumarragako euskal egunerako arpidean Belaustegigoitia jaun baten bosteuneko agertzea. Ura poza gurea! Bizkortu ginduzun emaitza ark!... Eta abagunea egokitu zaidan ezker, geixeago esan dezadan, geren buruok edertuz. Alako lanbideak beti ere, lendik aski lanbeturik dauden bizkar ezpaletoz, artu bear zun zaldun eskuzabal ark paper-mutur bat baderik, eta bertan «eskarrik asko» bat, aren diruaz sariztutako ogei mutiko-nexkak izenbetua, zirriborro ta guzti.

Gutxi, naiz berak onak, kendu ezker, bada, gure aberatsak arloste gorriak dituzu, irabazirik, atsegiñik ala puztubiderik ezta kartzen eginbeartetan. Orain gutxi, adibidez, Bilboko arpidean lerrotxo bat agertu da, eusko langilleak «Kirikiño» sarirako emandako berreun laurlekoez. Eusko otseñak zlrara esan dute gero. Berdintsu da, langille deritzanak baño beartsuago oi baitira, askotan, otseñak. Diranak dirala, ezta zenbaitentzat ikasbide txarra. Baña, ain baigera bizkar bigunak!... Eta bizkarrak uzkuertzen ain yaoak gerantzat, alperrikako baitira ikasbiderik larrienak!...

Orintxe, bada, zirt edo zart egin bearra dago, sariaren orrekin. Gu, ludiko, ukabilketa-txapela etxera-usterik ain arro gabiltzanok, euskerari «il-ala-bizi»-ko azken burrukarako amar milla pesetako «zakela», «poltsa», eskeintzeko ez gera gauza... Bekokia ere gorritzen zaigu, ontaz erbestetarrrak zer esango lutekan gogoeta egiñik. Ta ezpaita egoki urtearen atzenerrate parregarri aritzea, eman nai duanak eman beza bereala, ta nai ez tuarnari, bejondeiola.

Nere iritzirik entzun nai izan ezker «Euskaltzaleak» eta Bilboko baztordeak, auxe legike:

Lendabizi: Garagarrillaren azkenean arpidea itxi, ta bertatik iragarri ala egingo dala.



Bigarren: (guziok bateratuko al gera erruki-egintza ontarako!) amar milla laurleko biltzen ezpadira, jo genezake gure aberatsak, naiz ala ematen ez azaletik, urritasunik gorrienean daudela; ortara ezkerro, bildu dana bildu dala, aien artean bana dezagun; bakoitzak asko-askorik jasoko ezpazu ere, beti da laguntza...

«Kirikiño» gaixoa!... Zenbatu ezin-ala zenituan adiskideak. Nork uka lezake, aien illeta-eresia oiartzunga baitago oraindik?... Lurralde berritik —Jainko-argizko lurraldea!— ezer ezpaitira or beko bizitza-gau onek aunditu oi dituan atsekabeak, ez bide da zureganaño eltzen gure diruotsa... Ez erreza izan ere, ezpaitago otsik!... Ez beza ordea, iñork artatik atera gure adiskide aundiaz aztu geranik; baizik, ainbestetaraño dala guri-goza gere maitetasuna, beldur baigenduke maitearen pakea urre-tintin zakarrez autsia!...

* * *

Egi kaxkar auek esan nai nituan iñon, erderaz, baña...

Argia, 1929-04-05

«KIRIKIÑO» SARIA

Oñarau-Gaiak
(Proyecto de bases)

Zaartzen ari da urtea. «Kirikiño» sariarekikoa zearo tajutu ta araupeztzeko garaia da.

Arpidea ari da osatzen, gure negarrak negar.

Oraindaño esan ezpaita, nik uste; aberatsei zirikada gogortxoak eman dizkagun ezkerro, zuzenbideak eskatzen du besterik ere: ukaldi batez «Kirikiño» sarirako bi milla ta Enbeitarentzako bosteun laurleko eman ditun abertzale aundia gorapenez aitatzea, euskotar on guzian ikasbide eginiik.

Bederatzi milla laurlekofik gora gera, ta, urtearen azkenerako amarrretara ezpagaña ere, gure Bazkun euskozale nagusiek meta urri ori osaeziñik eztute. Beraz, dirutzarekikoa egintzat eman dezagun.

Orain, araudia, sari orren legea.

Orixe leenbait-leen antola-bearra dago. Laguntza bidez, nik araugai batzuek aurrezarri nai nituke. 1928-garreneko Iralla 30-garrenez Zumarragan arlo ontaz jardutakoa artu det, ustez, zuzenbide nagusitatz, araugaion mamitatz. Argatik, «Euskaltzaleak» eta idazle-batzar artara ziranak onetsi ditzateke, noski, aldakuntza txikiren bat gora beera.

Ona, bada, araugaiok, atzalbide labur bat edo beste tartetzen dizkatedalarik.

I.— «Kirikiño» sarirako Batzorde Eratzalleak bildua «Eusko-Ikaskuntza»-k 1930-garreneko urte leenatik, jaso beza, ta, irabazian sarturik, zaitu.

«Eusko-Ikaskuntza» «Kirikiño» sariarenganako ederretsia erakutsirik baita, minki; bestalde, Bazkun euskozaletarik zabalena ta iraunbidez sendoena dalako; egokien orreriex eman dezaiokegu dirutzaren zaimena.

II.— Urteroko saria, bilduaren eunetiko laua bedi, aurtendik asita.

Dirutza amar milla lauerko jotzen degula, LAREUN da eunetiko laua. Aurtengo (1929-garreneko) urtean argitara emandako lanik onenak saria, leenbizikoz, jasotzen dularik, dirutza bederatzi milla ta seireunera dator. Baña ori bera, urte betekako epez, euneko lau t´erdian sartzen dala, aski da saria urtero osatzeko.

III.— Saria beti osorik eman bearra da, lanik batere aurkeztu izan bada.

IV.— Sari-gaia, betirako, euskel artikuloa bedi, euskel ala erdel egunkari, naiz astekari, naiz bestelako edozein aldizkingietan agertua. «Artikulo» zeri, ta zeri



ez, iritzi lezaiokeen zeatz aurrez esatea ezpaita errez, epaikariaren gain uzten da etsibide ori; alabaña, aren muin eta ariak gaurkotatzen-usaia (aktualidad) bear du.

V.— Artikuloen argitaratze-epea urte osoa bedi, 1929-garrenekoa leenengo dala.

VI.— Dirutzaren eunetiko laua emanik geroz, urtetik urtera irabazi-ondarrik balitz; ala, saria, iñoiz ezin-emana (araudi onen arauz); aldiari beingo beste sari bat jarri dezake «Euskaltzaindia»-k, arekiko gai ta gaiñontzeko xeeki oro asmatu ta aurretik iragarriaz.

VII.— Artikulo-saria bein jaso dunak urrenge bi urteetan ezin berriro irabazi dezake. Idazle batek bi bider artikulo-saria jaso ezker, eztezake berriro urrenge iru urteetan, eta, iru aldiz irabazi ezker, berrirotzeko gutxienez launa urteko tar-teak bear ditu, gabe. Alarik ere, sariketaz ate, oien lanak aurkeztu ditezke, ta erpai-maiaren aipakunde oberena jaso, bear bada, baña ez saria.

Arau onen elburua?... Saria banagotu, aalik geienengana jo-bideratu.

Zoritzarrez, euskel idazleak eztira millaka. «Kirikiño» saria bidez ugaldurazi, ala, baderik, diranak zirikatatu ta bultza nai lirake. Askoek, ordea —beren burua edertzat eztuten apalak— badiokete: «Egiñalak arren, nik ezin olakok ala alakok ainbat. Sari ori beti lau-seiren artean dantzatu bearra dek». Idazle oiek gogo-urritu eztitezen, ta gertakizun ari aalik ongien bidea ukatu naiez asmatua da, bada, goiko araugai ori. Errezki diteke tajuz ez sortua; baita, erabide oberik iñork eskeñi aal izatea... Zuzentzalleak betoz.

VIII.— Epai-batzarra «Euskaltzaindia»-k urtero autoko du.

Lan asko-samar bilduko balitz, izendatu ditezke adibidez, bi epaikari euskelki bakoitzerako; oien baetuz geldituko diran lan bikañenen artean auzi-maiak errezago erabaki aal dezan.

IX.— Urteroko Ilbeltzean norberak sarigarri iritzi ta aurreko urtean argitaratutako idazkiak ebaki ta bialdu bitza «Euskaltzaindi»-ra, argitara emandako eguna adirazi. Azalpean benetako izena eman beza, gaiñean idazkipeko izen-ordea (nair izena) ipintzen dularik. Ebakia igorri eztezenak, bestela idatzirik bialdi beza, baña zein egun eta ingetan emana izan dan adirazi. Otsailean, epai-batzarreko edonork aurkeztu dezake, egilleak ez bialdi ta berari atsegin izandako edozein lan.

X.— Urteroko artikulo-epaia beranduenez Garagarrillaren azkenerako eman bear da.

Orra nere... «amar aginduak».

Norbaitek galdegin dezake, araudiaren aldakunde bearra etorri ezker, noren esku litzaken.

Euskel idazleen batzarra nagusi?... Ta batzarre ori nortzuk osatuko luteke?... Edozein unetan —aldiz-aurretik bear-deia bota ezker— bilduko liraken idazleek, gutxi naiz asko?... Ta dei ori nolakoa?... Gutxienez ogeitabost idazle bezendutako idazkia; euskel egunkari-astekarietan iru aldiz, ta Bilbao, Donosti, Iruña ta Gazteizko erdel egunkari banatan, baderik, bein agertua?

Beste bat badatorkidake, euskera ta gure amets guziek zilipurdika joango balira, ea dirutza artaz zer egin?

Gizona! Ori ere bada, ba, urrutira begiratu bearra!... Aurrena, Jainkoak —Iñoiz bestera badirudigu ere— eztizu gure asmook zilipurdi egiterik nai... Baña, jar zazu ongi ba-derizkiozu, dirutza ori, artara ezker, Euskadiko Erruki-Etxeetarako izatea: euskel idazleen aurrentzako zuzen-zuzenik joko luke!

Baña, beneratu gaitean berriro, ta asketsi.

Zaitu bear duan bazkunari dirutza eman ondoren, on litzake, «Eusko-Ikaskuntza»-k eta «Euskaltzaindia»-k bezendu ta, idazki bana Euskadiko ingi guziei bialtzea. «Kirikiño» saria jarria dagola, ta zertarako. Euskeraren onez, asmo ori guziek ontzat artua ikusi uste dala. Beraz, iñork ingi orreri, saria irabazi asmoz, euskel idazkirik bialdi ezker, argitaratzea eskatzen zaiola... Ta abar.

* * *

Iñork araugai buruz zer-esanik badu, mintza bedi, asko berandutu gabe. Batzorde Eratzalleak —lan au berak artu nai badu, ta bestela, «Euskaltzaleak»— epe bat jarri dezake —Lotazilla 15-gna. arte?— ta bitartean azalduko diran iritzi egokienak araudia eratu.

* * *

Orain, adiskideak, idazkortza zorroztu ta ekin lanean: Zenbat eta geiago aritu, errezago asmatu dezakezute, «makur»-pilla eder ori etxeritzen, «atsoari» pozaldi eder bat emanaz.

Euzkadi, 1929-11-10



BERGARA 1930' gna.

Dagonilla 31' gnetik Iralla 7' gnera.

«EUSKO-İKASKUNTZA»-REN BOSTGARREN BATZARRA.

Bi urtez bein, edo, «Eusko-Ikaskuntza»-k, Bidasoaz andiko ta emendiko euskotar guztiok batzarre aundi batera deitzen gaitu.

Oñatik eman zion sallari ezin-aaztuzko asibidea: Gernika, Iruña, Gazteiz jarrai zazkio, lerdengi.

Aurten, tokiz, arri zaar ederrez jantzitako BERGARAK du aldi; gaiez, ERRI-ERTIAK.

Zer da ERRI-ERTIA?

Itz bikoitz orrek zatirik azaldu-bearrena ERTI du. Ikus dezagun, bada, zer dan *ertia*.

ERTI (erderaz *arte, art*, e.a.) EDER-TI-z da sortua; ta, orrenbestez, orra erdi-adirazirik aren mamia.

Olertzale-antzo, esan genezake ERTI autsu dala: izadiaren eder-miñak bizitza ikutua. Gure bizitoki maitagarri ontan guztia dirudi Jainkoaren ala gizonaren edermenak igortzia: laztan oien bidezko ume da *ertia*.

Irudimenari lokarriak etenik, uste dezakegu are bizigabeak ere eder-miñik badutela... Ez al da arria, bere burua edertu bearrez, aitzurdin biur-tzen?...

Ezin-igizko bizidunen artean, *ertia* lore da ta adaburu yori...

Bizidun ibilkorretan —gizakia ez-barren— mail bat gurenagoa atze-manik dezu *ertia*. Or erlearen abaraska arrigarria; or txoriaren kabi ta abestiak...

Ludian zer oro bada edertzale —arria, zuaiza, aberea—, nola ez bide litzake gizona?

Adimengabeak, oriakoak itsuki, arakoak olde-utsez, guziak Egillearen arauari lotuta, *erti-lana* dagie; aiena beti da bat eta alda-eziña.

Gizona, ordea, jare baita, buru-aalmenen jaurbidea bere esku baitu; ertigintzan ere, gañerako egintza-bideetan ainbat, oarrez, asmamenez ta gorago-yoranez diardu, jaiotzetik il-ondoraño bizitza *erti-lanez* ezitzen, seaska-eresia leenen dala ta obi-arria azken...

Alabaña: are gizakiaren aria ere, jaretasun-utsezkoa ezik, erdi-olde-zko danik badasakegu.

4. HITZALDIAK



Alegia: intxaurrak ezpaitu pagoarenaren tankerako ostotzaz bere burua jazten; ta ez-eta enarak kabia zozoak alakoxea egiten; alatsu, giza-enda —giza-era, giza-erri— bakoitzak eder-era berezia dakar ta, ondoz, erti-era berezkoa. Txinatarren ertia, Kolonek Ameriketara arki gizadiena, izoztar larruz-jantziena, eztira ertiera berdintsuak.

Arako itz bikoitzean, bada, orra adirazi, ERTIrena ezezik, ERRiren mamia.

Erri bakoitzak, odoletiko zalearen, bere bearraren, bere bizieraren, zeru argi ala lañoaren aritzo ta arabera sortu ertiera, ta ertiera orren arauz sortutako erti-lanak: orra, *erri-ertia* zer.

Lan ertitsu erritar dituzu, adibidez: noiz ala nork egiña eztakigun abesti zaarra; olerkari lauen, erri-olerkariaren neurtitz edo bertsoak; pozaldiak jaitzeko erriak asmatu ditun dantzak; jazkera; makillean, kutxan, argizai-olan erabilli izan duan zur-apainkera; bizitokiari, etxeari, urteak eta mendeak zear, azaletik eta barrendik itsatsi dion tankera...

Itz batez esanda: zertxo apurrenak ere, erriak, oldezko ta ez-landuzko edermiñak eraginda, apaintze-ikutu batez edertu baititu; or dezu erri-ertia.

Orain galdegin zadakezu: ta, zertarako erri-ertiarekiko batzarre bat?... Ea esan orren elburua...

Ona. Gaurko erti landuagoa, naasiagoa, guzitikagoa, odol zaarrez bizkortzea, asabaen etxeko ats beroaz kutsatzea. Erti-zuaitz berria antzin-ezeaz bazkatzea; leengo errotiko muskillez bear baitu erri bakoitzak bere ertia berritu, naiz iñongo txertorik ere edergarritzat artu.

Aintzakotzat ar dezan erriak berea; uste izan eztezan iñorenak baño arloteagoak bere abestiak diranik; ez-eta bere dantzak, bere jazkera, bere etxea: laburki, bere edermiña.

Ta iraun beza ludian, gizonaren izaerak bai ertierak bear-batasuna autsi gabetanik, India ikusgarri, India ezin-aspergarri dagian ezberdintasun yoriak.

Batzarre orretan, beraz, nork-gere lanbidearen arauz, begiak eusko ikuskizuriez inguratzen, ta gure bizierari, azalez baderik, eusko usaia erasten ikas dezakegu. Etxagilleak osa ditzake, gaurdañoan baño obeki, etxagintzarekiko eusko tankeraren zer-nolak. Burnigiñak, argiñak, eunleak, zurginiñak, jazkigiñak, abesti-zaleak, etxeko-andreak... berdin, norkbere langintzarekiko.

Aurtengo euskel eguna

Esanak esan, zein ote da euskotarren erti-iturbururik naroen?... Zein, mamian ta ez axal utsean, gure bizierari euskotasunik itsatsi dezaio-kena?...

Guk geronek ezetsiena: gure izkuntza: EUSKERA... Bitxi yaukal ori, eroak baño areago, guk lurperatu nai-bearra!...

Leena berriz oroitzuz —abaraskaz erleak darakusan ertigintasuna, alegia— esan genezake: gure gogaien ezititzeko nor-gere izkuntza degula abaraskarik oberena; erle gogatiaren ezitia nor-bere abaraskan ainbe ezti ezititekela, iñorenaren txuloetan ixuri ezkeru.

Eusko gogamena, edestia-zear, txiro agertua, euskerari zor zion tokia ukatu diolako ez ote?... Leen-leendanik gure izkuntza landu izan bagendu, gogojardun ta bear guzietarako erabilliz, gaur berezizko jakintza baten, berezizko elerti baten bidez gizadiak begiratze ta aipatze'aal ginduzen!...

Eri zaar ortaz senda ditzagun geren buruok, osa dezagun urte joanen utsa, euskeldundu gaitean asmoz ta jakitez... Euskerari ele landuen artean toki txukun bat yadestea: orra guretzat egundoko ertilanik ederrena.

Ori zuzenki ikusi baitu «Eusko-Ikaskuntza»-k, «Euskaltzaleak»-i laguntza eskatuz, *Erri-ertia*-rekiko batzarrearen itxigarritzat, BERGARAN bertan, Agorra (Iralla)ren 7-gnean., aurtengo EUSKEL EGUNA egitea erabaki du.

Ta egun ori AUR EUSKELDUNAREN EGUN jator bat izango ote danen otsa datorkigu.

* * *

Baita ere, Bergarako batzarre orren egunetarik batean —errien bear-kizunetarik leenenetakoa seme zintzoen izena goratzea baita— Eleizalde'tar Koldobika zanaren gorazarrez, jaiotetxe-aitzinean jarritako oroitarri agertzea egingo da.

Euskaldun on guziei deia

Zuek guzior bearrean da «Eusko-Ikaskuntza».

Zernai zaar ta ertizko etxean dezuten orok —gutun, jazki, burni landu, ari-lan, argizaiol, pertza gorri... nik al dakit— jar zazute, arren,



«Eusko-Ikaskuntza»-ren eskuetan, Donostian Aldundi-jauregian (Diputazioan) ditun landoletara bializ. Gauza berbera bialtzetik ez tanean, aren argazki edo erretratu bat. Eginbearra bete ondoren zuzenki itzuliko zaizute, dana dala.

Ta zuek, Bergarako euskeltzale onak, bai-eta Eibar, Arrasate, Oñati, Elgoibar, Soraluze, Azkoiti, Azpeiti ta abarrekoak; zuek ere eskeñi zaiguzute zuen emaitza. Igorri zazkiguzute zuen umeak, euskel irakurketa-idazketaetan eta abar ongi gertu ta gero, zaar motelen ikasbide ditezen.

Asi gaitean guziok bertatik lanean; ta Bergarako aste ori bedi ainbestetaraño jatorra, berbizkunde-bidean arri zuti ta etorkizuneruntz eusko argi-dario betirako gelditze'aal baitedin.

Eusko Ikaskuntzaren Deia, 1929, 44. zbka.

ZUMAIAKO ITZALDIA

1930-gko. Epaillaren 9-g.

«EUSKALTZALEAK»-EN ERABERRITZEA

Anai ta arrebak... esan bearko:

Posik zakustegu emen bilduta. Eskarrik asko guziori. Izango aal da «Euskaltzaleak»-en batzar nagusi au urtetik urtera ugariago. Izango aal da berandura-gabe Euskal-Errian ots aundiko ta euskaldun on guziek ezaguna.

Aurreko goraberak

Leenbiziko lana orain, zuen aurrean, azkenengo batzarra ezkerotziko goraberak txeatzea bear genduke. Asko jardun bearrrik gera, ordea, ta lau itzez gai ori ikutzea azketsi zadazute.

Zumarragako euskel egun gogoangarri artan izan gendun azkenengo batzar nagusia. Orduetzkerotzik, «Euskaltzaleak»-en lanik nabarienak auetxek izan dira: Andoaingo *Aur Euskaldunaren* eguna larunbatez ta urren eguneko *Euskal Eguna*; *Euskal Egunkaria*-rekiko azterpen ta zabal-kunde-lanak, auen artean dalarik *Egunkari-Erakuskia* ateratzea; Altzagaren *Bost Urtian* antzerkia argitaratzea, ta abar.

(Kontuen gorabera: arpidez atera ditugu diruak. Bazkide-sariak, geienak, ez-tugu jaso. Ez gaude bear bezela eratuta, organizatuta).

Uts ori berdintzeko, «Euskaltzaleak» bazkuna eraberritzea, osatzea, azitzea asmatu degu.

Ortarako, gure leenbiziko lana ingurti edo folleto txukun bat ateratzea izan da. Bertan euskaldun guziei adirazten diegu gure bazkunak zer nai duan.

Bereala, edo erabat, buru-batzar bat eratu ta Bazkintza edo Junta berritu ta azibearra agertu zaizkigu.

Zumarragan ni aukeratu ninduzuten Lendakari; eztakit zuen gogoak bete ditudan (ezetz esango nuke, astia ere bear ainbat ezpaitegu); baña, on-ustez ari izan naizela sinistu dezakezute.

Gaur illabete, Buru gatzar iraste ta Bazkintza-aldatze oietarako, Donostian batzar bat egin gendun, eta bertan onela osatu genitun biak:

Zuen oniritzia eskatzen degu orain egiña indartu dedin.



Ortara ezkeru, gaurtandik Urreta'tar Mikel jaun jatorra ezagutu bear dezute zuen burutzat. Txalo batez sutu zazute ta bearragotu, bere jakite ta aalmen guziak «Euskaltzaleak»-en alde ipiñi ditzan.

«Euskaltzaleak» bazkuna, zer da mamiz?

Zer egin nai degu «Euskaltzaleak» bazkun ontaz?... Lagun-arte ugarria egin nai genduke. Euskera ta euskotasunaren aldeko *eguneko xentimoa* dalarik sari laburrena, bazkide asko ta asko bildu nai genituzke. Euskal-Erria osoan gure egoen itzala zabaldu. Biotz oneko euskaldun oro, bildu gure lantegian; zein politikakoak diran begiratu gabe; katolikotasuna garbia ta euskozaletasun zabal anaikor bat esi bakartzat artuta. Abertzaletasuna, erderaz «patriotismo» esaten dana, ezta neurri jakiñeko biozpena. Politikan, ordea, baipen edo afirmazio zeatzak, baipen larriak eskatzen dira. Orregatik barruan politikak artzen du ain jende gutxi.

Guk ez; guk eztiogu iñori osoko gizakia izaterik eskatzen. Guretzako naikoa da abertzaletasun pitiñena. Eguneko xentimoz neurtu ditek abertzaletasun («patriotismo») pixka aski degu. Gure ustez, euskal errotak ur gutxi-aski darama leen ere, ta abertzaletasun-apurrak, au da ur-ari meek, are ur-tantoak berak ere ezetsi ta albora uzteko ez gaude: euskal ur gaziaren bear gera. Bekar bata suilla bete; besteak pitxarra; besteak... tita-rea, areagorik ezpadu.

Ta iñork ez beza au politika gaitzestea danik. Politika bear bearreko da errien pizundeetan. Ta gurean, orok dakigunez, aurki dugu berbizturik.

Baña, politikari eztiogu, eman bear gure indar osoa. Erri-landutza-errentzat, erriaren buru-jaztearentzat, erria euskozaletzearentzat aletin-zati eder samur bat gorde dezagun.

Iduri batez obeto uler dezazuteke. Eman'tzagun mendi latz bat gaindu-bearrak gerala, ta eguzki gori baten azpian dagola mendi ori. Or bide bat, erpiña, belar kiskalia zear, arkaitz gorien barrena... Ortik gora ekin dio talde batek: izerdi-patsetan dijoaz: askotan, lerregiñik, aurrera leen-txeago egin urratsak irristaldi batez galtzen dituzte. Ori dezute politikaren iduri.

Baña, ona orain beste bat: gurdibide eroso, lau samarra; beti goruntz, beti goruntz, baña iraduka-gabe malkar bizien igesi; eguzkiaren galda ezator oneraño; bide-ertzetan pago eder batzuek daude etengabe-ko erreskan, ta oien adaburu itxiak bide-gañean abe ta aterperik atsegiñe-

na osatzen du; eguzkiaren sua eralgita datorkigu, ta ezta su baizik argi; ezta nekegarri, bai zuzpergarri ta begien eder... Au da *Euskaltzaleak*-en bidea. Asko dira emendik bai ta bestetik igo naiko ez lutekenak. Ta asko dira ere, bide kiskalgarrian ler-egiñik diranean, beste ontara, txolarteka atsedean artzera, bekokiak legortzera, datozkenak.

* * *

Euskaltzaleak-en asmo ta eginbearren berri zeatzagoa, txeeago, gero ikusiko dezuten ingurtiak emango dizute. Bitartean, goazen aurrera.

Euskal Idazle Batza

Euskal Idazleak jo ditezke nere aburuz *Eusko Pizkundeak* ekarritako arnai edo frutu bikañenetakotzat. Zuen bear-bear da gure bazkuna; zuek nai zaituzte, gure erakunde edo organizazioaren laguntzallerik bizkorren bezela; zuek erriz-erri zabaldu bear dezute *Euskaltzaleak*-en berri.

Ortarako, ta beste asmo askorik sortu ta aurrera eramateko, *Euskaltzale* bazkunaren barrenean, zuek, *Euskal Idazleok*, talde berezi bat osatu bear dezute, zuen Bazkintz Artezkari bereziaz: Ori izan ditek *Euskal Idazle Batza*, erderaz «Federación de Escritores Euskéricos». Nere naiez, gaur bertan, emendixe, irten bear luke mamiturik eta naiko indarraren jabe *Euskal Idazle Batza* dalako orrek.

Gure Idazkariak, guziok ezagun dezuten «Luzeaz» jatorrak, orri bana emango dizute zuen izen-izenorde ta zuzenbideak, eta baita ere zuen erri-inguruan ezagutzen dituzuten beste euskal idazleen berri eman dizaiguzuten. Onera etorri zeratenetarik euskal idazle etzeratenak, arren jarri zuen izena orriaren atze-aldean.

Zuen Bazkintza ere gaur bertan osatu dezazuteke emen: sartu ditezke or, *Euskaltzaleak*-en buru-batzarrean oraindaño batzarkide diranetarik batzuek «Aberri», «Altzeta», «Mendi-Lauta», «Udala-Mendi», «Garmendia'tar Kepa», «Otarra», «Ayanbe», oraindik sartugabe diran beste euskalgietakorik zenbait, bizkaitarrak batez ere.

Ta ber-bertatik, ona *Euskal Idazle Batzarentzat* bi zeregin polit: bata, «Kirikiño» sariaren eskubide ta araubidea beregain artzea; bestea, norbait tek oso zuzenki aitatutako *Erri Izperkari* saria irastea.



«Kirikiño» Saria

Bijoa, oso laburki, arazo onen gorabera. Zumarragan taixitu zan zearo, ta biribildu, asmo eder ori, «Euskaltzaleak»-en batzarrean. Bertako erabakietarik bat, Bilbon diru-bilketarako Batzorde bat jartzea izan zan. Geroago, Batzorde oni «Euskaltzaleak» eskatu zion, alegia, araudi-asmoren bat bazun, arren guri adirazteko, ta, ala, Batzorde orrek eta guk, *Euskaltzaleok*, alkarri lagunduz, adiskideki ta aburu batez araudi ori taiutu ta osatuko gendula. Batzordeak, ordea, ez ginduzan araudia eginbear orretarako aintzakotzak artu; ta bereala, bere aburu utsez arauditzako zuzenbide batzuk agitaratu zitun.

Gerora ere, berriro alkarrekin jardunak gera, ta diotenez guk, *Euskaltzaleak*, eztegu «Kirikiño» sari artan eskua sartzerik. Batzorde orrek omen du eskubide oso-oso. Guk uste gendun dirua bildu ondoren, batzorde orren zeregiña amaitua zala, baña berak bestera dute iritzia. Beren gain uztea zor omen zaiote «Kirikiño» sariarekiko gorabera guzia; bai dirua zaitu, bai epaimaia aukera, bai saria ematea. Guk eztegu uste ori bidezkoa danik. Betirako dan gauza bat bazkun iraunkor batzuen eskue-tan uztea asmaturik geunden; diru-zaitza «Eusko-Ikaskuntza»-ren eskutan; urtero epaikari-aukeratzea, «Euskaltzaindi»-ren gain. Au etzaiote jaun oiei ongi iduritu ta onu auxe ematen digute: «Euskal idazleok, eztezazute-la zuen eskutik utzi zeuek eta zeuentzako jarritako sari ori». Onu ori ontzat artuta, auxe asmatu degu: *Euskal Idazle Batza* irasi, ta beronentzat Batzorde ari sari orren zaitza eskatu. Eztet uste iñork guk gerok idazleok baño eskubide ohea dunik, eta, beraz, Bilbaoko Batzorde orrek gure eskaria ontzat artuko aal du.

Orain, zuek erabaki.

Euskal Izperkari Saria

Iñork, oso zuzenki, «Kirikiño»-ren artaz ari giñala esan zun idazle apalak, errietako berriak-eta bidaltzen aspertu gaberik diardutenak ere, zerbait merezi dutela.

Benetan, gañera, merezi, nere ustez.

Ta ori izan diteke, aurtendik edo datorren urtetik asita, Euskal Idazle Batzaren beste zeregin polit bat. Beronen Bazkintzak erabaki beza sari

berri orren araudi-gaia, ta *Euskaltzaleak*-en Buru-Batzarrari aurkeztu. Sari ori, jakiña, *Euskaltzaleak* bazkunak bere kutxatik ordainduko luke urtero.

Gañera, nere ustez, izperkarien sari orrek Euskal Idazle Batzako bazkide diranak soil-soilki jaso aal izana bear du. Bestea, «Kirikiño»-rena, ez: nornairentzat.

Saria, zenbat izan diteke?... Nik gutxienez bi jarriko nituzke; bata, euskal ingietako Zuzendarien iritziz urte artan lana ondoen egin duan Izperkariarentzat. Bestea, —eztakit ongi iritziko diozuten, baña— zozketara botako nuke. Alegia, gutxi dezatekenak ere saritxo bat noizpeinka irabazi aal dezaten.

Baña, esan bezela, gaur ementxe jaiotze'aal dan *Idazle Batza*-k taiutu bear du, ta biribildu, asmo orren gorabera.

Euskal Egunkaria

Azkenik, bagatoz, euskeltzale guzien gogoak gaur geien bezela sutzen ditun asmoa ikutzera: Euskal Egunkaria.

Itz gutxi ontaz ere: egintzak eta ez itzak bear ditugu. Ikusiko degu, bada, gero izendatuko dizutegun lanari nola lotzen zatzaioaten.

Igazko udako azterpen eta ikaskuntzaz ganera, egin ditugu gero beste batzuek, eta auxe esan bear dizutegu: *Egunkaria* gero ta bertago, gero ta ditekenago dakusgu. Soil-soilki, zuek eta gañontzeko euskeltzaleak erantzutea bear.

Leen esan bezela, kalera irten baño leenago *Iru milla arpidedungaien* izenak bear ditugu. Ori eskutik izan ezker, gañontzeko guzia egingo da. Beraz, leenbiziko gauza orixe jakin bearra degu: Euskal-Erriari iru milla euskotar bai ote diran euskera maite dutenik. Orretaz jabetuko ez geran bitartean, ezin esan dezakegu *Euskal Egunkaria* baditeken ala ez diteken. Gañontzeko guzia, bada, berriketa da.

Orain, entzun zazute: egunkari ori benetasunaren mallakoa bear badu, ezin izan aundia, orri askoduna; euskeraren gaurko egoitza ta mallari dagokiona izango litzake. Baña, ori bai, aleginduko giñake gauza polita ta txukuna ateratzen: ez oso aundi baña bai oso mami.

Beste bai pen edo afirmazio bat, Madridero *El Sol*-en eta Donostiako *La Voz*-en gure egunkariatza agertu diran iritzi batzuei erantzunaz.



Gure egunkaria *kristau* garbia, *katoliko* zuzena izango litzake, guri, ortan ari geranoi, dagokigun eta barrenak agintzen digun bezelakoxea. Sanchez Guerrak esango aal lukenez gure egunkaria egin nai degu, ez iñorenena. *Katolikotasunaren* zuzenbidea edo ortodoxia bat bakarra da, ta bakar ori izango litzake gure egunkariaren zuzendari. Baña gure egunkaria —ori ere esan bearra dago— *katoliko galtzaduna* egingo genduke, ez *elez-orria*. *Katolikoz* gañera, gure egunkaria *euskazale* sutsua izango litzake, au da, euskeraren alde ta euskaldunen eskubideen alde beti garbi jokatu lukena, naiz politika-alderdi gabekoa izan. Ta orain, nik esaten dizutet: iñork lur-bira osoan egunkari ori baño ezer zeatzagorik, ezer margodunagorik ezer «más definido» asmatu aal balezake, jaso beza eskua.

* * *

Oraindik, otoi, entzun pixkatean, dagoaneko aspertuta zaudeten arren.

Batzar auek gure erakundearen laguntzallerik onenak izatea nai degu, ta urtetik urtera aundiagoak; urrengo urteetan, beste gauz askoren artean, batzar onetan erri bakoitzeko ordezkariak urteko bazkide-sariak ekarri ditzateke.

Asi gaitean gaur bertatik lan onurakorra egiten.

Euskal Irakurle Izendia

Izendi aundi bat egin degu: Euskalerrian, arpidez, euskaltzale-usaiezko ingirik artzen dituztenena. Erriz-erri jarria degu. Orain ots egingo ditugu erriak. Adibidez, «Errenderi» esatean, zutitu bitez andik etorri diranak. Oiek artuko dute beren gain, *jorraillaren 15-gerako*, erriko izendia, aztertu ta osatu ondoren, guri bialtzea. Izendi oiekian auxe egin bear dezute: ildakoen ta erbestera joandakoen goraberak adirazi: izendiari beste izen batzuk erantsi: an egon ez arren euskal arazoetan zuen ustez gai ditezkenen izenak.

Euskaltzaleak-en Ingurtia

Orri oiek osatu bezela, baita ere *Euskaltzaleak* ateratako ingurti ederra nork-bere errian zabaldu bear ditu. Esan, nork-zenbatsu nai dituzuten.

Euskal Egunkari Txartela

Bide-nabar, egunkarirako arripedun-gaien «firma» biltzeko egin ditugun txartelak jasoko dituzute.

Euskal idazleen orria

Euskal Idazle Batza ongien eratzeko, idazle guzien izendi bat nai genduke. Ori egiten asteko, bakoitzari eman zaizute orri bat. Bertan, jarri itzazute zuen errian eta Ingurukoetan ezagutzen dituzuten euskal idazleen izenak, izenordeak eta zuzenbidea. Onera etorri gabe diranenak, noski. Gero, azpian, nork-bere izena, izenordea ta zuzenbidea.

Orain, azken itz batzuk. Entzun zazute, ta gogoan ongi artu, *Euskaltzaleak*-en eta *Egunkaria*-ren zabalkundea nola egin bear dezuten.

Erri bakoitzean bildu zaitezte datorren aste ontan, bi, iru lau, sei lagun ta irasi zazute Euskaltzaleak-en uribatzarra: asko izatea ezta bearezko, gartsuak, zintzoak, «piñak» izatea, bai.

Batzartxo orretan gure izendi-orri oiek, gure «listak» aztertu, zuzendu ta osatu. Bereala, lana banatu: ar zazute izen-sail bana, ta urrengo batzarra noiz izango dezuten bertatik erabaki. An esango du bakoitzak zer lan egin duan izendegitik aukeratutako notiñei buruz.

Bi zabalkunde batera egin bearrik gaude, ta au zalla da ongi egiten. Beraz, entzun ondo-ondo. Leenbizi-leenbizi. *Euskaltzaleak* bazkunarako bazkide-sail aundia ekartzea bear degu. Ingurtiak banatu ditzazuke, baña eraz, baiezkoa eman dezatekenen artean. Jende berria ere nai genduke, egi-egia. Batez ere, oraingo gaxte ez gazi ez gezaen artean. Besterik ezpada ere, oraingoz, eguneko xentimoa ordaintzea egin dezatela. (Aaztu baño leenago: *Eguneko xentimo* ori eman ditekenez *gutxi*ena da. Geiago dezakeneri sari aziagoa ateratzen alegindu bear zakiote).

Baña, bazkide-atxitze orrekin batera, nola egin *Egunkaria*-rekiko zabalkundea ta *Arpidendugiak* biltzea?... Badakizute: bi sari edo «cuota» usaindu ezkerko askoek uzkur egiten (19) dute, ta ez bat ez beste. Ontan zuurki jokatu bear dezute.

Nere aburuz, zuek itz egin bearreko notintzaz bi sail egin ditezke. Bata: *Euskaltzaleak*-en bazkidetza ta *Egunkari*-arripedungoa pozik erabat



ontzat emango dituztenena. Auei —zer-esanik eztago— arazo bietaz itzegin bear ta biekiko baiezkua jaso. Orretarako dira: alde batetik, ingurti-barruan dauden «tarjetak»; eta, bestetik, bereizki emango zaizkizuten txartelak. Bigarren salla: gauza biak erabat aitatu ezkeru uzkur egingo dutenen salla. Auei, oraingoz, bazkidetza soil-soilki atera. Oientzat sartu da ingurtian beste orritxo bat, bertan egunkaria aitatu bai, baña bat-batean arpide-aginpena eskatzen etzaiotelarik. Leenbizi egin ditzagun gure bazkide, ta gero, berandura gabe, etorriko gatzai berriro egunkaria-rekikoa eskatuz.

Zuen zuertasunak, zuen ezaguerak eta begi zorrotzak dute orrekiko joko nagusia.

ARRASATEKO ITZALDIA

1930-gko. Deun Iñaki egunean

EUSKELTZALEAK

Arrasatearrok: Zuen aurrean ta euskalzaletasunaren alde itz egiteko aukera nautelarik, ezin aaztu dezaket iñola orain iru urte zuen erri eder onexek zuzperrarazi ginduzula euskaltzaleok.

Nere agurra, bada, leen-leenik Arrasateri; nere biotzetiko agurra, anaikiro ta euskaldunki elkartu ta alako ikasbide bikaiña eman zeniguteno.

Euskalerrizaleok garai artan kikilduta bizi giñan, orduko gure egoitzari bizitza esan aal balezaio. Geure erriari, geure izaerari, geure izkuntza biguñoni maiterik agertzea, pekatu zala ia sinistarazita geunden. Arri astun batek azpian arturik bezela, itxaropen-begiez etorkizunari begiratzeko ez giñan gauza. Gureak eta gure amets zaarrarenak egin zulako ustean... Euskalerriak geiago burua jasoko etzulako etsian... Zenbaitetaraño indarra duan, jaunak, giroak, erderazko «ambiente»-ak, gure ingurura jo duan aizeak!

Gau beltz artan, Elgoibarrek eta Mutrikuk ixar bana izeki zuten... Dardarrez izeki, argi-emateko ere lotsa. Baña, urrena, emen, zuen erri ontan, Arrasaten, ilbeteak (illargi beteak) illunpea zillarrez jantzi zun; goiz berri baten itxaropena, eguzki berri baten uste gozoa biotzetara zekarkigularik.

Fede aundia bear zan, enetxoak, ordun ala jokatzeko; ta fede aundi aren jabe, ez beste zereginik gabeko aundikiren batzuk, ez gizon burujantzi ta korbata apaindunek, baizik gizon lau batzuk, bekokiari izerdia atereaz bizi diran langille batzuk izan ziran. Ta fede gori bat beti baita azi ernegarri, gu, orduko lotiok, lagun bizkor aien deadarrak esnarazi ginduzen.

Ni, nerez ari naiz, neure buruaz diarduzutet; loti aien artean bainengoan. Ainbestetaraño eze, ezpainintzan etorri ere egin Arrasateko euskal egunera. Gerora, entzutez ta irakurtzez, ikasi nitun emengo gorabera pozgarriak; ta barrupean argixka mee bat biztu zitzaidan... Euskalerriak burua jasotze'aal ote zuan oraindik?... Ez al zegoan guzia ustel, guzia galdua?...



Izan ere, gizakumea baño exkaxagorik ezta ezer munduan. Aize-aldi batek etzinarazten gaitu; bultzakarik txikienak amilduarazten; katilluka bat uretan itotzen gera. Iru urte txar, lau urte txar, sei urte txar, Jainkoak eskuan lezazken urte ta asti guzien ondarra deritzaigu. Ez gogora ekartzten, alegia, errien bizitza luze dala; are mendeen ta gizaldien buruan ere, erriaren odola beti dijoala gorri, beti bero dijoala. Ta Euskalerria, iñork noizdanikoa dan eztakigun erri au, eztutela, ez zarraren sitsak jango, ez aizeen indarrak botako, ez-eta ere irentsiko itxaso amorratuak!

Leen aitaturako aldi txar ark, orraatik, zerbait on ere erakutsi zigun. Alegia, Euskaldunok anaitasunera, ta ez alkarren arteko ezin-ikusira, jo bearrik geundela: gutxitxo izanik, maitezko lokarriz bildu bear giñala, ta ez burruka makillez sakabanatu.

Ta ordun, Arrasateko euskal egunez, orain gauden areto ontan bertan, txiki ta aul, ume axial-gorri, «Euskaltzaleak» deritzan elkarte sortu zan. Gaur, iru urtez gero, Euskalerrri osora egunero bere otsa zabaltzen du; ta ez nizuteke gezurrik esan nai, laister Euskalerrriko lagun-arterik ugarien eta indartsuena izango dala adiraziaz.

Zer gera, bada «Euskaltzaleak», ta zer eskatzen diogu euskaldun izatea ukatu nai eztuan guziri?

Zuekin, arrasatearrokin, eztet ori adirazten luzaro jardun bearrik.

Zer egin zenduten orain iru urte jai bikain aiek gertutzeko? Nik esango dizutet. Erriko seme guziek, nornolako zan begiratzeka, nor-nondik zetorren gogoan artu gabe, alkarri eskua eman ta etxe garbiko senide zintzoak bezela jokatu zenduten. Ta zuen elkartze ori zertarako izan zan?... Euskaldunen ezagungarri guziak goratzeko ta edertzeko: gure kristautasuna, gure oitura ta jolasak, gure euskera berdingabea goratzeko ta edertzeko. Itz batez: amari egun eder bat opa izan zenioten, ta amaren begiek egun artan Arrasaten etzuten seme-alaba onik baizik ikusi.

Bada, orra beste azalpenik gabe, «Euskaltzaleak»-en izaera osoa. Egun bakar batez ordun egiña, orain egun askotarako, bizi zeraten arteko agintzea eskatzen dizutegu. Gu geu izateaz ez gaiteala lotsa, baizik bidezki arrotu; Iurbira osoan euskalduna euskaldun agertu izan duten ezaugarriak ez ditzagula oimperatu, ez galdu; goratu ditzagun, ta gure aurren biotz gurietan iltze gorituz josi.

* * *

Are Aitor-etxeetan ere (etxe nobleetan, alegia) sortzen baitira ume ergelak, badezukete onelatsu mintzako zaitzuen euskaldunik asko: Zertan

gure izaera zañagotu ta nabarbenagotu bear degu, zertan gure izkera gorde ta landu? Ez al litzake, bada, aurrerapen aundi bat guziok gizadian, izatez naiz izkeraz, batasunera jotzea?...

Gizagaxoak! Eztakite ez gerala munduan guziek beñiere bat izango, Jainkoak ala nai izan dulako, ta ongi nai izaki ere, ludiaren edertasuna ezberdin orretzek geien jazten baitu!

Utzi dezaigun euskaldunok euskaldun izateari, urtu gaitean eta naasi inguruko erbesteekin... Besteek ere guk bezela jokatu lutekela uste al dezute?... Ederki eman ere! Gaur, beraz? Mundu bazterretako erri txiki guziek gero ta areago beren burua zaintzen ta indartzen diarduten garaion? Orain gu ezereztu, orain guk geren buruok ondatu, gizadia berdintzen asi dedin? Ori egitea aimbatsu litzake nik orain zuei esatea: «Jaunak, munduan jende geitxo gatxegok, askoz obeto bizitze aal giñekek bakantxeago izanda; beraz, nondik-bait asi bear da-ta, nere burua bota dezadan leiotik beera...». Zer esango zenduteke? Badakit aurki ninduzutela Santa Agedan sartua. Ta ori egitea eskatzen diguten euskaldunak ote dira, bada, euskaldun zuurrenak, euskaldun buru-jantzienak, euskaldun gurenak? Bada, nik (jaun oiek astotzat joko banaute ere), naiago det ibai txiki izan, baña ene urak neronek itsasora eramateko jabe; ta ez nere izena ta nere izana galdu, ibai aziago bati nere burua eman bearrez.

Zertan gorde gure izkuntza? esango dizute. Zertan gizon guziok era batez ez itz egin bear?... Bada, Jainkoak gure artean Babelgo torre bat izatea agindu dulako: Jainkoak gizon ongi-azi guzien biotzetan norbere izkerarenganako maitetasun gori bat itsatsi dulako.

Zergatik —galde egiten det nik orain— lanbide ortan ez dira asten oraingo izkera jantzienak, oraingo izkera arroenak? Bildu bitez batzarre batean ingelera ta prantzera ta gaztelera, ta alemanera, ta italiara, ta abar. Ta elkarri esan bezakie: Nor degu geren artean zabalduen, nor ederren? Olako? Bada, bedi orixe gaurtandik munduko izkera bakar: geren buruok il ditzagun gañerakook... Zer? Berriro ere Santa Ageda-bidean jarri nai nazute...

Asma dezagun, ordea, zerbait errezagorik, bidezkoagorik. Iñor iltzen ibilli gabe, izkera oietarik bat aukera dezagun errien arteko artu-emanetarako. Iraun bezate besteak, nor-bere mugapean, ta nork-gerea erabil dezagun etxerako, lagun-arterako, muga-barrengo arazoetan, eta elerti edo literaturan. Jakin-gai sakonetan, erbeste-arteko saldu-erosketa ta abarretarako bestea: guziekiko izkuntza, edo «lengua universal» dalakoa. Nork ukatu dezake auxe litzakela elebitza edo «bilingüismo» zuzena ta bidezkoa, guzientzat berdiña?... Bada, izkuntza aundiek, izkuntza lan-



duek, izkuntza aipatuek ori ere eztute nai... norbera nagusi izatekotan ezpada.

Baña, zertan ari naiz, oraintxe esan dedan elebitza edo «bilingüismo» ori ezagutu izan baita munduan, ta izkera oietxek, gau apañen bezela agertzen zaizkigun izkuntza oietxek, «bilingüismo» zuzen ura galazi baitute! Bai, enetxoak, bai. Orain irureun urte oraindik latiña zegoan munduan nagusi jakin-gai guziak ikasteko ta erabiltzeko. Uraxe zan (gaur Elizarentzat dan ere bezela) leen esandako gain-izkera, guziekiko izkera, «lengua universal» itz batez. Nortzuk ondatu dute, nork-bere izkera maitatu ta landu bearrez?... Bada, gaztelerak, ingelerak, prantzerak, eta abarrek; ta ori euskera baño arloteagoak ziran garaiean; ta ori beren arteko-rik geienak latiña ama zutelarik!

Beste bide bat asmatu nai izan da geroago. Izkuntza-izun bat sumatu («esperanto»-aren aditzera guziok dezute) ta uraxe guzioi irakatsi... Baña... ori ere ez izan atsegin izkuntza aundientzat, ta orra asmo eder ori ere potu egiñik.

Ta orain badiotsutet nik: «Izkuntza aien aldeko maitetasun gori ura eder bazan ta begiragarri, nola diteke itsusi ta txaldan guk gerea maite izatea?».

Ez, jaunak. Gure burua ibaira botatzeko bagaude, ikus dezagun aurrena ongi inguruko beste guziek ere geurekin batean botako al duten. Eztezagun egin, guk bota geurea ta besteai parrebidea eman. Eztezala iñork Euskalerriaz esan bear izan: «Emen datza bere burua il zuan erria, are bizi izateko diña kemen izan etzuan erri ergel lotsagarria!».

* * *

Eztet askorik geiago luzatu nai.

Soil-soilki, obeto ikusi dezazuten zertzuk egiten laguntzeko zeren izenak eman bear dizkiguzuten, esan dezagun laburki, «Euskaltzaleak» emen jαιο ezkeroztik egin dutenaren berri.

Zumarragako euskal egun oroigarria, Andoaingoa, Segurakoa, Errenderikoa, laster Bergarakoa ere ta Otxandiokoa; bertan gure jolas garbiak —dantza dala, pelota dala, palanka, bertsolariak, eta abar— eder-agertu: bertan euskera goratu ta umeai maitarazi.

Euskal Idazle Batza deritzan euskerazko eskribatzaleen elkarte irasi edo fundatu. Betirako sari bat asmatu ta bildu arazi, urteko euskerazko artikulorik onena sarizatzeko edo premiatzeko.

Euskerazko Poesia edo Euskal Olertiari egoak luzatu, olerkariek berotu izan baitute erria bizkunde guzietan.

Euskerazko Teatroa, edo Euskal Antzertia (oraindik gutxi bederik) xuxperrarazi, ta Euskal Txontxongiloak edo «guignol»-a jarri.

Euskerazko liburu salketak eratu.

Euskerazko eguneroko periodikoa nola ta zenbatez egin diteken aztertu, ta asmo aundi au egin-bidean sartu.

Ta azkenik ez luzatzeko: oraindik ere eranegun, badakizute zer beterik egin degun?... Donostiko antzokirik ederrenean, udaaren gorrienean, jendea abea jotzeraño erakarri, ta Euskalerriko neskatx aundiki sorta ugari bati (are markesak ere tartean baibaitziran) euskera utsez jardun arazi, *Euskerari Emakumeen Maite-Agurra* eskeñi arazi, bertakoei ta erbestetarrei oso goitik auxe esanaz: euskeraz itz-egitea, alegia, eztala emendik aurrera izango baserriarren eginbearra: goi-goieneko alabak ere arrokero erabili nai dutela ezpañetan, gurasoengandiko ots ezta dutelako, ta, bear bada, euskeraz ari diranean bezin eder ta laztan iñoiz beren buruak agertu izan eztitutelako.

Zer eskatzen dizutegu gauz eder oiek egiten laguntzeko, zer, zeuen ta nere erria il eztedin?... Borondate on apurtxo bat eta *eguneroko xentimoa!*... Eguneroko xentimoa Euskalerraren alde ematea eskatzen dizutegu bai, zineari, arandegiari ta jolasari ez bat baizik eun ere ematen diezuten garaion.

Euskaldun on guziek dute gure elkarte ontan sarbiderik. Iñori etzaio galdetzen zein politika aldekoa dan, ezta ere politika zer dan badakian. Bi esi bakarrak ditugu: Jainkoa ta bere lege zuzenak ez oinperatu: Euskalerria biotzean euki.

* * *

Ta bitez nere azken itzak bereizki emakumezkoentzat. Gizasemeok bakarrik ez goazke urrutira, zuen bear gera edozertarako. Ta edozertarako baño bearrago zaitutegu geure erri au jasotzeko.

Zuek zaitutegu asegarri, zuek atsedean, zuek akullu, zuek artizar eta eguzki. Ta zuek zaitutegu (auxe ez aaztu beñere) zuek zaitutegu gere aurren ama ala amagai. Zuen eskuek taiutu ta azi bezelakoxeak izango dira biar gure aurrak... izango dira biar Euskaldun berriak. Aintza aundia, glori aundia zuena ontan ongi jokatzen badezute; lotsari ta erantzunbear larria ere, ordea, eginbearrari gibel-ematen badiozute.

Entzun itz auxe soilki. Asaba zaarren gogoaz elkartzen gaituan urreko kate zaarra, etzazute, arren, emakumeok, esku laztankor oiek in betirako eten eta apurtu.



Agur guziori.

Ta guziok otoitz bat zuzendu dezaiogun Iñaki Deun, euskaldunen
Zaindariari: Euskalerriak iraun dezala, kristau ta euskaldun, mendeen eta
gizaldien ondarreraño!

Ala bedi.

5. EUSKARA KULTUR BIDEETAN



EGIA IKUS DEZAGUN, AMA!

Euskerari buruz diardugula, askotan oi ditugu euskeltzaleak —on-usterik oberenaz, egia— gezur biribil batzuk; arloaren ikuspenerako ta eginbideen zuzenerako oso kaltekor ditezken gezurrak.

Ona mintzaldi oietarik laburbil bat: «Euskeraz ezteke esan ezer gaiztorik. Oitura onen zaindari oberena «ama» Euskera degu. Kristautasuna ta euskera elkar-lotuta, bat-egiñik dira».

Esan oietan, elkar-itsatsi ez-bearreko gauzak naaspiltzen ditugu.

Aitor dezagun leenen, euskeraz, edozein erderaz bezelaxe, iraindu ditekela Jainkoa, siñestauski edo erejiak baditezkeela esan, ta baita ere idatzi ipui ta tertantzo (novela) lizunkeriz josiak.

Nork uka or diodana?

Beraz: euskeraz orain arte orrelakorik ezpada —utz ditzagun berai-zik Biblia protestantea ta erri-abestietako zenbait gordinkeri— euskeraz ezer gutxi idatzi dalako da. Besterik uste badegu, ikus-naaspil batek joak gaude.

Euskera Jainkoaren ao-miñeko izkuntza bereiz bat dala uste izaten degu: beti-garbi bat, erdoi-egin bat; eta eztakigu, guk ain errez egotzitako alderdi on oiek ustelak dirala ta gure zabarkeri zaarraren ume; euskera ez landuak sortu ditula.

Ta gezurra beti da gal-zori; atsegin bada, areago. Gezurrak lilluratu-ta bizi danak bere buruaz uste ditzake ainbat gauz eder; egiak, ordea, egi errukigaitzak, esiko du gau ta egun, ta eztio barkako arik eta zapaldu arte, birrindu arte. Zori orixe dagoku eskeinka, aspaldiko, mendeek barrena geiegi bazkatu baititugu geren gogoak aberkoi-usaiezko gezurrez.

Eusko oikuntza bikañen zaindari oberena euskera omen; kristautasuna ta euskera elkar-bildurik, ia-ia soin bakar batean mamiturik omen dira. Euskera ta Kristautasuna era batera dabilta...

Ez, gero, begiei ta zeuen naikundeari geiegi siñets! Ikus-naaste zorak dira oiek, bai eroso guretzat, baña bai kaltekor ere euskerarentzat ta kristautasunarentzat.

Ez; bazka dezagun bein-betirako gogo euskeltzalea egiaren ogiz eta ardoz.

Ta egia au da: euskera ezta, nabarbenki, oker-bide, jakin-bide egin eztegulako; eztegu egin jakinbide zuzen, ta ez makur. Ta gaur dan egunez

edozein izkuntzak, Europan beñipein, jakintza-bide bear du, ondatuko ezpada.

Zer esango genduke, gure aurren irakasleak, aiek ongi gizazi bearrez, argiari galbide iritzita, egun osoan illunpe beltz batean baleuzkate?

Bai, ziñez: gauzak okerreko alderdiz ikusteari jarrai bear bagatzakio argia galbide da; argia ezpalitz, ez genituzke begiak igatuko ikuskizun lizunez... Baña, ori astakeri bat dala erakusteko eztegu luzaroan ari bearrik; eta, bide ortan barrena, aurki giñake belarri-motz, anka-motz eta esku-motz, eta, alarik ere, makurreri gaiztoari ezin igesiz, bizirik giñaken arte...

Alatsu, bada, euskera, landu eztegularik, ena jakintza-iturri, illunpea da. Euskeldun utsek euskeraz asko gaiztorik ikasteko enute izan, egia, abagunerik. Baña, ikasi al dute, ostera, askorik on?... Bai?... Zergatik, ordun, gela illun artatik irteten dutenean, dira ain makurbera?... Zergatik, erbestera jo ezkeru, beren sinismena galtzen ain errezak?... Gure abertzale-tasun aizunak, gure erosozaletasunak, auxe erantzuten du: «Erdera ikasi dutelako»... Gezur biribil, ta lotsagarrizko gezur!... Erderaren bidez sakonki kristaututako euskaldunak makurgaitzagoak agian ditezke, erbestean: ori diot nik.

Ez. Ezta erderaz ikasi dutelako; baizikan, euskeraz sinismena etzaialako itsatsi, etzaielako biotz-adimenetan landatu bear ainbe argiro ta errozki.

* * *

Adibide bakar batek berakut gure zabarkeriaren zenbatetarañokoa: Kristau-Ikasbide zaar ta berriaren arteko auziari gagozki.

Urteak eta mende luzeak zear, Euskal-Erriako giza-alderdi buru-jantzienari eztio gogoak eman, euskeldunak Kristau-legea bear ainbatez jakin ezin zezatekela Ikasbide zaar lotsagarri orren azpiarriaz. Ta..., gaitzerdi, asto-gain ortatik gaur jetxirik bageunde! Baña, ez ala izaki. Are gaur-gaurxe, uste dute zenbaitek (edo ala uste dutela uste bearrik gera) Ikasbide zaar orreri jarrai bear gatzaiola, mendeen ondarreraño.

Orain gutxi, ene adiskide apaiz gazte bikain batengana baserritar zaar bat etorri ta asi zitzaion, alegia, «Dotriña» zaarra nai lukela etxean, etxeko zaarrek berria ezpaitakitela; ta (onexek indarrrik aundiena ematen zion) beeko erriko Erretore jaunak zaarra irakasten dula, ez berria. Ene lagunak, Ikasbide zaarra zenbatetaraño dan txarra ta gauza-eza adiraz nai baserritarrari, ta Jainkoarekiko izate-azalpena esanarazi zion:



«Da gauza bat, esan eta pensatu al ditequean baño ere excelenteagoa ta admirableagoa; jaun bat infinitamente poderoso, sabioa, justua, printzipioa ta fiña gauza guztiena».

—Ori ulertzen dezu ongi? galdegin zion.

—Bai, jauna, bai.

—Jainkoa «fiña» dala esan dezu. Zer da ori?

—«Piña»..., jauna, «piña»... «alproja» eztana, alegia...

* * *

Izkuntzak, Jainkoak emandako beste aalmen ta aribide guziak bezela, gauza onak dira, berez; ta ez onakoa on ta arakoa txar; norberarena oberen ta egokien: Okertu ditzakela, ta makur-bide biur gure gaiztoak, eskuaren ta argiaren ta janariaren antzo?... Egi berria orixe!

Zein iritzi bear degu, arlo ontaz, euskeltzaleok?

Auxe: okerbide biur aal izanagatik, eskua erabiltzeko bada, ta argia ikusteko, ta janaria jateko, euskera landu bearrik gera, on-bide naro izan aal dedin. Erabil dezagun beti euskera Jainkoaren, egiaren ta egiazko jakintzaren mirabe; ta iñork okerrerako erabiltzea gertatzen baledi, ez luke orrek esan nai izango euskera gaiztoa danik, ezta ere, iñork gaitzera-ko erabil aal eztezan, landu egin bear eztegunik.

* * *

Arritokietako Ama Neskutzari *Argia*-k eskeintzen dion garau bereiz au dala bide, otoi bat biotzez zuzendu nai diogu:

«Egia ikus dezagun, Ama, euskeltzaleok, eta euskera erabil dezagun beti Egi Uts Danaren aintzarako!».

Argia, 1930-05-04

BATZAR IRAUNKORRARI AGURRA

Jaun agurgarriak. Itz batzuk zuzendu nai nizkizuteke gurasoen mintzaira ederrez. Poztuko aal zerate guztiok, etxe au euskera zaarraren aterpe goxo izatea bidezko baita. Neronen ta «Euskaltzaleak» deritzan bazkunaren izenean, biotzetiko eskarrak leendabizi, sarbide eman diguzutelako.

Eskarrak ere, azken Dagonillaren 31-gneko eskaria ontzat artuarengatik. Eskari aren bidez, erabat «Eusko-Ikaskuntza»-ren ta «Euskaltzaleak»-en bazkide diran zenbaitek, otoi zegizuten, bazkun biok gero ta elkarragotuz, euskeraren iraute-aldeko lana ere su ta gar eragin dezazuten.

Azkenik, eta egintza orreri asipena eman bearrez, ona zer besterik nik zuei adiraztea agindu didaten: alegia, zuen batzarre auetan euskeraren otsa entzutea biziki atsegin lutekela euskozale orok.

Naikunde ori baditeke odol beroaren ezin-e onak eragiña: orren etsia eztagokigu guri, eskaleoi. Baña, euskeraren egoitzari buruz, gauz bat bada-gu ukatueziña: alegia, euskera gero ta guztion beroaren berrago dala, baña are-areago jakintsuen, aitor-semeen ta aundikien bero-bearrean.

Aren makaltzea buruetatik etorria baita, erriari, erri xee ezjakiñari zor diogu euskerak gaurdañoan iraun izana. Baña, bidenabar, ezin aserretik darakuskegu, gaur erri xee orretzek, noizpait ere aundikien urratsei darraikiolarik, euskera baztertu ta, alperrikako lorra bailuken, betirako hizkarretik bota nai badu

Ez: orren aurrean gauz bat soil-soilla dagokigu: erri xeearen arpegian euskeraz jardutea; geren buruok oben zaarraz garbitzea; leen ez bezelako jarraibidez erri ori erakartzea, ta euskera —jakintzaren bidez, bai; baña erabat, aal dan guztietan eta guztietarako erabilliz— goi-mallatara jasotzea.

Ez eusko jakintza (cultura vasca) soil-soil, baizik ere euskal jakintza (cultura euskérica) egin bearra dago, ta erriari begira egin-bearra. Ta lan orren astea euskal ikastolei ta aietan ikasitako biarko euskaldunei utzi bear diotegula diotenak, gogoeta begite euskal ikastolak etzaizkigula berez etorriko, ta biarko Euskalerria euskeldun izatea eztegula ez irabazi izango ta iritxiko ere, gaurxedanik, aal degunok, egitez ta arituz, gure naikundea egi-egiazko dala ezpadarakusagu.

Oiek orrela dirala, ta apur-apurka agertuko diran zenbait asmo euskelkoiaren asibidetzat, batzarre auetan, mintzoz, euskerari gorazarre egitea



nai genduke, erriaren jarraibidetzat besterik ezpaltz ere. Artarako, ona ere erabaki-gaia:

I. Iru illabetez beingo batzarre bakoitzean batzarkide euskeldun batek bederik, itzaldi labur bat euskeraz egin beza.

II. Batzarre oien berri, ez erdera utsez baizik euskeraz ere eman bitzaie izperringiei, ta bai euskerazkoan bai erderazkoan adirazi bedi olakok edo alakok bere gaia euskeraz azaldu zula.

Nere agur beroaz ta barkapen eskeaz batera, ona nere leendabiziko eskaria ere. Otoi, ontzat artu ezazute, jaunak.

Eusko Ikaskuntzaren Deia, 1930, 48. zbka.

EUSKERA AUNDIKI-SOÑEKOZ (I)

Eusko aundiki guziek euskeraz ariko balira, euskera gaizkatua, salbatua, omen genduke. Amaika bider entzun diotegu orixe «Larreko» ta «Txadon-Zaya» idazleei.

Ta orren atzetik ari ere ditugu ainbat egiñal: gure aundikiei, euskera, biotzetan ezezik ezpañetan ere, nondik itsatsiko.

Baña, orrelakorik beñere iritxiko badegu, aundiki euskeltzaleok leenleenik ari bear degu euskeraz: au eskolako aurrei ere ematen diote buruak. Ta, ots, gere au aunditzat joa barkatu: ezta eder-uste, baizik eta zigorrari ez igesi naia.

«El Euskera en las empresas de cultura» buru dula, Etxegarai jaunak lan bat agertarazi du arestian *El Dia*-n. Aren eskutikako izanik, eder da. Baña badegu susmo, egiaren ingurukako izketa polit utsa ez ote dan: ala oi baitegu maiz, egiari aurrez aurre begiratzeko bekokirik eztegunean.

Nerekiko, urrengo auxe da egia, ta auzi ontako iltzea.

Alegia, zoritxarrez, are aundiki euskeltzaleenok ere gure jardunak euskeraz aritzea gaitz degula. Geren buruon jazte osoa erderaz egin baitegu, alperrik litzake besterik eskatzea: nai-ta-naiez bear alegin zalla, geroen artean bederik gai biurri samarrak euskeraz erabiltzeko. Ta, batetik erderaz aritzea errezago, bestetik erderaren bidez geren buruok ederrago erakusten aal, milla akiakula sumatzen ditugu egitezko erdeltzaletasun ori bidezkoetzeko.

Baña, eztegu ori, nik uste, osasunerako bidea.

Maitetasuna egitez agertzen oi da, ez izkutuko biotzaldi utsez... Maitetasuna ezteute nekeak ez jasanbearrak izutzen.

Ori orrela bada, zertan gibel ez eman malda-beera gozo ari, ta ekin ez kementsuki malkarrean gora, goien ta ez beean maitea bizi baitegu?

Gogora datorkit oroitzapen zaar bat. Ni ta zenbait adiskide abertzaletu garaiekoa. Eztabai aundien ondolik, jausi gaituzo guziok noizbait egi-pean: euskozaletu gaituzo buruz ta biotzez. Ez ordea egitez, artean. Ta emen dator elkarri esatea:

—«Au eztiagu aski. Orain euskeraz ari bear diagu». Bai al dakizute nolako nekea genduan ori? Euskera umeetan erdi-ikasi, gero erdi ortatik iru laurden atzendu... Masallak gorritzen zitzaizkigun ederki, beti elkarrekin erderaz ari izanok ordudanik euskeraz ari bearraz. Baña, egiñal latz



askoen bidez jaundu ginduzun geron buruez, ta geroztik, ostera, ezin erderaz ari gaituzu.

* * *

Etxegarai argiak diona egia da, baña erdikako egia «Eusko-Ikaskuntza»-n euskerak betidanik omen du jarleku berezia: iru illabetez beingo *Deia*-n lantxo bat eta zenbait berri gure izkeraz sartzen ditulako.

Baña ezta aski. Ta esango deguna jaso dezake guretarik beste Bazkun nagusiak, «Euskaltzaindi»-k ere.

Ezta aski, ez. Izkerak idatzia bai-baiditake izkerak illa. Mintzatua ordea, ezpañek darabiltena, uraxe badakigu eskier bizi dana.

Leengo batean amets txar bat egiñik nazute. Euskalerrria nenkusan, ordeka soil bat iduri. Ez mendi, ez baserri, ez ezetasunik iñon: ez-eta ere euskerarik, illa baitzan betirako. Baña, ordeka-erdian jaun illezuri agurgarri batzuk ari zenituen zerbaitetan, mai baten inguruka, paper ta idazti sail aundien artean. Urbildu natzaie, ta... badakizute zer ziarduten?... Euskal iztegi bikain bati azken orraztua egiten, euskera ordurako illa ta lurperatua zanik oartzeka. Agian, bazekiten berok, artean; baña..., erderaz ari baitzenituen...

Olakorik ez bezaigu gerta, Jainko ona, oti.

Badakit nik, bat-batetan, euskera utsez, bere batzarrak egiten ezin asi ditekela «Eusko-Ikaskuntza». Baña, beintzat, izkerak biak naasi lezazke, ta batzarrero ordu-laurdentxo batean euskeraz aritzeko oitura artu ere bai.

Ikasbide txiki oien indarra aundia baita; aundiagoa, alegia, eskatzen duten alegiña baño.

Elebitza eskatzeko, zer beso emate'aal zigun «Eusko-Ikaskuntza»-ri, «Euskaltzaindi»-n, Aldundi edo Diputazioetan, Udaletxe edo Aiuntamentoetan, euskerari ordu-laurdentxo ori bederik eskeñia!

Ori egin ez bitartean, eskubide herririk eskatzea jardun alperra.

Elebitza dala ta zera dala, nola guri botatzeko, erantzupen auxer buruak eztiote ematen Madridekoei?

—Badituzute, zuen eskuko, zenbait eskubide. Oiek erabiltzen ikasitakoan ordun dezuteke berrien eske etortzeko garaia. Iñori ezer eskatze-ka, Aldundi-Udaletxeetan mintza ziñezteke euskeraz; (areago zuen elkar-te euskozaleetan). Ezin galazi dizaizuteke iñork Estadoarenak eztiran ikastoletan euskera, ala edozein gai euskeraz irakastea. Ori egiten ez, ta eskeka ta karraxika zatozkigu? Parregarri alenak!

Bai: amaiketako leenago nai gosaria baño. Ta orrako ori erantzutea buruak bai ematen aiei, baña zuurrak baitira... kolkoan gorde egiten, bidea ikasi eztezagun.

Urrena ondarra.

(Jarraitzekoa)

El Día, 1930-09-25



EUSKERA AUNDIKI-SOÑEKOZ (II)

(Ondarra)

Diogun lan ortan, Bergarako «Saski-Naski»-aldia ere ikutzen du Etxegarai jaunak, eta aurre-solasak erderaz egiñaren aldeko bere burua agertzen, erdeldunik asko bai-baitzegoan.

Ongi dirudi, begiratu batean... Baña, galdegin ere badezakegu: ea noiz, euskal jaietan, euskaldunen ta euskeltzaleen garaia jo bear duan. Are Bergaran ta *Euskeraren Egun* batez ere ez?

Gaztelez naiz prantzeraz «Saski-Naski» ikusi nai duten erdeldunek badituzte urtero zenbait aldi aukerako. Eztegu iñola uste, urteak ditun irureun ta irurogei ta bost egunetarik batez euskaldunak euskeraz aritzeak, miñaraziko lituzkenik. Ta entzule guziak euskeldun uts izan arteraño bagaude zai, ez «Saski-Naski» ta ez besterik ezta egingo. Ezta Aizarnara joan-ta ere. Alderdikeri gorria ezpada on, ezta ere arako apaizarena: errian lau arrotz zirala —elizarako amorru aundirik gabekoak berak— ta sermoi guziak erderaz.

Ezin obeto deritzaigu guri «Saski-Naski»-ren aurre-esanak erderaz egitea, arrotz eta eusko erdeldunek gure berri ikasi dezaten. Baita ere seitik bostetan erderaz egitea, bear bada. Baña, eusko muin utsezko ikuskitun orrek, oraindik, paperean bederik, itxura onaren ederragatik eta euskeraren goratzarrez bederik, euskel agerbiderik ez izateak, eztigu onik egiten. Areago: orren antzeko lanak, gure ustez, leen-leenik euskeraz bear lirake gogoandu ta idatzi; gero erderara itzuli.

Egia da, ta ez degu aaztutzeko «Saski-Naski» eztala bazkun euskozaleren batena, naiz euskozale izan leen-asmatzalleak eta betiko egilleak. Badakigu ere oso lan ederra dala, erdera ta guzti.

Gure itzak, bada, iñork txarrera ez artzea nai genduke, baizikan adiskide-eskariak artzen diran bezela. Elkar-onginaiez, ta batez ere euskera-renganako maitetasunez ase ditezke guztion egarriak.

Ta ikus dezazuten asmo ortakoak ez gerala gorriegi, neroni esanik nago, orain illabete batzuk, euskel olerki edo poesi liburuak erdel itzulpen txukun bat alboan dutela irarri bear lirakela beti, arrotzek eta zenbait euskaldun zabarrek gure sallerak begiak zuzen aal ditzaten.

Geroztik «Euskaltzaleak» (batzar, jai ta eginkizun oro, aal dala, euskera utsez egin oi dituan elkarte orrek), Errenderiko Olerti Jaierako neurtizak ala eman ditu: euskeraz ta erderaz.

Ori bera egin zun Mistralek ere, ta-ongi egin, alegia. Ez probentzera utsez, baizik eta prantzerara ongi itzulirik eman zun *Mireia*, bide ortatik maitenik zun mintzaira ari ospe aundia erakartzen ziola.

Baña, probentzeraz egin zun leenik: asmoz, ta kutsuz, ta jantziz. Or zegok iltzea! Gero erderaz, bear bezela.

Gu ordea, ostera ari oi gaituzu; ostera, erdera utsetan etsitzen eztegunean.

Betor, bada, erdel lanik asko, baña auxe buruan dutekenak: «Euskeratik itzulia». Ta jolasean ari ez naizela igerra dezazuten, era ortara ekin diot neronek gaurkoz beintzat.

* * *

Ta arako idazle gizagajoarena?... Beorlegi arrotzat jo zuanarena, alegia. Beldur naiz, Etxegarai jauna, gertari txiki ori ez ote dezun joa bear ez alderditik. Soñekoak eman ote zion gero, ala erderaz ariak, iduritu txar ura?

Larre-larreenean billa zazute baserritarrik basaziena. Jar zazute euskera garbian ari dan zaldun apañenaren aurrean... Ezetz arrotzat jo. Arritu ta balditu egingo dala?... Ta poztu, diot nik, eta kolkorako esan ere bai: «Arraiepol! Auxe bai euskaldun garaia! Arloteok bakarrik uste nian nik euskeraz aritzen giñala, baña jantzi eder ta guzti au eztek asko lotsatzen».

Ta askoz ditu elkarrenganagotuko gizon biok bion euskerak, zalduna, erderaz ari dala, nekazari-jazteak baño.

«Euskeraren Pizkundeari Emakumeen Maite-agurra» egin zanean, baziran an ere amaika neskatx apain, erregerenean ikusi oi diranak bezin aberaski jantziak. Baña, aoa zabaldu zutenez gero, iñork galdegin al zun arrotzak ziranentz?... Bada, Beorlegik ere, «lebita» aundia ta guzti, erderaz ekin izan balio, arako idazleak euskaldun jatortzat joko ote zulakoan nago.

Izan ere, alperrik ari gera. Euskerak eman digu erri-izena. Euskera da gure bereiz-alderik (hecho diferencialik) nabariena. Euskerak etxekotu gaitzake oraindik senide guztiok: euskera-gabeteak arrotzu.

* * *

Zaarxeagoa dezu, Etxegarai agurgarria, orain gogora datorkidan zure illeta bat. «Eusko-Ikaskuntzak» eratu Ikastaroan —zenion— euskerazko jardunek betetzen dute aretoa: erderaz ainbeste gauz jakingarri azaltzen, bai?, ta alkietan bost lagun. Zergatik ori? galdegiten zendun.



Belarri-ertzeroa erantzun nai dizugu. Euskeltzalea baita euskozale guzietarik egiazkoena ta egiatiena. Orra esan.

* * *

Jaun Bonipazi begiragarri ta adiskide: barkatu jardun luze, lotsaga-betxo au. Egoarri gitxikotzat jotzen gaituzu, ta eramapenez lasa orni gaitela, diguzu esaten. Aolku egiazki bikaña! Egoarririk, eramapenik eta gibelik asko bear baita, euskeltzaleek txintik atera gabe euskeraren igesari begira egoteko.

El Día, 1930-09-27

ELKAR-BIDEAN

Bizkor-askia dator Etxegarai jauna «Euskera aundiki-soñekoz» nere bi idazkietarik leenbizikoari erantzunaz.

Badirudi egiazki gu bietarik bat, ala agian biok, aserre samar ote giñan nork-gere idaz-lanak egiterakoan. Eta ori, egia esan, ezta ongi gizon egiñentzat. Baretu gaitean, bada. Edo neri burua pitin bat naasi zitzaidan, nai ez nuna esateko, edo-ta nere erantzule yaiolari begiak lausotu zaizka zertxobait, etzegoana ikusteko.

Etxegarai jauna, otoi. Berriro nere idazkia ikusazu, eskura badezu beintzat, eta igerriko aal diozu nik eztedala iñon, ez «Aitzol» jaunak esana egiazki itzuli etzendunik esan, ezta ere zure zindotasunik, zure on-usterik, auzitara ekarri.

Begira nik zer esan dedan, mamiz: «Zure jarduna egiaren inguruko izketa dirudit, ala oi baitegu, aurrez aurre ari begiratzeko ausarta ez geranean. Ta, neretzako, AUXE da arazo orrekiko EGIA: erderaz mintzatzea errezago degula, erderaren bidez geren buruok, batzarretan-eta, ederragotu egiten ditugula; erderaz ari bearra bidezkozteko asmatzen ditugun guziak, maratil uts dirala ta ez arrazoi».

Argi samar agiri ote dan ta nago, zein EGIREN ingurukako izketa iruditu zitzaidan zurea, ta «Aitzol» adiskidearen eskaria zuk zuzen ala oker adirazirik ezta or ezertarakoxe aitatzen.

Baña, besterik zerbaitxo ere badarie itz oiei, ta Etxegarai jaunari etzaio oartu. Etzaio oartu, naiz gordegailuaren oso inguru ibilli: «berobero», arako aur-jolasean esan oi genduna.

Alegia, ARAKO EGI aren ingurukako izketak, ez Etxegarai jaunak bakarrik, baizik eta euskeltzale guztiok egin oi ditugula, «Lizardi» berbera «barne» dalarik. Alegia, batzarre baten erdera utsez aritzeko, tarteko erdeldunei, gere oi-ezari, gaiaren zallari ta abarrerri errua egotzi izan diegunean, ez oiek baña gure epelkeria, gure eroso-bera soil-soilki ziran errudun.

Argatik, bada, zuk diozun batzarre artan Lizardik erderaz itz egin zun, bai; baña ez zure esanak indar aundirik eginda, baizikan... epelkeriz, errezago-zalez, koldarkeriz. Orra egi bat, ingurukako izketa uts politarik gabea. Antz-emate'aal diozu onenbestez, zenbaterano artzen ditudan edertzat eta ontzat, zure erantzupenaren azken itzak: on dala, alegia, egia uts-utsik esatea.



Batzarre artan berean, oker ezpanago, Intza jaun agurgarriak ere itzegin zun, ta —«gizarteko lege» diralakoak zapalduz, agian— euskeraz aritu zan, ta puskaka-puskaka, euskeraren ondoan, erderaz ziarduan leena berriz esaten. Ta Lizardik kolkorako ziona: «Ik duk bizar, adiskide, ta ik egiari aurrez aurre begiratzeko bekoki». Bada, arena gaur agirian txalokatzan dedan bezin egiazki ta minki, gaitzetsi ere egiten det Lizardiren eginbidea.

* * *

Goazen aurrera.

Erdi-asarrean ari gera —ez al da parregarri?— ta guziok iritzi berbereko izan.

Zer dio Aitzolek? Zer dio Etxegarai jaunak? Zer diote biok, mamiz, nik neronek diodana ezpada?...

Bizkor-samarki zukutzen nau, ori bai, ta auts xee biurtzen Etxegarai jaun zoliak, ene kolkoko Aitzol gabitzat darabilkielarik. Baña, txautzeak txautze ta zukutzeak zukutze dirala, Aitzolek eta nik berbera diotsagu. Ark bigunki ta esku atsegiñez; nik zakarki, erri xeeak bere arteko oi duan izkeraz; zeatzago esateko: «Eusko-Ikaskuntza»-ko zenbait eta zenbait bazkideek elkarrekin noiznai oi duten mintzairaz.

Ori da, agi danez, nere okerra. Baña, gauzak gordinki esateak ere baditu alderdi onak: Etxegarai berak dionez. Adiskide artean ez berunezko baizik illaunezko tiroa bear dala uste izaten dute askoek; nik bestera; baña adiskidetasuna ezertarako galdu, ezta ere otzitu gaberik.

Aitzolen iritiz, are elkarte ta gizarterik garaienetan ere zerbait euskera erabiltzen asi bearrak gera.

Ta zuk zerorrek, Etxegarai jator orrek, zer diozu?... Bear zenduna. Zuk ere «Eusko-Ikaskuntza»-ren euskel lana eztezula askitzat jotzen. Ortan beti aurrera ekin bear diogula, eten-gaberik eta azkarki. Aundiki euskeltzaleok aal oroetan euskeraz ari bear degula.

Zer beaztopa gogoratzen zaizkizu?... Baiezko eder aien aldean ezer gutxi balio duten batzuk. Ona bat: aurrera jo, bai, eten-gabe ta azkarki orratik; baña, POLIKI, ez jauzika. Ona bestea: aundiki euskeltzaleok mintza gaitean, bai, euskeraz; baña... gauza geranok bakarrik, ez erdeldunek; eta auek, ainbeste balio-ta, baztertu egin bear al ditugu?

Ez, gizona, ez. Oso muin urrikotzat jotzen nazu, gero! Euskeraz dakigunok ari bear degula euskeraz, ez erdeldunek... Bai, enetxo, bai! Ez genduke besterik bear. Esan bear nuanik ere ez neri eman buruak.

Ortan, beraz, batera etorriak gaude. Ea urrena. Aurrera jo bear degu, ta POLIKI jo; au da, ez beti leengo tokian egon, ez al da ala? Arako Peru Kurrillo arraio ark ez jaio bear berriro! POLIKI aurrera, ta euskeldunok EUSKERAZ?... Oraintxe zearo elkarri eskua eman bearrak gera.

Begira. Egin zagun kontu sei illabete barruko izparringi bat eskuetan degula. «Eusko-Ikaskuntza»-ko Bazkintza-batzarren agiria dakar. Ta ona bertatik zer irakurtzen ari nazun:

«Batzarre-azkeneruntz Lendakari jaunak, eguneko jardungaiak agortuak zirala esan ondorean, auxe otsegin zun: «Orain, jaun euskeldunek euskeraz». Ta gañeratu zun bereala: «Gaurkoa leenbizikoa dala-ta, Euskeltzale-Batza dalakoaren Buru jaun Etxegaraiek beza aldi». Ordun, Etxegarai jaunak, berebiziko euskera samurrez, leen erderaz jardundako guztia labor-bildu zun. Gañerako batzarkide euskeldunak, bat orain gero bestea, guziek sartu ziran tartean, elkar galdeka ta zirika. Batzarkide erdeldunetarik batek bederik etzun aldegin: guziek antxe aoa zabalik, euskeldunei begira txoraturik. Jardun ortan ordu-laurdentxo bat egin ondoren, Lendakariak batzarre-itxitzea jo zun. Altxatzerakoan, guziek zioten elkarri batzarretik batzarrera errezago garaituko ditutela gai zallak, eta ontara irixteko eztagoala gaur asitakoa beste biderik. Batzarkide erdeldunek ziotenez, berriz, bekaitz egiñik omen dira, ta egin bear omen ditute alegiñak euskera ikasten, ta berak gauza ezpalira, beren aurrak euskeldunduko omen ditute beintzat, bai alegia! Orrela, euskera berberaren suak guzien euskeltzaletasuna gori-gori egiñik zirala, elkarri agur egin zioten urrengorarte».

AU POLIKI joatea al da, aurreruntz eta azkarki ibilli-bear bide ortan?... Bada, ordun, Etxegarai jauna, eztago geiago eztabai-biderik gu bion artean.

* * *

Gañontzekoak oso axaletik ikutu bearra naiz, tokirik ezaz.

Euskaltzaindikoa. Oso bide zuzenetik nekiala uste nun, ango berri. Ez ni sartu, noski, batzarre tartera, baña orren urrengo. Argatik, egia zalakoan nengoan. Ezpada, ni pozen. Barka bekidate irainduak, iñor bada.

Azkenik. «Eusko-Ikaskuntza»-ko batzarkide egin nautela-ta, «gizarte onari dagozkion legeak» aitutzen dituzu. Leenengo begiraldian, nik aiek ongi beteko ez ditudanen beldur ote zeran iruditu zait. Ala balitz, ez geiegi estutu. Mutiko beldurtiek, illun-une baten barrena ibilli bear dutenean, badakizu zer egin oi duten. Zarata aundia. Alatsu atera dizut nik ere



onako au. Nere bizarragan geiegi ez sinisten ta, zarata orren bidez, nere burua iñorena baño leenago eginbearrera lotu nai izan det.

Bestalde, nere gogaraz, laisterrik asko, ta laister ere baño pozikago utziko diot nik, nai duanari, irabaziz gañeko dedan jarleku ura. Beste egin-kizunik badet, alegia, ta euskerari nondik laguntza eskeñi ere bai, nere burua bear baño aundiago ikusi gabe.

Alaz guztiaz ere, alkar artuko aal degu adiskide onak bezela. Osotoro batera etorriak gerala badirudi beiñipein...

El Día, 1930-09-25

AITAREN ERREAL BIKOAK

Noiz atertuko nengoan, azken argipen batzuk, laburki, Etxegarai jaunari emateko.

Bergarako «Saski-Naski»-aldiaz. Nik, an ta egun artaz egokiago izan-izango zala itzaurreak euskeraz egitea. Etxegarai jaunak, an ta egun artaz ere, erderaz egiña ongi zegoala. Argi dago elkarrekin bat ez geundela. Baña neri, erderazko itzulpenean, itz bat izparringiak jan zidan. «Bien está eso para quien NO ahonde un poco en el asunto», idatzi nun nik. «NO» ori etzan agertu, ta artatik atera zun Etxegarai jaunak ni bere iritzi berberko nintzala, ta orretara ezkerro eztagoala zertan eztabaidarik sortu. Euskerazko itzulgaiari begiratzea aski zukean argi ikusteko. Baña, dana dala, ni arekin ala ura nerekin, orain batera etorriak omen gera, berak dienez. Bejondeiola, biotzez.

Euskal egunaren eraltzalleak bai omen dute ortan errurik, «Saski-Naski»-koei itzaurreak euskeraltzeko esan etziotelako. Ontaz, nik dakidan pixka jalki dezadan. Bergarara «Saski-Naski» «Eusko-Ikaskuntza»-k deitu zulakoan nago. Baña, alaz guztiaz ere, zati orren eraltzalle «Euskaltzaleak» ez izan arren, norbait beronen buruetarik izketatu zan «Saski-Naski»-koe-kin, garaiez, euskeraz itzuli ta esan zezaten. Etzan ala egin, ta ortik aurre-erantzak ezker.

Gagozkion danari, gauzak ar ditzagun diran bezela, ez dezaiegun egiñei gibel-eman. Au da Etxegarai jaunaren beste aolku bat. Sangüesan ta Salinas de Añanan ez omen diteke Udal-etxean euskeraz egin. Arira, arira, gizon... Guk Bergaran egitea, ta euskal egun batez egitea eskatu degu. Guk «Eusko-Ikaskuntza» batean erabiltzea nai genduke. Beude, bada, lasa Salinas de Añartako ta Sangüesako ziñegotzi Jaurtak.

Gorrikeririk gabe, bear neurrian, elkartu bearrak omen dira gure bazkunetan euskera ta erdera. Guk dioguna berbera. Nun da gure gorrikeria? «Saski-Naski» seitik batean euskeraz egiteko... «Eusko-Ikaskuntza»-n ordu-laurdentxo batez... Gañontzean erderaz...

Gure auzia ta katalandarrena ez omen dira berdin. Egi aundia orixe. Zaar samarra izatea. Bi alde agertzen dira arazo oien artean. Bata: euskeraren bidezkoagoa, beronek añako nortasunik beste izkuntzarik batek ere ez tulako. Bestea: gure lanaren gaitzagoa, asabaen zabarkeria ta izkeraren bereiztasuna bera etsai ditugula. Bi alde oiek ondoren bakarra bear luteke



ekarri: guk suagoki, aiek baño tinkoago ari izan bearra: ta ez epelagoki, gertatzen danez.

Baña, tira: ni enaiz gai ontan sartu. Etxegarai jaunak betegarri utsez edo, agian, adiskide «Aitzol»-i beste goxoki bat ematearren aitatu bide du, ta utz dezagun orrenbestez. Egi biribil samarrak bota bear zitula agindu zigun

Etxegarai jaunak, eta ona emen batzuk: odol-berotxo, bazter-nastalle, eztabaikari alperrikako, arroxko ta artobero-uxai omen naiz. Oietaz gañera, buru-arlotea: andre Jakintza, andre Kultura, askorik maite ez dutenetakoa, alegia.

Apaltasun gezurrezkoz gere buru au jantziaz, oiek egitzat aitor ditzagun... Eztabai-gaiarekiko ain axola gutxiko ezpalira!

Ene odolkeria egiten du ixtillu onen errudun bakar. Baña, jardun auen azpian besterik dago, Etxegarai jaun adiskide. Zerori ere oarturik al zaude onezkero.

Giza-asmo aundi guzietan gertatzen da. Gizaldi gazteak zaarrari zirikaka, zaarrari bultza. Zaarra bere egonean goxo, ta aurrerago ez nai. Gazteak: «Eup! Garaia da». Zaarrak: «Ago ixilik, lotsagabea!». Barkatu, ontan ere artobero-usaia badarigu, geren buruok gaztetzat jotzez. Nik eztakit guri zer gertatuko zaigun. Gu ere, Jainkoak nai beza!, zaartuko al gera ta sutondo-zaletuko, ta uste izango al dezu inor eztitekela gu baño areago. Ta Jainko onari dakiola ordurako beste gazte-sail bat agertu izatea, guri zirika, guri bultzaka, gu baño aurrerago-naiekkoa. Txakurrarenak esango dizkiotegu, bear bada. Aitatuko dizkiotegu «odolkeria», aundi-ustea, naastu-bearra, burgoikeria ta buru-arlotetza. Baña, gure esanak gora-beera, gazteok bijoaz aurrera, gurekin naiz gure gañetik; bijoaz, ordun min emango badigu ere.

Eztabai alperra sortu omen det. Txarki egin omen det orrela gogoa naastea, astia orrela galtzea ta galdu-eraztea. Irria det ezpañetan. Orain irutsu urte orrelakoxeak entzun bear izan genitun. Bai besterik geiago ere: obe gendukela, alegia, gutxiago karraxi ta geixeago lan. Ta badakizute zer gertatu zan?... Eztabaikariok geren asmoetaz elkar-kutsatuz, ixtillu artatik gaurko «Euskaltzaleak» sortzea, aurreragoko «Eusko-Elazkona» zalakoa eraberritu ta zabalagotuz.

Gertatzen oi da maiz samar, aita-semeen artean, semeak aitari erreal bikoa eskatu, bai, ta aitak ezezkoa ematea, ta gañera bereak eta bost esatea. Jakiña: orrek eztu esan nai semea izpidean etzegoanik. Gerta diteke gizagajoak erreal biak arnasa artzea baño berrago izatea; aitak zuzenbidez aietxek zor izatea. Ez emate orrek zer esan nai du, bada?... Soil-soilki: aitak eztitula errealok eman nai.

Ortatik antz-emango diozute eztabai onek ere arnari zimel bat edo beste ekar lezakela. «Saski-Naski»-ren itzaurreak euskeraz jartzea... «Eusko-Ikaskuntza»-ko batzarretan euskerari goratzarre egitea... Bi apur oiek iritxi ezkerorik ez nuke uste izango alperretan jardun dedanik. Nere zirriborroak ontzat emango nituke.

Baña, txarrenera jo dezagun, bada-ezpada. Egin zagun eztabai eztabai. Zer esan bearko degu?... Ez nula arrazoirik?... Orrelako eztabaidarik eztabai noizik-bein jarri bear gure artean?... Ala... aitak erreal bikoa eman nai ez didala?

Andre Jakintzari diodan gorrotoa ere oso poliki igarri dit Etxegarai zoliak. Iztegiagiz egin nuan arako amets artatik. Baña, onginairik aundixea-gez, besterik eman zezaioken buruak. Gogora zezakean amets aren iturri ez ote zan, agian, jakintsuei diotedan eraspina. Dalako iztegi ori ez ote degun arloteok txerri goseak ezkurra baño ametsago; ari berandu-etsirik ez ote gauden. Berantetsitze ori baditeke ez-bidezko; baña gure beldurra ori da: ondoegi erre bearrez, opil goxo ori ez ote diguten emango sekula.

Bestalde, gure ustez, jakintza-lanez gañera «Euskaltzaindi»-k axola aundiz artu bearra du euskeraren zaitza. Jakintza-lana ta euskerari eutsi-bearra neurritz elkartu ditzakete bazkun euskozaleak. Ta gai ontaz, «Euskaltzaindi»-ko azken batzarrean euskel ikastoletzazko asmo eder batzuk erabilia pozik ikusi degu.

Baña, Etxegarai jaunak, leun-leunki, au ere esaten digu: buru-arloteok ez gaitela sar jakintsuen arazoetan. Gu eragille gerala, ta etsi dezagula orrenbestez. Arrokeririk eta artobero-usairik gabe gure arlo apalari lotu gatzaiola.

Ikaskizun ori ere jasoa degu, ta oñak labor ibiltze-aal ditugu aurrera-koan. Auxe bakar-bakarrik esaten utzi zaiguzu, jauna. Jakintzazale ta euskeltzaletasun-eragille, biak batera, naiz kristau naiz bazkun, notin berbera izan zitekela uste gendun. Ta uste ori artua eztegi gere erru. Etxegarai jaunari begira ikasi degu. Bera ikaskuntza goitarren zale da, ta orrekin batera euskeltzaletasun-eragillerik bizkorrenetakotzat bere burua agertu izan da beti. Guk, egia esan, jakintza-zale uts izan balitz, ez genion esana jasoko. Euskeltzaleen eragille ozena dan aldetik iritzi nion arrotz berak idatziari.

Baña, aski degu onenbestez. Bazterrak naasteari utzi dezaiozun bein-betirako. Nik eztabai beintzat geiago txintik ateratzeko asmorik, «makartzu» deituko baninduteke ere.

Galderatxo au bakarrik:

—Aita, erreal bikoa emango?



II. EUSKAL LITERATURA

1. LITERATUR SORMENAZ



EUSKEL OLERTI JAIA

(Euskerazko poesiaren jaia)

ERRENDERIAR JATORREI DEIA

Azken «Astea»-n *Argia*-k gogai eder bat eskeintzen dio «Euskaltzaleak» bazkunari: euskel olertiaren jaia nonbait egitea, gure olerkari xamurren gorasarez.

Bikaña da asmoa, bai, ta nere aoz «Euskaltzaleak» jaso egiten dute.

Eukiz gero, ordea, egokien jai ori non, erabakitzea, da leenbiziko eginbearra.

Ta, orixe ausnarka darabildala, etzait gogoratzen Errenderi baño toki oberik.

Gogotik ari dira orain eslariak ta zuzenki, Jauregi'tar K. olerkaria aipatzen; ta Jauregi, guziok dakizutenez, errederiarra da. Baña, ez ori soilki. Artarazkero, beste olerkari jatorrik bai bait degu, iñork Arrese tolosarra atera lezaiguke, beste batek Enbeita muxikarra, onelakok Satarka ondarrabiarra, arakok «Lauaxeta» mungiarra, «Garbizu» pasaitarra, Lekuona, Maruri, Mujika, «Elurmendi», Zapirain, Barbier, «Orixe» neurtitz-gorroto..., nik al dakit zenbat geiago!

Baña Errenderik badirudi olerkari-sorleku berezia, ezpaititugu, nik uste, biziak bakarrik gogora bear. Ta zanduengana, illengana jo ezker, or beste olerkari bi, ta urrezko, errederiar: Eltzo ta Errenderi Aba. Ta zaaragoenartean, or Xenpelar...

Beraz: Euskel Olerki Jaia egin bearra bada, ta Errenderi badu agertokirik jatorrena..., errederiarrok dezute izpidea. Asmoa artzen al dezute oritatzat?... Bizkor al zaituztegu «Euskaltzaleak»-i laguntzeko?... Zertzuk eta nolakoak legizke or zuen iritiz, jai orren ederrerako?...

Olerki-batzaldi edo nor-geiagoka bat?... Bertsolari ontxoan leiaketa?... Antzerki-jaia?... Oiek guziak eta zerbait geiago?...

Datorren Argia-rako norbaitek ortik erantzuna badegu uste; astia galtzerik ezpaitago.

Udaberriz eginbearreko jaia da ori. Olerkariak —giza-gaxook!— neguz otzak gogortuta, udaz abaroan lo, udazkenez berriz negar uts batean oi bait dira: udaberriz, ez beste iñoiz, xuxper ta ezertarako gauza.

El Día, 1930-01-26

ERDI-BEARRA

(Errenderi'ko euskel Olerti Jaiari eskeña)

Olerkariok degu orain aldi, gorapenak jasotzen. Bazan ere garaia! Irutsu urte auetan kikilduta bizi giñan, «Orixe»-k eman baitzizkigun beñola ederrak... Izneurtuz idaztea txaldankeri agiria dala, bertsoak beti dirala txar, beti mintzo aizun; eta abarra...

Beltzena au zan: geren artekoxe batek, bere leena ukatuz, —amaika izneurtu ederren egille baita «Orixe» jauna— ain errukigabez gu jo-bearra. Bederen, Aljebra-irakasle bat izan balitz, ziri-olerki edo epigrama diralako oien bidez esate'aal genizkan bereak eta bost. Baña, geronen senide-arteokak uka: orretzek biozkabetu ginduzan oso. Gauza ez, ari jarritzeko, gizagajo batzuk baigera; ta nik dakit nolako nekeak eramanik gauden, gure neurtu-griñatxo au —zauri lotsagarri bat bailitzan— izkuta eziñik.

Gaur besterik da. Leen ergel ta arlote ainbat, gaur gizaguren, gizarteko bitxi etsirik gaitue. Kolkorako badarablitzigu bai, geren zalantzatxoak; ain aintzagarri ote geran, alegia; baña, kolkoan, zuurki, gordetzen ditugu. Aizealdi bigun onek ere aldegingo baitigu, gauden goxo-goxo, sutondoan katua baño areago (neurtitzak irten dit!); dagon arte bon-bon, gorapen zoroenak ere ederretsi ditzagun; gauden ixil-ixilik...

Zer esan det?... Ixil-ixilik!... Or zegok, bada, korapilloa! Nork ixillarazi orain gu, gu gallenduok? Bereala neurkin erdoitua zokotik jaso ta, zalduño-makil kokkordun apain bat bailitzan, eskutan biurrika erabiltzeari eman baigatzaio! Nork gu burutu, «erdi-bearrak» baigaragi!

Erdi-bearra..., erditu-bearra... Orra zein izurrik jo gaituan, gorapen xuxpergarri alek dirala bide. Ai, goratzalle xoxokumeok: laister zaitutegu, bai, damaturik!

Gure gaitz ori, gure axkure edo dalako zer ori, gure «erdibearra», beingoan esateko, eztezute ezagutzen? Iñork, eri danik, ezta bein-ere osasuna maite izan guk gere miña, gere zauria, gere legena; guk gere erdibear ori aña. Askotan, etsita gaude eztitula iñork gere baitan ari ditugun asma-kuntza aiek egonarriz irakurriko. Baña... ekin alarik ere! Nork dakike, olerkari ezpada, zein bearrezko degun gure lasapenerako, ta zein gogorako, erditze ori! Ta, maizenik, naiko larri ta estu erabiltzen gaituala...

Bada, olerkari etzeratenok gure barren-azkure ontaz zerbait uler al dezazuten, nere erditze baten berri jaulki nai dizutet, ni ere izurri orrek



atxitia bainago. Gaur lotsarik gabe aitor dezaket luzaroan bularpearen izkutuenean zetzakidan ixillekoa.

Gañera, gaiari ongi itsatsi aal banezaio, esango dizutet nolako agertuko nituken nik olerki-ldaztiak.

* * *

Beñola, joan daneko otsalla gain-beera asia zalarik, goizeko zazpiretan esnatu, ta erabaki gorri bat artu nizuten: jeiki, eskuratu makil bat eta mendira joan bear nuala, giarrari astiñaldi bat emanaz.

Esan bezela egin.

Mendiak —adiskide otxana baita ori beti— aspaldian neronen erruz elkar ikusi gabeak giñan arren berebiziko begitarte ona egin zidan. Nik eztakit zabal sorginduta al zegoan, ala lo ongi egin baten esku lastankorrek eztiz ene gogamena igurtzia. Dana dala, adiskide on ark eskeñi ikuskizunez irudimena asi zitzaidan bazter guzietatik izeki ta suak artzen. Goia, mendi-gallurrak, bideko zernaitxoak, basoa, elur-ondarrak: laburki, begiragarri oro nortu ta eraski olertsuez mamitu zitzaizkidan. Sorgingarrizko nortze ta mamitze orren indarrez, Goiak bazirudidan Egunak urrezko azkonez zauritutako *norbait*. Karraxika nentzun bideertzean otalorea: aots bizi-pitzatu batek eztarri meea lakartu ta eten bear ziolarik. Pago bakarti bati neska pertxentaren tankera artu nion. Basoa, ez aritzez zirudidan osatua, baizik... *norbaitezue*: oin-oñeen gañean luze-luze egiñak, erne-indarra goi argi-jario artatik egarriz edaten...

Zertan jarrai?... Orrenbestez nornaik daki zein elgorriek joa nengotan, gaxo au. *Musak* diralako atsoek atzaparpean ninduten; irudi-miñez nengotan izorra; otzikarak astintzen ninduan; sukar larri batek menderatzen. Gaitz orrek beñere artu zaituten guziok ongi dakizute zenbatetaraño dan beldurgarri. Zuen goragaleari neurtitz ugarizko lasabidea eman-ez artean, aiek larritasunak, aiek izerdi otzak! ...

Erditu-bear estua zetorkidala antz-emanik, ozta-ozta basoratu ta «goldiozko ogean» etzin nuan nere burua.

Orrelako estualdietan ezer ezta nekegarriagorik, ezer ez lazgarriagorik itz oskideen edo kontsonanteen eizketa gordiña baño. Arraiotan, motellek!... Iztxoak ere bai-baitute beren norberetasuñoa, beren arrotasun-ondarra; zuk neurtitz bat amai-ordurako, beronen oskide diran itz lirañenak sakabanatzen zaizkitzu iñon diran bazterretan, kolkorako diotelarik: —«Ez, enetxoa!... Zuk nai dezula-ta, besterik gabe, indarbeartuta, zere asmakunde txaldan orretan geren buruok parregarri eztitugu ikusi-

ko... Ederki eman ere!... ». Ta, etsitu-bearrik, jo zak batera, jo zak bestera eskuak zabalik, ukaldiak boteaz... Alperrik. Suangilla izutuak irudi, zere neurtitz jaioberri orren itz oskide guziek aaztu-menaren zirriturik xeentatan izkuta zaizkitzu!...

Neke oien berri ongi baitakit, oraingo ontan itzei, asi aurretik, esan nien: —«Ez izutu. Ni enazute atzetik ibilliko gogorrean atzeman-naika. Onez-onean etorri nai badezute, oskide otzanok, ongi-etorri. Nai eztezu-tenak, antola or».

Ori esanik, ekin diot paper-ondar batzuk beztutzen.

Geroxeago, ene aurra Jaiorik zan, ta igurtzika ari nintzaiolarik gantz erantsiez garbitzen, ona norbait atzetik bizkarreko eder bat damakidala, ta eskuetatik ene aur aul ura ken.

Nere estuasuna!... Nere aserrea!... Olo lokarik ez areago, txitak lapurtuko balizkiozuteke.

Ona zer ikusi zuan nere adiskide ark, parretxo lotsa-gabe bat ezpañetan zebilkiolarik:

NEGU.

Egur ezearen kea/ goiak du kolore:/ egunaren atariruntz/ zauri bat, gordiña,/ odol-bearrean urre./ Sakoneko lañoiz gora/ tontorrek elurrez:/ itsasoa iduri,/ ametsezko ontziez.

Bide-ertzean, ez marrubi/ ez belar gizenik./ Otalorea, bakanka,/ goitzo karraxika/ udaberriari deika./ Or pago bat, lerdin aski,/ igazko apaingarriak/ (gaur orbel gorriak)/ oso jaregin nai-ezik,/ nola baituten oi/ neskazaar ezin-etsiak./ Ostobakandu-sasian/ kabi bat, uts, urratua.../ Arru-beetik errekak ots, / euriteak bulartua.

Basora naiz. An-or,/ goldiozko ogean,/ joan elurte gaitzaren/ ondarrak nabari;/ kapidun usoak, ala/ emazte zuurraren/ zapiak iduri./ Aritzak, eundaka,/ aier zazkio goiari,/ argi-leenenkia/ egarri baitute,/ arako urrezko zauria/ izanik iturri./ Orregatik daude/ luze-luze egiñik,/ artean oñak illunik/ azken arbazta-begiez/ udaberriako/ ornitzen biziez.

Oi, zein aizen eder, loa,/ eriotzaren anaitzakoa,/ bizitzazko urloa!...

* * *

Ura begirakune errukiorra bota zidan! Nik nere burua enekin nolatan garbitu: bazirudidan lotsagarrikeri batean atzeman nindula.



Adiskide ori eztet euskeltzale; ezta ere aurkako; beste zenbait beze-la, euskereaz guk mintzo landu elertitsu bat egin-naiak eztu amorrarazten, errukiarazten baizik.

Oiek guziak txotxolokeriak ditugula; ezin ditekela euskeraz aintzaketat artzekorik ezer adirazi; nik ingi artan idatziak txorakeri batzuk bide zirala; berak etzula «negu» itza besterik ulertu, ta astia galtzeko gogorik ez, berriz... Olakoak bota zizkidan. Guziok iñoiz entzun dituzute.

Miñarazi nindun arranoak, eta esan nion: jarriko nitula erderaz izneurto aiek; etortzeko urrengo egunean, ta nik erakutsiko niola, euskeraz sortutako izneurtuak mamiago zitezkeela, ta indarrago, aien erdel itzulpena baño.

Etzeratu nintzan ta izerdi politik botetaz, alegia, egin nun nere erderalpen ori. Egiñalean aritu arren, uts eta putz askoa atera zitzaidan. Nere eginbearrerako ala nun obe, baño, egia esan, ez nun egin beraizik.

Urrengo eguneko goiza aurrekoaren aritzeko zegoan, zorionez, ta, bide berberak ibiliz, ez nun neke aundirik bear izan atzeguneko nere irudipen aiek adiskidearen gogora erakartzeko. Gero, itzulpena eskutan ipiñi nion.

INVIERNO (traducción del euskera).— «Tiene el cielo color de humo de leña verde, y, hacia el atrio del día, tiene una herida fresca con oro en vez de sangre. Cumbres nevadas sobre la niebla del profundo: como si fuera un mar, y en él naves de ensueño. No hay fresas en la orilla del camino, ni hay hierba jugosa. Hay una que otra flor de argoma estridente que por anticipado llama a la primavera. Hay un haya gallarda, que no suelta del todo las sus galas de antaño, hojas resacas hoy: como las solteronas, duras de resignar. En el zarzal sin hojas, roto, vacío, un nido. En la barranca honda un torrente resuena, que hinchó el largo llover. Llego al bosque. Esparcidos sobre el musgoso lecho, restos de la reciente gran nevada semejan palomas anidadas, o ropas a secar de hacendosa mujer. Cientos de robles tienden al cielo su deseo sedientos, anhelando las primicias de luz cuya fuente es aquella herida hecha de oro. Por eso se los ve tan tendidos y largos, que, a favor de las yemas de sus ramillas últimas, y aun en sombra los pies, para la primavera van absorbiendo vida. ¡Qué hermoso eres, oh sueño! ¡Qué hermoso, pretendido hermano de la muerte: tú, remanso de vida!».

Ori irakurri ondoren goitik beera begiratu nindun itzal apur batez.

Gero, aurreko egunean ez bezela, euskerazkoa astiro-astiro irakurtzerañ bere burua eratxi zun. Erderaren indarra! Izketa luze atsegin bat egin genizuten ta, beerakoan, oso bestelakotua neraman gizona.

* * *

Ortatik atera det —zuzenki ala ez?— nola argitaratuko nuken nik olerki-idazti bat, gauza dan gairik baneuka, ta dirurik... galtzeko.

Idazti txiki apain bat egingo nuke, bitxi-azaldun paper bikañez, zake-lerako erakoa. Olerkirik gutxi: amabost-ogeitsu. Ta olerkiok enituke emango euskera utsez: alboan zeñek-bere erderalpena luteke, aalik ondoren egiña. Saltokian biltorri (bildu-orri) nabari bat jantzita agertuko nituke: bertan itz arro batzuk, erderaz.

Nik uste, orrela ale geiago salduko nituke. Bestela euskeraz ezer irakurtzeko ez tiranetarik zenbaitek erosiko luteke agian. Ta askoek, bear bada, ikasi, gauzak ederki ta mamiz adirazten euskerak eztiola erderari batere zorrik.

Aolku oiek iñorentzat zuzenbide balira, ongi ordaindurik nengoke arako nere erditze larri artaz.

Euzkadi, 1930-05-08



OLERMEN-IRAKITE

Aitzol'dar J'ri eskeña

Gaur da, Errenderi langille eder ontan, lenbiziko Euskal Olerki Jaia. Egia, leendanik ere olerki-sariketaen batzuek egin izan dira Euskal-Errian; baña ez «Euskaltzaleak» orain egotzi nai dieten ainbat mamiz ta kemenez.

Aien asmoz, gañera, urtero edo biz-bein, ta gero ta ospe larriagoz, berriztatu bearra da Oleriti Jai ori.

Aspalditxodanik zegoan zokora-samartuta gure olerkaria. Iñoizka oi dituten geiegikerien zatarragatik, alegia, elerti-batzaldietan sarbidea uka egin zaie, ala gutxitu. Ta ots ozenen bat ere entzun izan da, olertia, edo ark egokizko jantzia baitun neurtitza beintzat, ez-aintzakotzat emanaz.

Zertzuk-nai esan, ordea, neurtitza ederrik da, ta olermenak ezin asma dezake bere emaitz yoria jaulkitzeko era atsegiñagorik. Neurtitzez eztala, alegia, jende xeea mintzatzen?... Bañan, izkera berdiña bear ere al dute eguneroko gora-beera utsak eta egiazko olerkariaren amets eta ikuskizun goitarrak?... Olerkari aizun askoek neurtitza nardagarri biur omen dute... Ta olerkari banaka batzuk, berriz, mintzabiderik eztien. Zenbait atso ta gixonen jardun txotxoloei begiratu ezker, are mintzatze utsa ere iguingarri etsi bearra giñake. Izneurtuetan betegarri edo «ripio» askotxo oi dirala... Olerkari motzak oi dute ori ere. Ta, zer darraika orreri? Izneurgintza eginkizun gaitza dala, argjarria arkitzea errez ez izaki antzo. Baña, argjarria itsusi danik?... Azkenik, esan-aalak entzunik gera oskidetza edo «rima» dalakoaren buruzki. Jakiña, neurtitzak ezta berezko, ez bearezko oskidetasun ori. Gabe ere egin izan dira ta baditezke egin neurtitz eder askoak; agian, ederragoak. Baña, berez bezela, esaldia biurritu gabarik, olerkariaren antzetsuz datorrenean, belarriak, egia esan, ezta ain gaizki artzen. Mintzatzea, gizakumeek elkarri gogapenak adiraztea, otsaren bidez egin bearreko gauza dan ezker, esanaren ereskitasunari (musicalidad), otsaren eztiago-bearrari zor zaio berea; ta, ez izneurgintza, ez eta ere oskidegoa, eztira gauz uts eta zokoragarri. Otsaren bidez ezik, eskuzkoa-edo bagendu elkar-adiraztea (mingeak oi-antzo), jende xeea, agian, azkazal zikin ta atzapar zakarrez aritze'aal litzake; baña olerkariak, eskierki,

sumatua luteke beren amesketak esku landuez, esku zuri legunez, azkazal garbi gorritadun eskuez itzuli bearra. Begjari ordun zor, alegia.

Baña, arloaz ertzeka diardut. Natorren arira.

* * *

Olerkaria deritzan gizatxoro ori gabetanik, ezta ezagun izan ez erripizkunderik, ez eta erri-elerti-betetasunik. Aberri-aldeko gogo-gudari-sailletan olerkaria beti da leen oñean. Ta beroni zor zaizka, gogo lurkoiak irriek gora-beera, gudate orietarik gurenda ozenenak.

Batez ere, eleen apaintze ta gaizkakundeari buruz, olerkariari ez bezakio iñork ken oro-aal bezelako bat.

Ezagun (diran, ala izan diran) elerti aipatu askoek bitxirik oberentzakotzat olerkari gorenen bat darakuste: David, Homero, Virgili, Dante, Camoéns, e. a. Ele-berbizkundeei buruz, berriz, Mistralek ongi (ta gaurki) darakus gizon ale baten esku naraok zer dezaken, asabaen mintzoa eriotzarengandik begiratzeko.

Batek baño geiagok esan izan du euskera gaizka litzakela, orrelako olerkari bat luken egunetik. Baña, oar bati gatxikion: olerkari guren oiek eztira bakar soillean azten, gure Aizkorri zelai lau-utsetik bulartu ez-antzo; beti ditute olerkari xeeagoak aitzindari ta laguntzat; beti, bil-aldean muño ta mendixka sail bat. Txikion giro-berotzea gabe, sortzerik bai al luteke aundiak?

Ta gu, euskoak, ete gaude olerkari gurena eldu-giroan? Ezetz uste det. Baña, bai etorriko dala, txikien olermenari su eman ezker. Nork daki jaioa eztegun? Nork, gure semetxoen artean ez al dagon buruño maite bat, urteak zear ez-ilkorren dirditz-ustaiak bil-bearra?

Garau eze ori, bada, bear-garaiez goza ta ondu dedin euskal olermena irakin-araz dezagun, ta oler-zaletu-araz dezagun erria.

Olerkari onik eztegula?... Zirika ditzazute diranak, eskein zaiezute aintza apurño bat... eta, gero mintza! Ta ori maiz egiñaz, ikusi baietz leengoak beren buruak jantziagotzen, ta berri lirañak sortzen; ta azkenik, kemen illezkorrez bazkako duan gizagurena euskera gaixoari agertu baietz.

* * *

Gogapen oletxek erabilli ditu buruan, nere ustez, «Aitzol» zuurrak, olerkari-xuzperrazte au asmatzeko.



Eragille bizkorra aiz, adiskide on, ta abagunearen sena dek argi:
Euskel Oleriti-Jaien etorkizunean aitatu bearra zegok ire izena. Iri, bada,
eskeñi nai dizkiat itz motz auek, «Euskaltzaleak»-en eraberrigin ta zuz-
pertzalle berdiñaka.

* * *

Olermin aundi eder batek baigarabil euskozale oro: aberri berriaren
olerki gjarra egin dezagun: idaz dezagun guziok neurtitz bana, bederik!

Argia, 1930-06-01

2. EZTABAIDA LITERARIOAK



BIDE BERRIAK... BIDE GUZIAK?...

Aspaldi ontan, berrizale generalako gizagaxook makiña bat erauntsi artu diagu. Saririk irabazi badegu ere, ari gera entzuten gerea eta bost! Esan beza, bestela, il onen 7-gko *Argia*-n «Bide berriak?» idazpuruaz idatzi duan «Euskaldun bat»-ek.

Gure bideak euskera txukuntzekoak ez omen dira, naspillatzekoak baizik. Negargarritzko etsia benetan, gerez ezerez samarrak izan arren, maitasunaren indarrez euskerari aintza-bideak urratzen laguntzea amets gendunontzat.

«Berrizaleok» (?) irabazi sariengatik, zenbait idazle —olerkari, dio— zapuztu egin omen dira. Gaizki egiña. Errez-zaleok aspaldi darabiltzuten zirrikabideaz minduta, berrizaleok zapuztuko bagiña, ordun ere zer-esana izango litzake. Nik uste, mordollozaleak, erdi-merdi-zaleak, eta aurrera-zaleak, guziok bizi gaitzekela pakean. Zuk darakusazuna baño irizmen zabaltxeagoa bear, «solamente».

Nik idazle errez-zale bakar bat ere ez det bere bidetik okerrarazi nai izan. Ostera bere artan jarraitu dezaten alegiñ egin izan diotet. Legezkoa al da gurekin, berrizaleokin, beste era batera jokatzeara?

Guk badakigu, idazle errezak, olerkari errezak, gure aldean «publico» aundia dutena; ta gure bakartasunean otxan-otxan etsitzen degunezkerok, zer dala-ta zuek guri arrika?

Baña, goazen arloagora. Zuen ustez, izkuntza baten elerti-pizkundera «orkesta» bat bezela, txotx apain baten bidez, zuzendu liteke: orain «piano», orain «crescendo», orain... «xalto bat gorago, mutikoak, irakurle guziok mail ortara iritxi gaituk-eta».

Irakurle «guziok»... Nork esan dizu ori?... Zerorrek ere, «Euskaldun bat» orrek, atzera begiratu nai badezu, ikusiko al dituzu zu baño beragorik anitz, bertsolari «naturala» besterik iresteko gauza ez dirana. Zergatik, bada, ez itxoin, bertsolariez guziak okitu arte, ta ordun, ez oraindik alegia, zuri atsegin zaizun erdi-mallako elertia onetsi?...

Gauzak berezko bideetatik atera nai dituzute. Mallak elkarrekin lotuak bear dute, igotzeko malladirik osatuko bada. Gure elertia beste errietakoa ez bezelako eraz azitzea nai zenuteke, ta oker zoazte ortan. Opillaz ez da jaikitzen legamirik gabe.

Baña, lenbait-len aitor dezadan errez-zale aserrekoiak ere bear-bearreko ta nai-ta-naiezko zaituztegu. Elerti guzietan agertu izan zerate

aurrera-zaleei buruzki; urrengo gizaldiek, ordea, ez dute ukatu izan al, aien bultzaldi goragarria: akats eta guzi.

Mendira, egunotan, igo baldin bazera, ikusiko al zenitun, negu-muñean, aritzak adar utsetan; otea loretan; untza, berriz, igali dariola... Ederrago al leritzaizuke, lurreko landare guziei, ostotzerako, loretzerako, umotzerako, egun jakiñak, egun bakarrak, indarrez ezartzea; esate baterako, Santa Kutzetan guziek lorea; igalia guziek San Juan bezperan; ta oietaz aurrera edo atzera egiteko ausarta litzakena, errotik atera, ta kito?

Eskier dakit, ni, zure iritzirako, berrizale purrukatu ondagarria naizena. Alaz guziaz ere, aitorzen det errezero idazten dutenak berrizaleak baño askoz geiago bear ditugula, oreka legamia baño ugariago bear dan bezela. Poema eder bat errezantzean norbaitek idatzi nai, ta al dedantxoaz laguntzen diot. Baita ere, «Euskaltzaleak»-i eskatzen, olerki-batzaldiak erdibitzeko, sari bat erritar-antzeko lanentzat ipiñiaz; bestea liriko zoro berrizaleentzako.

Beraz, nor-gere irizmena zabalgotzea da bearrenik. Gure baratzean mota guzietako landareak bear ditugu. Ez degu zapuztu-arazi bear ez bertsolari mordolloa, ez olerkari garbi-antzekoa, ez eta ere berrizale biurria.

Gero, «Euskaldun bat», oartu al zera beste gauza batez ere? Idazle berak, batzutan errez bestetan gaitz —gaiak zer eska— egitea ere gertatu ditekela? Ta zeintzu dira, gauza ixilleko ez badezu beintzat, zuk euskerari ukatu nai dizkiozun gaiak?

Ara: gertatu polit bat esango dizut, errez-zaleekin ere geiegi etzaiten pio. Beñola, bazan olerki-sariketa bat. Iru epailari ziran, irurak errez-zale garaiak. Irurak nitun, sinistea gaitz egingo bazaizu ere, adiskide miñak. Olerki asko aztertu bearra izan zuten: mordolloak, erdi-errezak, zallak. Auzia zeintzuen artean izan zutela uste dezu?... Zallenen artean. Bai, jauna. Errez-zale ustel ez bestelako aiek olerki errezak bereala baztertu zituzten. Ogen au ez egotzi guri berrizaleoi. Azkenik, gaitzenari saria eman zioten.

Ta onuzkerok, bear bada, esaten asirik zera: «baña, irekin zer diat nik zer-ikusia? Arraio ori, nork egin au kofradiko?...».

Bidez ala bide gabe, ori ez dakit, zeure itzok ipiñi didate eskuan kandelak: «Alaz ere, oiek aipatu, oiek saritu». (Olerkari «berrizaleak», alegia). «Lauaxeta»-renik ez omen dezu irakurtzen, eta ark atera zun lenengo urteko olerki-saria... Nik, ain txutxeren ere, bigarrenago, ta oraindiano irugarrenik ez da izan... Beraz, nabarmentxo ikutu nazulako usteak etzaitu arrituko.

Ementxe daukat, aurrean, nere aritz-abarra. Oker-irabazia dedala ziñez uste badezu, zere eskuetan uzten det: itz erditxo bat esatea aski



dezu. Ezkur batzu baditu zintzilik, egia, baña ez jatekoak: proetxu gutxi-
koa saria det ori: ori emanak ez nau txiroagotuko.

Nor-gere eraz aldizka bederik jardutea ukatu bear badiguzute; saio
oiek egitea euskerarentzat kaltegarri baldin bada; ori argi erakutsiko dida-
zun ezkerotixe ixilduko naiz ni, lagunak ere or nonbait, eta orra pakea.
Baña, elerti-gaietan ez da biderik zuzenena, norbere zale ta joeratik atera-
ta ibillaraztea.

Ta bego au emen onuzkero. Auzi ori geroak ebakiko du, ez zuk eta
ez nik.

* * *

Azken itz bat oraindik. Besterik okerreko ikusi baitet zure idazkian.

«Lauaxeta»-ren *Bide Barrijak* ez omen dezu irakurri, bizkaierazkoa
ote dalako, ta zuk gipuzkera baizik ez dakizula-ta.

Bizkaiera, gipuzkera, lapurdiera, guziak dira euskera, ta euskera eder.
Guziak bear ditugu mami-mamiko. Ta zuk —ainbeste euskaldunek
«berrizale» etsi zaitzateken orrek— etzenduke, nere ustez, diozuna egin
bear —zere burua apalegi erakusten dezu— ta ezago esan bear. Bati bost
ipiñiko niozke, bizkaierazko idazkirik ulertzeko zu baietz izan gauza. Ala
izanik, irakurri nai ez badituzu ere, etzazula beintzat agirian esan.
Orrelako ateraldiak ez datoz ongi gure arteko pakerako, ta, ondoz, euske-
raren onerako ere. Bai-baitirudi «Lauaxeta»-ri auxe adirazi nai diozula: «I,
batetik berrizale, bestetik bizkaitar?... Utikan!». Ta au, zeran erre-z-zalea
izanda ere, ez dezu zillegi.

Agur, eta gaizki esanak barkatu.

Argia, 1932-02-21

BIDE TA BIDE-ONDO

«Barrenoro» adiskidea. Lauso mamiak sortu omen dizkizut adime-
nean. Oietzek argitzeko, bada, egite'aal nizuke alegin, betarik eta are aldara-
terik banu. Oraingo, orde, itz gutxiz etsi bearko. Agian, esan nezake
aurrera, «berrizale» izatea zeri deritxodan, ta berrizale izateak zer bes-
terik dakarren ondolik.

Gaurkoz egizu, «Barrenoro», illunpean zarabilten naspil oiek nik
sortuak ez dirala. «Euskaldun Bat»-ek elkartu zitun «bide berri» zaleak eta
ulerkaizkeria. Berak adierazi, berrizaleak aurreraegi-zale dirala. Ondo, z,
berberak aterea dezu idazle-mallekiko auzia. Ez, nere aburuz, balio-
mallak: agian soilki, olde ta ausardi-koskak. Edermena ez degu guziok
margo bereko ariez eioa: batzuk zuri, besteek urdin, berrizaleok... gorri?...
Antola or. Orrek ez du ukitzen artillearen bikaintasuna.

«Euskaldun Bat»-i erantzun bearrak nindakarrela, gogotik etzendun
baztertu bear; ezta ere, ark erakarri oñetik arloa ez ateratzearren, eltzen
niela aren erizkerari ta ari-muturrei. Zio gutxitxoz egotzi didazu ogen
larria. Iñoren lanari eskarrak ematen ez dakidala; nerea bakarrik aintza-
kotzat artzen dedala, atera liteke zure esanetik. Zuk agertu bezain arro-
putz banintza, inpernu betikora bizitan epaitua aal nengoke. Beldurgarri
zait ori. Ez. Berrizale joak ez diran zenbaitxoan lanak ederresten ditut; eta
ez diot iñori arririk jaurti, nere burua gerizatu bearrez, «Euskaldun Bat»-
eri berea itzuli baño.

Bigarren naspil ori, bada, zeuk eta «E-B»-ek auzolanean sortua dezute.

Ta irugarrena, azkenik, zerorrek bakarrik, iñoren laguntza gabe.
Mordollozaleekikoa, alegia. Nere itz azkatuak urrengoan astiroxeago ira-
kurtzea nai nuke. Neurtuentzat ainbat asti ez aal dezu bearko.

Ondo, etzendun «Larreko» agurgarria ta ni elkarren aurkez aurke
zertan jarria. Orretzek geienbat erantzupen au egiñarazten dit.

«Larreko»-ren iritziak, maiz, txorrotxegi iruditzen zaizkidan arren,
gizonez maite det; idazlez, ederresten; abertzalez, goratarre dagiot.
Bikaintasun oiek nere eskuek ez ukitzeko diñan goitua ez balego ere, ille
urdiñarenganako itzal samurra bear nuke aski. Aren aurrean bai, atera
dezakegu txapela biok, eta beste zenbaitek ere.

Itz oietzek zor nizekizun, aiton buru-xuri begikoa; ta artaratu nauen
abagunea atsegiña ez izanda ere, ongi etorria bedi, biotza lasatuaren
ordañez.



Besterik ez, «Barrenoso» zolia. Gañontzean, nere lanak nornairen etsipean daudeke, besteenak bezela. Zuzenez ari ezker, orrek ez du langilea xuxperrazten baizik. Okerragoa da ixilpea. Alde ortatik, eskarrik asko, beraz.

Ta jarrai ezazu euskal salla orrean txukunki lantzen. Beldur naiz, azkenerako jendeak, zure zaar-zale goriari axola gutxi emanik, ez ote zaituan gure kofradian sartuko. Baña, ez estutu. Zaude beti, zere edermen landuaren aginduetara.

Elerti-gaietan, ori da nik guzientzat eskatzen dedan azkatasuna.

Argia, 1932-02-25

GURE BIDEKO MUGARRIAK

Nere adiskide Aitzolek, serio samar jarrita, errez-zaleen ta gaitz-zaleen auzia berritu du. Igandeko *El Día*-ko artikulua isats aldera, eskribatzalle guziori muga bat erakusten digu.

Nazioak diru-kontuan «el patrón oro»-ta erabakitzeko buruauste ain gorriak ibiltzen dituen bezela, gure auzia ere ontantxe zegoan: idazleok noren neurria errendituko, zer artuko legetzat?... «El patrón» Txirrita? «El patrón» Mujika?... «El patrón» Jauregi?...

Ni beti lengoan nago. Ez det uste euskal literatura auzia ain errez erabaki ditekenik.

Errikoitasun gorritik bertso ikasietarako tartean izen aiek iru mugarri bezela jotzen ditut; eta —au ondo entzun, mutikoak— ori esanakin ez det adirazi nai inor aldamenekoa baño geiago danik. Bada ez bada diot au, ibillian asko ikasten baita.

Errezago konprende dezazuten, egin zagun kontu bi erri dirala: Erriburu ta Ikasburu. Biak buru, ta ez bat bestea baño buruago. Bi erri ok bide batek lotzen ditu. Bide orren ertzean daude len esandako mugarriak, bidaztien eserleku. Nere iritzia izan da beti, ezin agindu ditekelako mugarri oietako bakar bat ibiltari guzien deskantsu-arrizat.

Ni —guziok ezagutzen nazue— errez amorratua naiz, ta argatik Txirrita-arria daukat aukeratua. Igurtzian besteak baño leunduagoa da-ta, atsegiñago zait. Nerekin beste zenbait euskaldun jatorrek arri berean planto egingo dute. Ta au sinistu nai ez duanari esango diot, Tolosako epaileak urkizuarak izan balira, ogei bertso billatu baietz beren ustetan Jauregirena baño jatorragoak. Beste zenbait euskaldunek, Txirritarenari muzin egiñik, Mujika-arria naiago izango dute. Askok eta askok Jauregikoa gogoko. Ta gerta ere litekena da, banaka batzuk eserleku geiago bear lirakela esatea: ipurmamiak zenbaitek bezin beratxak ez dituelata, naiz arri landuberria izan, ez diela ajolik.

Ta nere galdera au da: bidearen erosoarentzat zer da oberena, mugarri bakarra egotea, edo jendeak eskatu ala izatea?...

Txirritarenean jende geiagok eseri nai dula, ta arriak ez ditula artzen ... ? Bejondeiela. Mugarri ura zabaldu, alki luze biurtu, era artara bestee-tara baño idazle geiagok idatzi, ta kito. Baña beste mugarri guziak ateratzea bidegabea litzake.



Nik beti nai izan det, kolko-kolkotik, alare!, euskal baratzen, oraingoz, iskribatzalle errezak gaitzak baño erruzago sortzea. Ta gauza batek arritzen nau oso: ainbeste ta ainbeste euskaltzale izan, urkoak errezka jokatzea nai lutekenak, eta, nolatan ez ditue berak gure euskal orriak lan gozo mamitsuz josten; nolatan jakintza sail guziak ez dizkigue urratzen, arloterik zarpatzuenak ere, jaten baño gustoago, jarraitzeko moduan...

Saieski babarrunetan egosia baño naiago omen luteke euskeraz idazten dan guzia, nornaik atxitzekoa balitz; bana, beren lan mamijario errez oiek nai baño nekezago agertzen dira... Ai! Ez nik bezela jokatuko balute: bertotan naiz itz zelaiez, nik barrena ustutzea, ta Bedaioaraño guziak mara-mara jabetzea, guzia bat izaten baita!...

Denak ez dira, orde, artarakoak. Berez bear du Billabonakoa. Ta gauzaez oeri, zer egin bear zaie?... Ukatu egingo al diegu, beren erako mugarri lakartxo bat bederik bidertzean sartzea?...

Ara. Badet nik laguntxo bat. Errez-zale purrukatua da, iñorena irakurtzekoan. Baña, bera idazten asten danean, luma biurritzen zaio, ta iñork ez dio kolperik konprenditzen.

Gertatu izan zaio iñoiz adiskideen batek lantxo bat eskatzea: «Aizak i, itzaurre bat egin bear diak; erderazko teatro au traduzitu bear diguk... Baña!... (au eskua altxata) faborez!, erreza izan dedilla, e?... Vanguardismorik ez diagu bear! ... ».

Koitauak, bada, egiñalak egiten zitun, ni naiz testigu; ustez, aingeruak baño malizi gutxiagokin itzak josten zitun; gustoa egin ziolakoan, bere lantxo eskaleari ematen zion; ondorenen zai gelditzen zan, begi zearka... Otza ta kopetea zimurra besterik etzun nabari izaten bazterretan, eta geiago gabe atsekabez beterik etxera baztertzen zan. Ez izan nonbait Billabonakoa.

Kezketan nindukan gertaera orrek. Baña, zer arraio dala-ta idatzi bear ez dek izketan aritzen aizen bezela?... Berak ere etzekien ezer asko: ezintasun aren zuztarra ezin zun sumatu.

Noizbait ere, orratio, eman diote zearoko etsia. Gure olerkari baten bertso jator errikoi bat irakurriberrria zan, eta egillea ikusi zuneko an dijakio bostekoa estutzera. Besteak, lotsati samar, ala esan zion: Eskarrik asko, eskarrik asko... Zuek bezela ez dakigu, baña..., amaren bularretik aziak gaude beintzat... Zuek berriz, iñork ba al daki nongo errapetik edoski zenuen?

Ateraldi aretxek argi eman zion nere laguntxoari. Bereala, gorri-gorri eginda, izkide errikoiari aitortu bear izan zion baietz, bera etzala txikitan amarenetik aritua... biberoiakin azia zala!

Orain oartu zaitezte orren egoera larriaz. Gizaxoak leena zuzentzerik ez du: estu-estuan, biberioia ere etzioten emango berak aginduta; berriro jaiotzerik ere, nekez; ta, alaz guziaz ere, eskribitzeko griña uzteko gauza ez bada, zer egin bear diogu tristeari?... Erorrek esaidak, Aitzol: zer egin bear zioqu?...

Argatik, bada, bide artan eserleku bakarra izatea baño, lenago eskatuko nuke nik lege ok jartzea:

Lenengoa: danok iskribatu dezagula «con sintaxis», esaten dana.

Bigarrena: irakurtzekoan erreza nai dunak, idaztekoan ere ala nai izan dezala, «Trigonometria»-z ari balitz ere.

Irugarrena: biberioiez azitakoeri mugarri koskor baten eskubidea eman dezaietela; ta, ori euskerari «txarkeria» egitea dala aproatuko balitz, lenengo eskolara baño len lepoa biurritu ta ibaira bota ditzatela.

Lege ok bear bezela kunplitzen baditugu, pake santuan bizi gaitzeko guziok.



GURE BARATZATXOA

Gure baratatzoa! Txiki, baña emankor; iori ta eguzkitsu. Ugaldtu bitez zure landareak; gero ta arnari mardulagoa bekarte.

Ludia zoroki aurrera dabillearik —aurrera?— askoek eztakite, are Euskal-Errian bertan, zure orma-arteko berri: euskera gauza zaarren adur gaiztoak daramala uste.

Bitartean, zuek, euskel idazleok, gure baratatzoko zuaitz berri, euskera eztala zaar; euskera ludiko ele kemendun gazteenetakorik bat dala diozute: aurgintzaren nekeak ezpaitu abaildu, ez eta igatu erabilli luzeak. Zuek, ixilka —biotza su-uts, burua sinispen gori, begietan ernai itxaropena— euskera lantzen, etorribear-urteetako gurendarako bideak urratzen ari zerate... Bejondeizutela! Eusko pizkundeak ezer ekarri badu indardunik, iraunkorrik, ona zuek.

* * *

3. KRITIKA LITERARIOAK

Orrengatik, idazle berri baten agertzeak —batez ere gazteen joera ain oker-bideetara etziña dagon aro makal ontan— bularrean alako ikara gozoa —ikara bero bat— eragiten digu.

Bestalde, berriak naiz zaarrak, ezeren eztigarririk gabe ari gera, ta askotan itz gozo bat naikoa sari genduke... Ziñez esan diteke, siniste utsezko ekintza bati loturik gerala.

Euskaldunok ain baigera alkar-zurikatzeari ez-emanak, gutxitan iñork eskeiñiko digu, kemen nekatuaren xuxpergarriztat, ederretsi-iztxo baten gozoa bederik. Izaera ori, bada, beingoz-betirako gure baratatzoxoaren atean utz dezagun; alkar-gogoberotuz ari gaitean, sutsuak suagotuz, gogo-urriak eraikiz.

Ta orretarako gaien enaizelarik, norbaitek asibidea eman bear-ta, banatorkizute. Gure baratatzoxoan barrena gaur egin-nai ibilliaren leenbiziko urratsa zuaitz berri batengana jo dezadan.

J. Alberdi.— Nor zaitugu?... Nongoa?... Zumaiarra, agian?... Ala baziña, euskeltzaleaz gañeko alkarbiderik badegu zuk eta nik. Zure itsaso berberaren orroak lo-autsia bainazu, neguz, amaika bider; ta aren apar zuriak —uin arroen gandor aratz— begi-lilluratua.



Baditeke ukalondoa sartzea idazle berritzat edo ez-aritzat jotzen zaitudala. Baña, zerorrek baitiozu illunpetik zatozela. Egia bada, ongi-etorri; ta, gañera, bizar-berri bazaitugu, ongi ta obeki etorria.

Azkenengo *Argia*-n zure «Urteberri» irakurri det. «Año nuevo, vida nueva», «Urte berri, gogo berri»... Zuur-itx orrek baño, ez nau ezerk iguiñagotzen. Ain baitago eskukatua, alperreko aitatzez ain andeatua!... Baña zurea gogoz irakurri det: berriki erabillia dezu, ta, gutxik oi dutena, badakartzu zuzendu-asmo zeatzik eta, dirudienez, egiazko garbairik ere.

Idazteko, nere iritziz, badezu asmamena ta zaña. Etzera illunpean egon-bearrekoa. Euskerak, zuk ainbat dezaketenak argitara-bearrekoak zaitute. Nere aolkurik ezertakotzat badezu, eragin maiz lumari, otoi ez illunpera itzul.

«Urte berri, *Argia* berri», «Urte berri, baratza-berritze»... Orra eskeñi arako esakunaren ordezkai politak.

* * *

Ta orain zaar bat edo beste agurka dezagun.

«*Otxolua*». — Ona, ezin polikiago ari dan idazle bat.

Asteazkenero, uts egin gabe, arki dezakezute *Euzkadi*-ko «Euskal-Atala»-n «Otxolua»-ren idazki mamia, Mundakako berriez ta zenbait goxoki geiagoz ornitua.

Maiz, berebiziko ipui irakurgarriak ingelaratik txukun-askirik itzuli oi ditu. Oiek labor-bilduz noizpait idaztitxo bat osatze'aal bazeneza, elitzake makala aldarte beltza argitzeko.

Bizkaiera giartsu-egokia oi darabil, ta itz-aukeratze ta are asmagintzan ere zolia da. Euskerak Bizkaia aldean ditun idazle bikañenetakorik irudi zait.

«*Iparralde*». — Noizik beinka zure idazki ederren bat gureganañotu oi da, *Argia*-ren bidez; bakantxo, ordea. Nik orain eztet bat baizik gogoan, zaar samarra bera, nere lagun on bati eskeña. Zure gogamenaren ale mar-dulak artuko genituke pozik, maiztxeago.

Lurralde urrun ortan egonagatik —euskaldun zaarrek odol-kutsu ioriaz zeindutako Chile— ez aaztu gure baratza txikiko lau ormen arteko barrutikoa zaitugula, ezta zure ekarrien begira gaudenik.

«*Gireuja*». — Ez, jauna; ez orrelakorik uste. Enatorkizu gorapen berriez belarriak eztiagotzera: naikoak entzunik aal zera.

Ikasi det, ordea, izneurgintzaz-atekako lan sakon bati burua lotzer dezula. Ekin ortik gogor: zuk bezelakoak baitute lanerako astirik eta abagunerik.

«*Dunixi*». — Euskal idazlea «Dunixi»?... Ta ez badaezpadakoa. Igaro udaberriz entzun genion itzaldi eder-askoa Donostian.

Baña, erderaz batez ere eman oi digu bere gogamen zoli meearen berri.

Eztaki nornaik gaztelera ain apain ta biziki erabiltzen. Esaera ta itzak aukerako ditu, ezetsu, mami; ta adirazgaiari ain dagokie zeazki, uste baitet, ez bera ez gu oar gatzaiola norbaitek eskutik idazkortza ken ta erraztilla (brotxa) ipiñiko balio, aldapena igerri gaberik baietz jarraitu margoz lan itzez-asiari, ta are gu ere, leen-arian, «margozkia irakurtzen».

Orain, bada, adiskide antxean, galde txiki bat. Zuk, «Dunixi», barruan alako idazle jatorra daramazun orrek, euskera ere bikainki daki-zularik, zer legikezu euskal elertiaren alde, tarteka-tarteka, erderaz aritzeari utzi gabe, gure baratzatxora egonaldi batzuek egitera bazentoz?

Ez aal zinduket alperrik zirika!

Euzkadi, 1930-02-01



ATARI-JARDUNA

*Deun Toma egunez, Donostian antzetzuko dan
«Ayanbe»-ren Euskal Eguna dala-ta.*

Ume berria du «Ayanbe» antzerkigille saiatuak: berria ta, agian, mardulena. Bejondeikela, adiskide.

«Euskal-Eguna»...

Amaika oroitzapen gazi-gozo astindu dizkit gogoan antzerki bizkor ori irakurtzeak! Euskozaleentzat etorri baitziran zazpi bei makal; leenetan bazirudigun ezin-urtuzko odei-sabelean geundela ta etzitekela geiago guretzat eguzkiaren dirdai bizigarririk. Guzia eragozpen, guzia oztasun, guzia etsibear ituna zan, ta nekerik eta adorerik eza.

Joan leenengo beia, igaro bigarrena; iru-bat-lauek aldegin —zein baño zein zitalagoak, zein baño zein idorberiagoak, zein baño zein ezurnabariagoak— eta asi ziran orraatik urrengoak gizentxeago agertzen. Bere exkaxean ere, bazirudian saiets-ezur tarreak betexeago zituztela. Agian, ez berak mardulagoak izanda, baizikan gu lauso-arintzen asiak giñalako.

Mutrikuko, Elgoibarko ta Arrasateko euskozale apalak badute besteongandik zer-artzekoa. Aiek etziran ikasiak, aiek etziran aundikiak; aiek «erri» ziran, erri xee; biotza, orde, bizkorra izaki, ta etsi ez naiekoa. Munduaren aurrean beren buruak ezagugarri batez nabarbendu nai izan balitute, auxe zuteken egokiena: «Ez etsiko».

Bejondeiela!... Zenbaitek uste baño zirika biziagoa artu zun bestean euskozaletasun txepelduak aien baikortasun akulluarengandik. Giro otzaren eta goikoen ezin-ikusi ta zital-agintearen gañetik edo azpitik edo tartetik, arkitu zuten aiek euskal gurdia nola berbideratua; ta jai aien bitartez asi giñan antziñako gogakideak arpegia elkar-berrikusten ta odola elkarberotzen. Irizarretik Iriberrirako bidea, «Ayanbe» nerea, ordun lanbropean zuritzen asi zalako zalantza diat.

Arrasatekoaren otsak berbiztu nindun ni beñipein. Arrezkeroko euskal egunetan egotzi zitzaidan zeregiñik aski. Argatik, «Ayanbe»-ren lana irakurtzeak bete dit iduri zaarrez oroimena.

* * *

Euskal Eguna...

Goizean goizetik eguzki. Erria, zazpiretako mezetan, Jauna artuz ta Aita Agirrerren itzaldi mamia entzunez. Kalez-kale tuntuna. Bultziak, goitik eta beetik, arrotz-mordoak jaulkiz. Zenbat «Txorlero», zenbat «Akullu» aien artean!

—Kaxo, «Zera»!

—Bizi aiz, «Olako»?

—Ieeeuppp! Bagerala?

Euskal idazleak... Guziek izenordea bai. Ta nolako arrotasunez esaten zizuten, lagun berrikoak egiterakoan: Ni «Alako» nazu!

Izenorde ezpaita izengoiti. Izengoitia, ezizena, iñork jarria dezu, ta bear bada irribide gaiztoz; izenordea, berriz, norberak, eta ez izena ukatzekoan, jantziagotzekoan baizik.

An zetorren, ixilik aspaldian egon ta euskal egunek luma erdoietik begiratua. Or bestea, euskal egunon beroak sortu-berria. Etzan bakan baserriar jatorrik arkitzea, atxurketa-ondoan idazteari tajuz ekiten zekianik... Ori ez al da erri-bizkundea?

Baña, garraikion.

Meza nagusia. Gain-gañeko sermoia. Ondoren erriko enparantza margo nabariez pil-piltzen. Euskal idazti erostea: alper gaiztoan, autsaren mende zetzaten libururik asko eguzkitara jartzen baigenitun, salgai, ol zatarrezko txaboletan. Ona non datozen Litzartzako dantzari nabar apainduak. Bitartean, Udaletxeko areto aundian, inguru-errietako nexkamutiko aztertu-gaiak dute aldi.

Ta ondoko bazkari alai ura?... Zabalean, lareun bat lagun bai, danok sarbide ederrekoak arraioak ezpadu! Azkenerako irten bear iñoizko abes-ti ausartaen batzuk, «gubernadore» otzan aien gogoko ezpaziran ere...

Arratsaldean... ura gauzez!: tuntuna dantzariari tarte eskeka. Bertsolariak, aureskulariak. Berrizko ezpatadantzariak. Baldaxar ta Gabino palankariak, pillotariak, dantza-aspertua... nik al dakit! Azkenik, gaueko antzerkiketa: bi miliek ikusi nai, ta millerdik ez ikusi bear.

Bai. Ori guzia ederra zan. Batez ere, erbestetik lasa-lasa zetorrenak ala zerizkion. Baña aurretiko nekeak?... Zenbat eskutitz, zenbat joan-eto-ri, ta itzul-inguru, ta diru-biltze, ta bizkar-ezur biguntze, ta amorrazio latz!

Beti, agintarien azken erabakia zer izango. Baimenik iritxiko bazan, zirauna lurrean baño areago bear ibilli. Uriko batzorde-osatzea ere lanbide irristagarria zan. Jakiña, alderdi ta margo guzietarik bear, ta agintarien aldekorik, berriz, eztago zer esanik: batzorde burugoa eman oi genion. Bai berak ere iñoizka lan larriak guri! Arik eta —jartetxe-jabea bazan,



noski— arako dantzarien bazkari-gora-bera eskeñi arte, ez gendun lo onik izaten. Batzutan alkatea, bestetan sekretario biurria, urrena auzo-errien arteko ezin-ikusia, apaizek ere atera oi zituzten aldizka beren mara-tiltxoak —geienetan laguntzalle sutsuenak genitun arren—: zana zala, korapilloa ta burruka, bear ez aña. Burruka ixilla, ori bai: ezpañetako irri-parre biguñez ta ezkerreko eskuan biltze'aal zenduan zuurtasun apurrez irabazi bearrekoa.

* * *

«Euskal-Eguna»...

Oiek guziak gogorazten ditu «Ayanbe»-ren antzerkiak. Jaiekoak eta jai-aurrekoak: auek batez ere.

Esku antzetsuz tajututako lana da. Egintzaen banaketa txit egoki: badute zeñek-bera nortasuna, gaiez, garaiez ta notiñez ere. Ikuslearen gogo tenka dagoke aspertzeka. Elkar-izketa, jario errezekoa ta ateraldi gazi ugariez maniatua. Irria noiz-nai datortzu ezpañetara, ustegabeen.

Ene adiskide onek badu ziñez (ongi ezagutzen baitet) urkoa ta urko-arena begi jostalariz ikusteko aalmena. Eusko aldarte jatorrekoa da. Sagardo bikañak ere bear izaten ditu alako bumbulo bakan «ttipitto» batzu, beetik gora ta ontzi garbiari itsatsiak.

Bizitzearen gozoa, munduaren alaia, ongi sumatzen ta ematen daki gure gizonak. Barka bezada, baña, ikusi batean zalantza naiz ez al digun euskal egun irrikoitxoegia eman.

Izkera erreza du, ta gizena ere maiz. Onako apur oni begira. Mutilzar zuurraren esana da:

Len ala, orain ola, Gero.. ez andre, ez diru ta ez adore. Au da okerrena. Maitasun ta biozkadak, lore ta igaliak bezela, udaberi ta udan izan oi dira onenak: gorrixka, eze, gozoak. Udazkenean... mixpirak besterik ez, ta aiek... ustelak!

Orra bizkorki samar erakutsi ere, bizitza ta bizitzarekikoa oberen alderik artzeko gai danak, nai ta ez bear dula «pilosopo» eder. Orrein zuurki mintzatutakoak merezi luke mutilzar geldituaren saria.

Baña, barkatu: ariak aldegin'in dit. Aitari buruz ari nazute ta umea-rekiko etsia nuen eman bearra.

Notiñak, gizakiak, egitazko-askiak ditu ta tajuz ebakiak: bizpairu ez gañerakoak irrimarra antxean.

Alkate tripazai alenak, «apaizkume» latin-zaleak, sekretario biurri nabarmenak, senide ugariak dituzte Euskalerriko bazterretan. Zer esanik ez, Joxepantoni ta aren anai Jonixio bertsolariari buruz. Au batez ere, ber-

tsolaria, gatz-ozpin biziez dago maniatua: ez al ditu ere aotik egi makalak ateratzen, andre ta andrakumeei dagokiela.

Egilleak badakartzi tartera, maiz, ezur ta mamizko gizaki ezagunen izenak, gertari izuna egiantzago dedin.

Maitasun-korapilloak ondotoxo lotu ta obeto askatu egiten ditu, aien askatzea lotzeago oi bada ere. Maltzurkeri zuurrez darabiltzi, gañera, ta urliarekikoa ikusleak uste zunean, berendiarekiko eztaiak gertatzen zaizka. Ongi erakarria deritzait Mikelen maitasun-aitorpena: eraz ta garaiez ongi. Ordun ere, mutil gizaxoa begiak lurrera ta masalla piperra baño gorriago ari dalarik, neskaren pozak eta «Ayanbe»-ren aldarte bikañak, bat eginda, sagardo gardenaren ondolik askatzen dizute puzpillo «ttipitto» gazi aietarik bat. Sekretarioak jasotako «kuiatoa», ustegabeen azia, biribilki emana ta ongi irabazia du.

Elkarraldi irritsuak, onak eta maiz. Gogoan ditut: batzorde-eratzearena, sekretario-apaizgaien jarduna ta dantza, Jonixiorena euskaltzaleekin, Jonixio ta Joxepantonirena alargunarekin, eta abar. Ta arako gobernadorearen urrutizki edo telephonemak azkenarteraño dauka urduri ikuslea.

* * *

Baña, aski al degu. Euskal antzerkiak orrenbestekorik gutxi du. Otoi, irakurri ezazute, gazteok; eta, irakurri ez ezik, antzeztu: antzeztu bazterrik-bazter. Artara, ez al digu «Ayanbe»-k ukatzen emaitz berri ta gero ta gozoagoen poza. Ta azken itzok iretzat, adiskide. Euzkadirentzat egun berriak, agian, zetoztek. Gure erria gero ta ernaiago zia bere mendian gora. Leengo egoitzari zegokion antzerkia egin dek: egun berriari dago-kiona asi zak. Eorrentzako jasoaz: «Irizar» piztu dek; oa «Iriberrri» piztut-zeraz.

El Día, 1931-12-19



SAN LUISEN BIZITZA

Idazti berria

Liburutxu berri bat etorri zait eskuetara: Markiegi'tar Joseba apaiz jaunaren *San Luisen Bizitza*, itzulia ez baño erderatik antolatua.

Ale atsegiña, benetan. Begietatik sartzen da lenen, milixkagarri dan edozerk sartu bear duan bezela: ain da aundiera egokikoa, apaingarri ain goxoez jantzia, ain garbi ta errez irarria.

«Olaburu»-k lengoan zionetik okerreko usterik nik atera ez badet, edergarriok ere egille berberaren eskutikoak omen ditugu. Ala balitz, ar beza, aurrerago gabe, nere atsegin-erakutsi berezia. Ao oneko gizona ageri da ortan ere. Iduri oso taiuzkoak ditu, esku antzetsuz ebakiak. Ez gutxiago, atal-buruko izki edertuak. Bizpairu atalek peitu (palta) ditute, ta begiak, besteetara goxoki jarria baitago, bereala motz irizten die.

Begien onetsia degunez gero, goazen biotzera. Ta biotz-lan onekiko euskera degu, euskeraren erabilkera, ebakera. Gaia ezaguna baita, asma-menari biderik ez ematekoa.

Ederki garaitu du errezaren zalla. Guk-eta bezela, Markiegi Jaunak ez du iñoren burumuñik biurrituko ta legorraziko, alegia. Beondeiola!... Orri oietan zear ibiltzeak, mendi gañeko ordekan, egungiro gozoz egurastea dirudi. Edota iturri azpiko arriak lanik eta nekerik gabe ur-ari gardena artzen duan bezela, gogoan ere itxurtzen zaigu, irakurri-ala, idaztiño onen mamia.

Ebakera erreza ta garbia, era berean; erriari begira ebakia ta, orobat, euskeraren gora-bideari, euskeraren txukundu-bearrari begira.

Bestelako jo izan gaitutenez gero, aitortu dezagun ori añako burubiderik ez dezakela, agian, asmoratu, euskel idazleak. Bear bada, ez duke aintzabide dirdaitsuenik, baña bai, alde-aldera, euskerarentzako ongarriena.

Izkuntza errez-jario orretan ereñak maiz datozkio irakurleari, beginietara, zenbait esaera jator, errikoi, goxo. Erakusburutzat:

«Gudarien or-emenak ikusita». «Asarre egin diote». «Asko lagundu zion emakumeekiko batere artu-emanik ezak». «Aitari berari ziotsan». «Orduak eta mezak ematen ditu». «Zirikatzen dute ate-zirrikotik». «Gogo-barreiatu (distrarse)». «Buruu beste ezertaratu gabe». «Aomen aundiz aitatzen dute». «Zabartuxe dagu». «Jokoan buru ta begi». «Bizkar gorrian jo ta jo». «Goi-deia egiazkoa ote zunentz». «Jalki dio dana markesari (referir)». «Jainkoaren deiaz besterakorik ez diat nik aginduko». «Bailitzan». «Bailjoan». «Bere oneratu eziñik». «Morroetarañoko guziak».

«Ase-samartu zanean». «Umea iduri». «Lili zuria iduri». «Jesuita zijoalakoa (la especie de que entraba jesuita)». «Leggizonak irakurriago ta Luisek poz aundiago ta Markesak biotza larriago». «Jaungoikoari emanago dirudi». «Ez da leena (no es el de antes)», «Mena, eratsua ta argia da». «Mentasuna ta guziekikotasuna». Ta abar.

Bakanka, baditu, joskeraz egoki, baña, arnas baterako, luzetxo derizkiotan esaldiak. Adibidez:

... *itxas-ontzian bezela lekaidetzan ere, arraunean ari diranak aña aurrera egiten omen dute ontzi-ertzean eserita itsasora begira ederki dijoazen esaneko lagunak-ere ta...*

Orrelako idazti labur, mamitsu, errezak bear ditu euskerak ugari, ta Markiegi jaunak eman lezazkio. Badakit besterik ere esku-artean darabilkiena. Betor, ta betoz, aguro, oraingoa bezain txairo ta begiko. Jakiña, euskeraz idaztiak ateratzea ez da irabazpide yoria. Baña, gure gaztedi kistarrak eta, bereziki, luistar euskaltzale jatorrak, beren buruak alakotzat baditute, idaztiño ori erosi gabe, ta irakurri gabe, ta apalera txukunki jaso gabe ez ditezke gelditu. Ordun bai, gaurkoaren ondotik, zuaitez lerdan orrek ekarri lezake ale mardul berririk.

Beondeiola Markiegi jaunari, ta ar beza nere poz-erakutsirik xaloena.

Argia, 1932-09-18



DONAPALEURA JOAN-ETORRIA

Goizeko nagi goxoak ogean nindukala —jeikiko al, ez al?...— telefono-otsa.

Zuti, belarriok...

Neskameak: ¿*Quiéeen?*...

Neskamerik ena Euskalerrian, telefonoz euskeraz dakinik. Arian barrena ibiltzeko ere, lakatza ta baldarra degu, noski, mintzoa!...

Baña, orraatik, euskerari eldu bear izan dio, *quien*-aren urrengo. Agi danez, deitzallea ezta nornai...

Aizak! —nere artean— Mendiola ote?... Egin ote dit beribilean tokirik?... Bart, etzula baitzion... Ta nik iru eguneko bizarra; sasiak jana arpegia. Zortziretan abitzekoak zirala, ta zortzirak oraintxe... Auxe dek lana!

Mendiola da, bai. Joateko ta joateko, itxongo didatela; bizarrak zer-ikusirik eztula gure eginbearraz...

Ez bizarra monu, ez gosaldu —jantzi ere ozta— banoa.

Zer egin bear zenduan?... Egun eder bat nolainai galtzekoa ezta.

* * *

Beribil bi daude gerturik.

Mendiolarenean, jabeaz gain, Etxeguren deritzan zaldun bat, Jausoro olerkaria ta neretzako utsunea. Arregi guriarenean, «Uitzi», Larrain —Ibarluzeko Udal-otseña— ta gizaseme aundi sendo igar bizar-beltz bat —Rekalde, izenez— aitarengandik Karlosen gudateko oroitzez, ta are suz ere, betea.

Eguna urdin garbia. Berotu bear du poliki eguerdirako, Agorra illurren izanagatik.

Noizbait ere, Arregiren «gurdia» asi da oska, ta badijoaz. «Uitzi» muskurioka ibillia dute, ain bide luzea egiteko berandu omen dala-ta. Goiztarra izan gizagajoa, ta besteak oge-zulo uts...

Gu ere abia gera noizpait, Donostiruntz.

Etxeguren dalakoa ta Jausoro ditut atzean.

Etxeguren, gizon egiña da, ta, diotenez, lege-gizon azkarra: Euskal-erriatik ate bizi izaten omen, geienean. Arpegiz, sudur-kako, begi-bizi, okotz-zorrotza; oldez urduria ta alaia.

4. ARTIKULU LITERARIOAK



Olerkaria du aldamenean: aingeru azpildu-gabea. Arpegi gorritzta ta apaiz-jazki beltza, alkarrekin egon-bearraren bear gorriaz ditu lagun: baña lagunarte gordintxa dagie. Luzexka sudurra, goi-beez beintzat —musuaren araberata pitin bat zearka azia. Begi otخان parre-beraak ala diotzute, begiratzen zaitutenean: «Olerkari biozti bat nazu: orrenbestez esana dago eztedala «malizi» aundirik». Larre-larrean bizi dezu erretore, ta aren ginballak (kapelak) ere badio alako basaka-uxai ta igazkotu-kutxu bat: añera, gutxienik uste dezula, ez bat eta ez bi, lepezamarreruntz dijoakio.

Ateratzen baitu Mendiolak urtero euskel egutegi bat, arakoxe apaiz begi-urdiñak egin izaten dizka zenbait zizka-mizkai ta izkirimiri. Ordañez, Mendiolak eman izaten dio —gaur bezela— basotik ateko ega-alditxo baten abagunea.

Ibil-eguntxo auek arroagotzen dute txantxangorria eguraldi epelak baño. Badu ark etorria, alazainkoa, neurtitzez ainbatsu itz askatuz ere!... Or det atzean, itzari laga eziñik... Etxeguren enetxoa: entzun bear dituzu zereak eta bil!...

* * *

Zer zatozkit, «Uitzi» adiskide miña; zer, Homero, Anakreonte, Virgilio ta Ciceron buruan edukiagatik, bete-beteko euskaldun zaitugun ori?... Zer zatozkit, bai, oñak narras, izkutu-mizkutuka, bekokian beera ginbail-egala eratxirik, betaurreko-erantziak begiak lausotu ta izu-antz?

—Zer irizten nazu? —galdegin dit— Zure anaiaaren antzik badet?... Aterako ote degu gauz onik?

Nik, baietz; egoteko lasa...

Beobian ditugu alkar-izketok. Mugan gaude ez-arian ez-arian, bide-txoa egin baitegu... Orain, beribilleen ta gu geronen nora-agiriak erakutsi-bearra.

«Uitzi» badijoakit, Jainkoarren «iñori ez esateko» aginduz...

Nik eztizutet oraindano esan, baña «Uitzi» zintzo orrek nere anaia-aren nora-agiria darama, alkarren antzik bai-baitute, ur-tantoak ardoarena-aren ainbat... Ikusi degu, orde, zenbait bidexka arturik dala arranoa, muga-zaiak gezurpean atzeman eztezaten.

Erne!... «Uitzi» ta lagunak sartu dira berriro beribillean. Mugazaia badatorkie. Ni begi-uts...

Orraatik ere!... Jare dituk! Baziaztek...

Orain, gurekikoa ...

Auxe dek ederra! ... Nork esan bear zigun?...

Olerkari xoxokumeok... Egutegi-zortzi-illabeteen saria, agur!

Esku ikaraz luzatu dek agiria... Ta mugazaiak —begirakuri bakar bat aski— ezetz, eztekela aurrera egiterik: igazkoa dala... Egin dek arrituare-na, baña ez tajuz: gezurra oi eztekena ezagun... Bekañei eragin, bekokia zimurtu... Alperrik: beribilletik jexteko...

Zorigabea!... Uzteko, beingoa gora-beera; Prantzira bear gorrian aizela... Aita ditzak apaiz-jazkiak, ginbail jatorra beatzaz erakutsi... Bost axola; etzegok errukirik!...

Atera zak anka bat, eta... arren!; atera bestea, ta... otoi!... Begi gaxo-ak! Ezer eztat ikusi unkgarriagorik... Bustigabekorik ere ez, ain dirditsu...

Guk, etsitzeko; ikusi baitegu otseña eztala esanetik gibelatuko... Berak, ordea, ezin etsi.

Beribil berriak datoz. Mugazaia albora begira dan batean, apaizak esku dardartia atexkari egotzi: ginbail bulardetsuak, erabaki gorrien garaia eldu dalakoan, zutitu aurea lardenki bekoki-gañean, ta egal-atzea lepezamarreruntz etzin... Euskal-Erriatik Euskal-Herriarako zubian gera, onuzko burutik ... Ta Jausoro etsituak, oña berriro beribillean sartu-eske: «Lagunak! —otsegin digu— ekingo bagenio laisterka! ... ».

Gizagajoa!... Geronek bai, ekin bear izan genion ibilliari, ura gabe, iñola etsiko bazun...

Larrain gaziak gero, arratsean, zionez, arena omen zan abagunea, Esproncedaren *Etsigaitz*o itzala euskel neurtitz bikañetan iraultzeko!

* * *

Apaizaz arinduta, bagoaz Prantzia dalakoan barrena.

Bagoaz, baña ez luzaroan... Etxegurenek eginkai txiki bat egiteko bai omen bide-ertzari begira... Ta entzun izan baitiogu maiz Arregi mardulari: «Laguna *egin*-bear gorrian danean, lagun akiok; naiz eorrek *bearrik* ez, jarri adi beintzat sasira begira»; jetxi gera guziok, ta ustuan-antxean egonak gaituzu bide-ondoko ormaxkari begira...

Lanok amaitu ondoren, Jausororenaz geniarduala, Etxegurenek bera ere gezurrezko agiriz datorrela aitortu digu... Gizon politik gatxeudek, alajaña!... Ta ez nolanaiko gezurra, ibarluzearra bailizko nor-agiria (zedula) atera baitu... Larrainen laguntzaz...

Beraz, iru kristautxo ziran gure artean okerreko agiriez ornituak; eta oietarik, munduan oi bezela, errurik txikienekoa eror. Amaika lan eman-dakoak, erriak erdibitzeko arrasto oiek!...



Donibane-Loitzundik aurrera, erregebide aundia albora utzi ta beste mearrago bati lotu gatzaio: kaskar samarra bera.

Lurralde emea!... Mendixka bigun utsek bulartua... Guzia agiri da legun, lirain, guzia garbi, guzia... *tipi*... Errixkak, etxetxo apal polit banatuzkoak... Bizitzea, emen, zorion-uts bear dala uste; aizea berriz, beti epel, beti dirditsu...

Bitartean, Etxeguren *pillarmonika* txiki bat atera dizu, ta, arixe epañañak egotziz, asi da oska, biribilketa bizienak joaz.

Tarteka, ordea, geldi ta beera, sasiari ipuiak esatera... Maskuri txikagorik egundaño!... Gu aspertu gatzaio laguntzez, ta Arregiren arako aolkuaz gibelatu...

Lurralde atsegiña ondoren, ona, luzaro samarrean, beste bat, itun, bakarti, idorra... Orren arabera, bidea ere latzagotu, koskortsuagotu egin zaigu, ta aren kankatekoiez Etxegurenen larria ezta batere obekitu...

Gure ibilliaren azkenaldian, berriro leengo musker (berde) ezeak irten digu, bidera, ikus-mugarañoakoa pozgarriki jantziaz...

* * *

Orduak joanik dira poliki. Amabi t'erdia arte ez gera sartu Donapaleun. Kaleak utsik, otordua baita... Erri-zelaian orraatik arki ditugu morrosko eder batzuk. Euskeraz galdegin ta euskeraz erantzun, eman dizkigute bear berriek, Biltzarra-koen bazkaria *Trinquet*-ako jatetxean dala, ta bagoaz ara.

Ona berreun-bat bazkaldar bi mai luzeen alboetan jarrita, pelota-toki estalia zearo beterik. Badago an berriketa-ots ederra, erlauntz yoria iduri...

Arregi ta lagunak an dira, gu baño leentxeago sartuak, artean Jausororen ezbearra ezta kitelarik.

Etxeguren ta biok alkarrekin gera. Aurrean, Urruñako mutil ta agure batzuk, aruntzaxegoko ziberotarrei ezka ta baika, ea nortzuk ote euskaldun jatorrenak...

Goizean egiñak dituzte gogozko jaiak. Gu ordea beti, iñora garaiz iritxienean, soñezkora, sabel-jaiera; ta are ozta-ozta. Jan ezker, gañerakoak guxi axola... Meza, mintzoaldi xamurrez; batzarrea, aurtengo gorabeerez ta etorkizunerako asmoez, apainduak; euskaltzale zandu baten gorazarrez oroitz-arria agertzea... oiek guziak, zer? urdalla zerk berotua badegu?... Argatik zan, ba, goizean asarre «Uitzi»: oiek ez genitala-ta atzemango... Orrek, ala ere, ezta esan nai «Uitzi» jale bizkorra eztanik.

Dana dala, gaurkoak ezta onezkero zuzentzerik, bai? ta jan dezagun.

Jaki-agiria euskeraz poliki egiña dago. Orren arabera, leenengo eltze-kari saldatsa bat dakargute, barazki-puxka gozoez egiña; gero izokia arrautzolioki edo *maionesaz*; urrena idiki ona, ta, azkenik, indiollo bikaña erreta. Guzia alderdi artako ardoxka garratz batek bustia... Nik, gure Getari ta Zarautzeko txakolin orixka min!

Baña, ardoa bizienetakoa izan ez arren, labeak asi dira goritzen... Bai-baita lasabide bat —gure lotsagarritzat norbaitzuk etsia— euskaldunen otoruntzez gero ezinutsezkoa; eztauri ausartaenak ekin diote abesari, kantatzeari...

Artean, ordea, etzan orren garaia... Biltzar-buru-jaunak, guziek nekez ixillarazi-ta, mintzaldi labur bat egin digu... Anai auek esaera ere ezta dute ta egoki lotua... Agur gozoak guretzat, mugaz zear etorrientzat; gu, giputzok, ezezik, bazan an ale bat edo beste Bizkaia ta Naparroatik.

Orain bertsolariak. Bat aundi-musugorria, bestea txikia ta aurpegi-zimela... Jaten ari-tokietan zutitu, ta ekin diote. Aundiak berebiziko neurkin edo metro biguna darabil: noiz-nai luzatzen zaio bost zentimetroz, noiz-nai beste ainbestez moztu. Orretan zeatzagoa da bestea; baño Ziberoeraz ari, ta gure belarriak, ezpaita oitua, gutxi jasotzen du.

Urrena, abesak du berriro aldi... Bakarkako batzuk ere badira: oieta-rik bat, jakiña, gure Arregi egokia, abotsa pitzatzen asia badu ere... Urteak, enetxo!... «Andrea, maite zaitut...!» abestu digu. Mutilzaar tinko batek, zer egokiagorik?...

Gure anai auen artean, mugaz onuzko alderdiko euskaldunen eri berberari oar natzaio. Buru-jantzienak, jakitez ertenenak, euskeraz aal duten gutxien ari izaten dira, naiz jardun-gaia erreza izan... Gure etsaiak —olagintza edo industri larria, batez ere— balituzte, jarkiko al litzaiete gu baño biziagoki?

Bazkalondoan pillota-jokaldi bikain bat dago, alderdi ontan oi diranetakoa pillota-toki albo-zabalean. Uritar gañekoenak —neskatx apañak «barne»— dira ikusle sutsu.

Baña, berandutxo degu guk, eta bide luzeak egin-bearra. Onuntzakoan baño areago, Naparroan barrena —Baigorritik— itzultzea erabaki baitegu, gerekin, Jausoro zorigabearen tokian, beste apaiz jaun xalo agurgarri bat artuaz. Ez al da au ere olerkaria izango!...

* * *



Donibane-Garazi zeartu-berriak geralarik ikuskizunaren txoragariak geldiarazi egin gaitu. Esan berrrik eztago Etxegurenen maskuri urduriak, abagune oni eskar, artu bide duan lasa-aldia.

Ibar ametsezkoa, zenbait mendixkek biribilki esia... Iru margoz, poliki naasiak alegia, irudia osatzen da. Zelaien ta basaxkaen muskerra, emen argi, an urdintxa, or arre-antz; tellatuen gorri miña; etxeen zuri txuria. Alkarren auzo dira, atsegin-zulo artan, iru-lau bat urixka maitagarri. Ola-kebide bakar bat ez, ortziaren aratza, izerdizko, nekezko, oñazezko lurrun-gandor zikiñaz: lardazten...

Iñartzi (inbiri)... ta abia.

Baigorri mugazai euskaldun otxanak. Seirak —muga-ate ura itxigaraia— joak izan arren, Biltzarra-koen artetik gatzela esanda aurrera utzi digute. Alakoxe batzuk izan bazenitu aruntzean, Jausoro adiskidea!...

Iñularreko oxkiroa lagun atsegin degula, Izpegi mendatea bitarteko aldapa igo degu, astiro-astiro. Lukaika polita, zazpireun neurkin gora egin bear baitira...

Orain Naparroan gera. Obeto esan, aspaldi genbiltzan Naparroan barrena, mugaz beste alderditik ere Naparroa baita. Ikus, bestela, non-nai, etxe-aiziñetan naiz pillota-tokietan; ikus Naparroako kateak, arroki erakutsiak...

* * *

Illun-aski dala sartu gera Elizondon: artean etxetik urruti.

Leen ere adirazirik nagonez ezaigaituzo gogo-utsezko aparia degu amets, eta, ao batez, bertan artzea erabaki degu. Ibarluzera urrutizkiñez (telefonoz) ots egin-bearra, gaberdirarte ez gure usterik izateko; emaztearen —dutenak— ziri gordintxo batzuk ere entzun apalki, ta, orra arloa antola!...

Otordu atsegiña egin gendun orraatik ura!... Bikaña aparia, polita ardoa... Bazan an esan ta jolas-bearra!...

Ordun azaldu ziran gure arteko zaarpil guziak. «Uitzi»-k artu zun, leenbizikoz, astindu eder samarra.

Nik, aren berri nekian bakar onek, galdegin nion, biurriki:

—Ta?... «Uitzi»... goizekoa esango al degu, ba?...

Larri zan gizagajoa! Ukabilla estu-estu egiñaz:

—Jainkoak barka!... Ez gero!...

Gure mai-muturreko lagunak —Larrain eta Rekaldek:

—Zer, zer?... Jakin biar diagu ori...

Ta zirika nik, berriro; ta, berriro —jateari zearo uzteka, noski— «Uitzi»-k:

—Jainkoak barka!! Ez dezazula esan!!!...

Gezurra dirudi, latiñez ta griegoz jakin gizonak eta «tranpa» txiki bat aitortzeko ainbestetaraño lotsa.

Baña alperrik ibilli zan. Bein artara ezkeron ni ere enengoan ixiltzeko, ta aren urduriak gero ta axkureagotzen ginduzen guziok. Ta, astiro-astiro, itzez-itzez... orra jalki guzia...

Ura jolasa atera zuten artatik beste biak!... Polita zala jokoa, alegia!... Ea ura al zan bere burua agiriz, idaz-bidez, zintzo ta zuzentzat erakuska diardun kristauaren egitekoa?... Bazetorkela urrena ere zuertasuna, giza-bidea ta olakoak aipatu ta goستن: esango zutela berok, nornai ikaste-ko eraz ta tokian, gizaseme makur ura nolakoa zan larrugorrian ikusi ezkeron!...

Entzutekoa zan, ta parrez lerregin bearrekoa, ango aria. Larrain sudurruts betaurreko-aundi burusolla ta Rekalde betozko-illun bizar-bel-tza, patata erreba baño legorago biak, «Uitzi»-ri berebizikoak botatzen... Ta «Uitzi» gizagajoa, berrogei urtetik gorako gizaseme tinkoa, Homero ta Virgilio kolkoan sartuta darabiltzian gizona, estu ta larri, esku batean ogipuska ta bestean ollasko-izterra (ta agoan bietarik aski), bere burua gerizatu eziñik, neri erru guziak egotzi naiean, neronek alako egin bideetan sartu bai omen nun (egia zanez ...).

Eskarrak gerekin genduan apaizari. Oben artarik, eta aren antzeko guzietarik, bertan jaretzen ginduala esan baitzun; orduntxe «Uitzi»-ren gogape bildurbera asi zan baretzen, ta ekin zion jateari biziagoki, leen galdu astiaren ordañak nondik jasoko.

Beste gairik asko maxiatu zan. Aitatu zun norbaitek erderaz ta euskaldunen itsusiz ta kaltez idazten duan eusko gazte bat... Baita ere orretzaz «Uitzi»-k iñioz argitaratu iritzia. Izan ere, badirudi gure errian arrogarrizat artzekoa ote dan beste iñon lotsagarri litzakena... Berotu zan «Uitzi» bere aburu-alde, ta igerri zion alegia patarraren ontzixkak: ipurditik autsi baitzun, mai gañean ukaldika...

Berdunduxe giñalarik, eta naikoa jardunik, etxerako asmoa, damuz baderik, artu genizun, ta antxe azkendu zan gure eguna.

Gañerakoa, ezer gutxi. Ibilli, ibilli, ibilli; joan, joan, joan... Utzi degu nunbait apaiza; beste nunbait utzi gaitu «Uitzi»-k eta illunak irentsi du... Ozkiro gazia, gau beltza, izar-mordo aundia... Nekea..., asperra, ogemiña...

* * *



Egun bat geiago... Egin al degu zerbait Euskalerrriaren ederragatik?...
Ez asko, benetan. Baña, bada zerbait anai erdi-ezagunenganako elkarbi-
dea, urrats bakar batez baderik, laburtua...

Euzkadi, 1929-12-22 / 1929-12-25

ANDEREÑO «IZARDI»

Orain egun gutxi igaro da Donostian barrena *Miss España*,
Españiako erregiña; obeto esan, Españiako eder-batzaldian erregin auke-
ratua. Dana dala, ainbeste txotxolokume lerdea zeriela euki ditu begira,
neskatxa polit bat amar urtez bein baño ikusiko ezpalute bezela.

Eder-batzaldiok oso ditugu gure gizaldi onen gogarako. Orregatik
gaur dan egunean, bear-bearrezko deritzogu Eder-Batzaldi bat zer dan
jakiteari. Gizon berriak, gure aldiko gizonak gera, bai ala ez?

Iñor, ba, Eder-Batzaldi bati dagozkion zer-nolak zeatz eta garbi
eztakitzianik, Euskal-Erriako bazterren batean balego, ez-jakite negarga-
rri ortaz jare daragike bere burua, guk orain emango diogun berri labur
onen bidez.

Esate baterako, badezu erri bat: *Ibaibeltz*, egintzagun. Ba, ezer baño
leenago, Ibaibeltzeko neskarik ederrena aukera bear dezu. Garbiago:
eder-batzaldi-zaleen artean ederrena. Gerta baiditake egitazko ederrenak
orrelako kopletan sartu nai-eza.

Aukeratu dezute ongi, ibaibeltzarrok?... Nor?... «Ipurterre»-neko
Melitona?... Bejon deizutela. Ba, Melitona dezute, aurtengoz, *Miss
Ibaibeltz*. Ea zer dan *Miss*?... Katu-kontua dirudian arren, *Miss* da, ingele-
raz (ingelesez) gaztelerazko *señorita*: euskeraz *andereño*.

Or dezute, bada, Andereño Ibaibeltz. Zorionekoak zerate. Ez geie-
gi estutu zuen Melitona ori zazkel, tximaluze, galtzerdi-jario bat bada.
Oiek guziak akats larriak lituzke, oraindik ere «Ipurterre»-neko Melitona
balitz. Baña, orain, enetxoak, *Miss Ibaibeltz* da; ta dijoaken tokietan
guziek eder ta egoki iritziko diote. Arrisku-arriskuan da, egon ere, bere-
biziko ezkontza aukeraren batek ez ote dion bidera ertengo.

Ibaibeltzen bezela, beste erri aurrera-zale, beren buruak ezertzat
dituzten zenbaitetan, berdin jokaturik dira. Baditugu bereala *Miss Zerain*,
Miss Gabiria, *Miss Aizarnazabal*, *Miss Astigarreta*, ta abar.

Oien artetik autuko da, urrena, Andereño Gipuzkoa. Jo mail bat
gorago, ta *Miss España*. Beste bat: *Miss Europa*...

Bitartean, esan bearrik eztago, neskatx oiek guziak —beren buruei
indar aundia egiñez, egia— baña... bearkunak eta urrutiago obe!

Baña arazoa ezta orrenbestez agortu.

Orain artean, tira, tajuz-antxean dijoaz gauzak. Geroago dator, nere
iritziz, joan-etorri oien guzien beaztoparik larriena.



Nonnaiko erbesteetan, alegia, bai-baitira alaba bikañak; orra, Miss Europaren mallean non ditugun. sortuak *Miss Asia*, *Miss Amerika*, ta gañontzekoak.

Ta orain dator beltza.

Oien artetik bereizten dute, ta zuzenki bereiz, munduko ederrenetarik ederrena. Baña, eztiote izena ipintzen: Miss Ludi, edo Miss Mundu. Ez, jauna. —Ona zer deritzaten: *Miss Universo*!

Universo zer dan diozu?... Ba, mundu edo izar guzien batza. Beraz, *Miss Universo* euskeraz esanenean, oneratsu dator: Andereño Izardi.

Zer?... Txarki al dago?... Eztet uste iñori esateko ainbe ausarta izango danik. Gañera, guk gure alderditxoak baditugu izen orreri ezin obea irizteko. Askoez esaten baitute: «izardi patsetan natxegok», «izardi ederrak eragin nizkitxioan zerri ez bestelako ari»: «izerdi» esan bearrean... Oiei, naita-naiez iruditu bear zaiote andereño orrek besapeko kirats miñetik dakarrela izena. Ta guk, berriz, agiñak ere salduko, eder-batzaldiak parregarri uztearren!

Baña, leengora gatzela. Bidegabekeri aundia da ori. Beste zenbait izar omengarri bada zeru zabalean: ango jendeek zer esan bear dute?... Izar-arteko elkarbideak asmatutakoan —ta ori ere badator aurki— ez al gera amaika eraso gorri ikusi-bearrak gure arroxkeriok bide dirala?...

Esate baterako: guziok dakizutenez, Marten emakumeak badira. Begibakarrak berak, sudurgabeak eta are geixeago ere: zankoetako mamiak, emengoen eraz atzeko aldera bilduta euki bearrean, askoz ere tajuzago, belaunetan dizkizute itsatsiak. Nabari da nolaka orrek lekartzien alderdi onak, batez ere belauniko luzaroan egon bear dutenei.

Aiek ere emakumezko bai-baitira, naiz gorago aitaturako eder-alderdiak gure iritzirako oso bikañak ez izan, berdin gertatzen zaie aiei generai buruz, ta uste dute berak bezin ederrik Artizar (Venus)-en ere eztirala. Zoazkie, bana, orrako oiei gure Miss Izarditxoekin!

Ala gertatu ere egin bear zun —adiskide *espiritista* baten bidez dakit— gertatu dana: Martetar guziek guri iseka ta parra egitea... Ludiko neskari ederrenari, gure Andereño Izardiri, badakizu, irakurle, nola esaten dioten an, are umezai xoxokumeenak ere?...

Miss Artobero!!

Olakoak gertatzen zaizkigu mundutarrei, gauzei neurria artzen ezta-kigulako!...

(Jarraituko da, gogorik bada).

Euzkadi, 1930-03-15

ETXE-BARNE BIZIA (I)

Aspaldikoa!...: irea oraintxe jasotzea egin diat. Ez dakik nolako pozez irakurri dedan. Izan ere, sei urte elkar ikusi gabe... Baña, oraingoan baator, ta osoko etortzea izango al dek!

Emaztea ta guziok onik gaudela esatea atsegin zaidak. Nere kokkorak ezagutzen ez ditukela-ta, aien argazki (erreturatu) bat eskatzen didak. Ni ortan, orde, zabar samarra nauk, eta erretratuz, etxeon, ez gatxeok orrein ornituak. Baña, dana dala, eure begiz nexka-mutikook ezagutu bitarteko, neronek egingo diat, nere eskuz, argazki... ta, ia *zine* ere esateko natxegok: «etxe-barne bizi» bat egingo diat, erderaz *bodegón viviente* esango bagenduke bezela. Bart arratseko ordu-erditxo bat *dibujatuko* diat, eta, artara, alde-aldera antz-emango diok aurrak nolakoak ditudan: beste non-naikoen antzekoak.

* * *

Atarian illun, ta leioan txingor ttuntun-otsa diranean, goxoa oi dek etxeko sutondoa. Ala bart, gurean. Ta, etxebarrutik aur-zarata badabil, areago: ordun, adiskide, suaren garrek argiago ziruditek; dardara gjarra-goz ibilli zebiltzak, goia miaztu-bearka... I mutilzar gogortua ago, ta ez bide dek azken ori sinisten. Erruki aut, gizona! Etzak parrerik egin...

Baña, itxon orain: dagoarteko begi-aurrean diagu nere mutiko zaarrena. Bost-bat urte dizkik. Alki batera igo, egutegiari eguna kendu, ta bazetorkidak. Galderaz josiko natxiok...: ea an zer jartzen duan; ea zergatik ura jartzen duan; ea zertarako jarri duan ura, ura jarri duanak; ea urren-go eguna igandea dan, ta ea zergatik igande ta ez ostiral; ea zenbat lo egin-da sartuko dan Orrilla —Maiatzari ala esaten ziotek orain... Jakiña, azkenerako, zakurraren ipurdira biala bear izan diat.

Ez dek samurtu. Etxean barrena an ziak orain, Tolosako iñauterietako jo-aldi zoro aietarik bat joaz: *Tún-pa tún-pa tún*, *tarápatatún*, *tarápata túun-pa...* eta abar: badakik zein esaten dedan. Alako zalaparta ezpaitiat eramangarri, berriro oju egin bear izan ziot, ixiltzeko. Luzaroko ez, noski.

Nondibait dabillen bitartean, ikusak bigarrena. Mutikoa, au ere. Arako muxugorri begibeltz ura dek. Begira akiok: aurpegi biribiltxoan, bi kilker diruditelaz zeuzkak begiak, kantari. Au barexeagoa dek bestea baño, zalaparta gutxiagokoa. Bere buruaz jolasten bazekik, eta ez dik ori jakite



makala. Arkatz aundi bat —*lapitzari* esaten ziotek arkatza— eskuan —eta aoan ere maiz—, ingia (papera) lur-gañean zabal, marrezka ziarduk. (*Dibujatzen*, alegia: ik euskera berria egoskaitza dek-eta, argatik argibideok... O!, atsegin zeok umeokin, euskel ikastolara dabiltzanez gero!...). Baña, ara: oraintxe zutitu dek gure *dibujantea*: ttartartoxa izanagatik, erroren biurri-antxak eta ibilkeria aundizkoak alako gizon-tankera parregarria ematen ziotek. Tottel-mottelko mintzoz, ingia eskuan dakardala, ala zio: *Aita! Dixona iratzi ret. antat e baritu!*...

Ori esanda, berriro bere txokora joan dek, «dixon asto iraztera». (Idatzi, zerari... *eskribitzeari* esaten ziotek).

Baña, ontan, emen zetorrek, ixilka, zaarrena, biurrikeri berriren bat asmatuta. Tiragoma eskuan dula, *dixon*-egilleari ogi-mami bildu bat kazkora irauzi nai litxiokek. Bearrik garaiz iritxi nauk, eta, kazkarreko bat emanaz, or biali diat berriz ere etxe-zear.

Ikusi bezela, mutiko ttentte, xurigorri, piña diat; begiak, aundi, gozo, pakezkoak dizkik: arkume otxanarenak bezain... Baña, itxuraz-bestez, eziñegon urduria dik. Aren aldamenean, iñor etzegokek geldirik.

Baña, ixo, gazteok: oraintxe zetorrek-eta, sukaldetik igesean, danetan biurriena: nexka, alabearrez... (*Porkuantobás*, esango ukek ik). Ikusak orain, atean: begi-aundi, xudur-piporta, gaixto-irri: emezortzi urtez lanak eman-go ote dituan ziotek. Ipurdi-gorri zetorrek, oi bezela, arentzako ainbat pixa-oial sortzerik ezpaitago kristau-etxeetan. Bazetorkidak, eta berriketa luze bat egin zidak. Ik jaso al diok? Nik ere ez. Esperanto-modu bat asmatua dik, iñork ulertu ez dezaion, eta arekin aritzen dek. Bereala, eldu zidak eskuko beatz lodia, nagon alkitik *derriorrean* jaiki-arazi, ta an naramatxik zuzen-zuzenean «berak dakian xoko batera...» Gozo-ontzitik azukre-koxkor bat atera ta eman izan ez banio, aundia gerta zitekekan gure etxean!... Arrapatzen nauen bakoitzeko eginbearra diat ori. Badakik, mutilletan ere neskatxa gazteentzako bigunbera samarra nindukan...

Azkenik, seaskan esna, guzion jardun ta ots arteon, beti parre-antxa, beti jaramon eske, beti larde-jario, ta beti titirako pronto or zegok apurtxoena; gure begi-alai buru-zuri txikia: urte-erdi doi-doi betetako gizon-txoa

* * *

Ontan, emen diagu berriro zaarrena; berak egindako mozorroa arpegiari txistuz itsatsita, buruan ingizko ginbail aundi bat dula. Esan diat: bere txotxolo arpegi ta guzi, au etxean dagon arte pakerik ez dagola.

Ez-uste batean, or zijoakiok baxterrean «dixonak irazten» ari uanari. Jotzen dik besoan, beraizik, eta, jakiña, «dixon» berri egiñerdiari «anta» samurtu. Samurtu zaiok ertilaria ere, ta asi dek karraxika, estea sabeletik zintzilika bailerion. Or naasi dituk biak, ukabilka. Alderik-alde, elkarren eskeka ta elkarri eskainka egiñalean dabiltzala, jo ta ankaz gora bota ditek nexka gaxoa; ta, txikiaren seaska are iraultze-arrenean jarriaz, etxe osoa bete ditek marruz, iskanbillez ta dunbateko gaitzez.

Eskuak eta ipurdiak, elkarrekikoan, oi duten ots berezia ere aguro asi uan, ala bear ere; ta maiz samarka, arranoak ez badu; ta nekez bederik, noizpaitean, batzu erdi-errenka ta bestetzu oso narrazka, zuzendu nizkian danak sukalderuntz.

Oeratu ziranean, orratik, gure pakea!... Josapat-zelaiean epai-ondorengo zirudiken. Aterruna ari gogoa atxikita, leen-erauntsiaren oroitzez artean aundiok ere ixilik geundela, su-garren gorabear kizkurrari begiak josita, nere buruari ala nitxion: —Ta, alaz guziaz ere koxkor oiek beñere ez azitzea nai nitek! Nere esku balego, gurasoak zaartu arren, oiei gaurkoxe *tamañan* eutsi nai nitxiokekek...

Bazekiat —ez esan— buruan zer ari dekan. Erobe darabillik gogoa: ura gizonaren burutsua, ez?... Ongi ezagutzen al aut?... Baña, iñoiz aurrik izateko jaioa baaiz, Erobe gorroto izango dek. Gogoan artu.

Agur, agur, adiskide. Beldur nauk zaartzen asia ote naizen... Aitontasunaren xamurra ote zebilkidak barruan, aldiz-aurretik?

Aurki arte. Emazteak-eta, goraintzi miñak. Bidaldi on ta osasun obe, Jaunak!

Argia, 1932-06-17



ETXE-BARNE BIZIA (II)

Españi-legebatzarra nere begipean

Etxe-barne bizi bat dut au ere. Nere bigarrena. Oraintxe digart etxe-barne bizi edo «bodegón viviente» diralako onetaz, elerti-sail jolasgarria egin ditekela. Baña au ez duk gure etxea; orko txontxongilloak ez dituk nere aur gaxoak. Beraz, itzalez begiratze' al ziotet, itzak eta irriantxa xe-xee neurturik.

Enintzan egundaño sartu Españiko legebatzartokian. Leizaola arpe-tarrari zor diot sarbide baten jabe egiña. Jainko onak ordainduko al dio.

Egia esan, goitik beera begiratuta, areto onek ez dirudi izparringietan barrena bezain ikaragarri. Ia-ia, beera joateko ausardia ere badamada.

Utsik dago oraindik. Aulki gorri oietan atze-aldeak atsegin dukela deritzait. Bai begiak ere, nik emendik goitik —irugarren lerroan bainago— dezakedana baño ikusala zabalagorik. Arraioa, aulki urdiña ezin ikusi dezaket noizpeinka altxata ez bada. Jaurlariei, beraz, ezin begi-eman datozkenean— atzez-aurreka baizik. Azañaren ortz ederrak aurrez aurre ikusteko irrikitzen nengoan an!

Laurak. Asi-garaia. Lendakari-aulki-atzean lau ate-morro, soinetzak urrez anitz apaindurik. Baña, orra Lendakaria bera ere, Besteiro jauna, alegia: soinkera neke-antx pinpirinaz, badator aulkira. Nik, begiak ezo-dirdaika begiratzen diot: *Lojikan silojismo* bat askatzen ez nekielarik, orain zenbait urte, *sobresaliente* eman zidan ezkerotzik, xamurbera natzaio.

Aldunak bakarka ta nekez: datoz, txita aseak ore-ondakiñetara bezela. Zortzi-bat-amar bildu diraneko, Royo Vilanova bizar-zuria degu zutik, itzaren jabe. Auxen agurearen aserrekoa! Zaragozako ikastetxe nagusian barrabaskeriren bat egin dulakoa zabaldu omen zuten atzo, ta ori ez omen da gizalegea. Aizeari beintzat, astiñaldi ederrak eman dizkio.

Gero, lekaro gorri artan, gaxte iztun bat jaiki da Ameriketara erderazko idaztirik ezin sal ditekela dio, paperginak ase-ezin batzu omen dirata. Tolosako lagunak gogoratu zaizkit bereala, ta erruki ditut. Baña, Carner-ek erantzun dio, nere lagunen alde. Itza labor-ebakia du jaun orrek, eta burua muñez ornia, dirudienez.

Bakarka-bakarka, txindurriak txindurritegi-bidean bezelatsu, baña ez ain arazotuak, badatuz aldun geiago.

Bata bestearen atzetik jaikitzen dira olako ta alako, nork-bere eskariak egiñaz. Lendakariak beti legun erantzuten die. Nik uste, eskari oien

etorkia ta auntzaren gauerdiko eztula or nonbait ote diran. Baña mintzariariak, bereak eta bost irauli ondoren, pozik esertzen dira, ta, uts egin gabe, bereala atarira dijoaz, inguru-ibilbideetan barna iñork zorionik esaten al dioten.

Bitartean, aldunak ugariago datoz, norbere tokia betetzera. Ni erne nago, ezagunei gogozko begi-keñu bat egiteko zaletuta. Izan ere, bizi guzik atsegiñik aundienetakoa dut auxe: irrimar-utsez (karikatuz) dazauzkidan gizon ospetsuak, ezur-mamitan ikustea. Ordun, barruak jauzi pozkor bat egiten dit, eta ezagun-berriari, nereko, itz maitekor zenbait zuzentzen dizkiot: «Kaxo, gizontxo! Zu ziñan, beraz? Onik zaude. Bejondeizula». Eta, aldameneko lagunekin berriketan asten bada, aotik, itzak-ezik, ontzako urre gorriak jalkitzen ari dala dirudit. Eta, jakiña: txoraturik nagokio begira.

Besteiz beste, ezur-mamiz ezagutzen nuenik, Aldasoro tolosarra, ozta-ozta. Beti bezelako mutiko ederra dago. Etzaio aaztutzen noizean bein goialde-aurreretara begiratzea, emakumeak baitira an nagusi. Besteiroren ezkeraldetik jarri da.

Baña, leen esan bezela, ezagunberri zenbait egiten ari naiz. Antxe dago Maura, aurpegi-luze beltza. Zuzentzakikoaren senargai guri Ossorio-rekin berriketa bizian ari da. Ez urrun, «gure» Unamuno ere. Agure orrek badik, orratik, puskaterako osasuna; oldozbearrak ez al dik gizona asko galtzen. Ille-bizar txurien esi-barnean, aurpegi-azala ia aulkien lotsagarri azaltzen du. Txantxangorri kantari Melquiades da, nonbait, araxeagoko ura. Marañoñ ospetsua, urrengoa. «On» Alejandro ere —zer esan ez dakienean ixilik egoten dan gizon garaia— oraintxe eseri da zabal-zabal, sudurra aurpegi-erdian zuzen, surpekoa ezpañen babesgarri. An dator Campoamor andereñoa. Or, apaiz lodikote bat: irrimarrez ezaguna det, baña izena aaztu. Urrena, Nelken andereño liraña (zerbait esan bear emakumezkoari, polita ez danean); mutiko argal betaurreko-beltz bat belarri-ertzer a itz goxoak esaten ari zaizkiola dirudi. Begira Xanti Alba ere: etzian Primo gizagaxoak asko uste aulki oiek berriro berotu bear ituanik.

Arpetarrak uts egin digute gaur. Geienak, Aberri-miñak ikututa, aldegiñak dira, or beeruntz. Begira Horn gizagaxoa, bakar-bakarrik, moko-luxe, erromazale otzan bati dagokion eratasunez, Galan-en ereño-kieren azpi-azpian. Orko jainkoti bakarrek toki ortan balekuste, orratik!

Bazterretxearen xudurpeko Charlotiarra ere, ta aren buru xolla ta begi beltz biziak, giza-ardatz muturrean, or dakustaz, Batzorde-lagun artean, batetik bestera.



Baña, ixo! Nik ezagun-berrikoak egin bitarte, eskari-galdera salla agortu da, Jaunari eskerrak.

Ordun Besteirok itz ernegarriok jalki ditu: «Ortega Gasset Joseba jaunak du aldi».

Baña, oni badagokio arlo berexia.

(Azkenduko.)

Madrid 1932-Orrilla-13'g

* * *

Leengoan esan bezela, Besteirok itz esnarazgarriok jalki ditu: «Ortega Gasset Joseba jaunak aldi».

Gizontxo bat zutitu da, Unamuno ta Maura tartean. Arraioa!, onixe ez nitxion bada, nik begi-eman. Ta bera dek, orratik: gogai-eltze aundixkoa atze-samarretik ille orraztuz ebakia, bekain-Ierroa aldero-antxa, itsusi aurpegiz, elez eder.

Esertokian, atsegiñez, ipurdi-kabia sakontxeagotu det. «Ez diat zorion makala», diot nereko.

Ordu bete t´erdian aritu da. Unamunok noizean bein botatzen zien alako begirakun bixi bat, esan nai balio bezela: «Ez, konpañeo: nik ez nian orrela esango; nere aldean mutil-koxkor bat aiz!».

Urrengo egunean, Madrideo izparringi batek ala zion: «Beti bezela, orain ere, buruz ezer dezateken gizonak, gaztelarrak: Sanchez Roman, Ortega Gasset...». Bereala, Unamunoren begi bixiak berritu zitzaizkidan.

Tajuz itz egitea korapilloak askatzeko aski balitz! Baña, besteri poza ta aurpegi alaia eskatzen dizkion gizon orrek, Catalunya arloa goibelki, illeta-eresiz, aurkeztu digu. Erabat zuzengarria ez omen da, alegia; min-sorrez eraman bearra baizik. Catalunya erri nai-ta-ezin (I9) bat omen da: betidanik eta mendeen ondarreraño gora-bearraren oñaze bizia berekin ibilliko duna.

Erri aundien eta txikien abertzaletasuna ez omen dira gauza bera; iturburu batetikoak bai, alegia; baña, aundiena eraikitzailea, bestea ondagarria: batak gora begiratzen, besteak beera.

Asmakunde polita, benetan.

Cataluñatarrek beren buruak ez omen ditute españitarren anaitzako; argatik korapillo ura ezin-askatua; argatik estatutoaren muin izkutua askatasun-asmoa izatea. Baña, bereala berriz, cataluñatarrik geienak muin ori nai ez dutela esan digu.

Catalunya osoak ala nai izanda ere ordea, zer? (Ortega ari da). Aiek gu ez maite, baña guk anaitzat baditugu, zuzena al litzake, gu geiago izanik, gure nai ori ez nagusitzea?... aiek anai ez ditugula epaitzea?... Ori ere ez dago gaizki esana.

Baña, dana dala, zerbait eman bear zaiela aitortu du. Buru-jabetza apurrik gabe, aldika-aldika, besterik eziñak eska-ala, zenbait eginbide utzi bear omen zaizka.

Orratik, irakaskintzakoan onetsi zabala egin du: bada zerbait. Españak Catalunyan ezer gutxi egin omen du —zer esango guk!—; Barcelona añako uri batean, Cuencan ala Sorian bezelaxe, «Instituto» bakarra, Doitxerrian berrogei ta France-n amalau legozkiolarik. Ta irakaskintzari buruz bezela, gañontzeko gaietaz esan omen liteke.

Luzexko egin duan arren, guziok ixilik entzun diogu. Azken-aldera, txalo anitz; mintza-bitartean batere ez: guziek erne, baña iñor ez da berotu.

Campalans cataluñatar sozialista jaiki da urrena, estatuto alde. Ele-eder aren ondolik itz-egin bearra ez da lan atsegiña, ta, egia aitortu bear badet, gizagaxoak, lasai samarra dirudian arren, izerdi ederrak bota ditu; aria nondik-nora zerabilkien, berak ere nekez al zekian. Eseri danean ez da aserre.

Lendakari-maiaren aurretik itzegi bat dago, ta, tarteka, ministroek, idazkariak eta, ara igotzen dituzu, ta idazki garrantzitsu batzuk irakurtzen diardute. Atariko aizeari baño jaramon geiago ez die iñork egiten. Egin nai liekenak ere, alperreko lana luke belarriak arrotzea, ango marmariotsaz ezpaitago ezer entzuterik.

Estatutoa, berrero. Batzordearen izenean Bello-k azalpen batzuk egin ondoren, Abadal Lliga-koak itz-egin du. Jatorki samar, ala ere. Aguretxo bat da, oso begikoa. Ingixka batzuei gaibidea nozik-beinka eskatuz, or ari degu neke aundirik gabe.

Ortega-Gasseten eta Sanchez Romanen asmakizunak poliki-poliki autsi ditu, eskuan Españiako Lege Nagusia artu-utsarekin. Ez-arian bezela, orretzek bota ditu gaur arratsaldeko errazoirik mardulenak.

Beste gauza askoen artean, Ortegari onelakoak esan dizkio: «Orain zenbait urte guk, Lliga-koak bakarrik, autonomia eskatzen gendunean, gutxi giñala erantzuten zeniguten: Catalunya ez giñala gu. Pixkanaka, ango alderdi guziak abertzaletu dira, ta orain emen gaude guziak, cataluñatar aldun oro, bat-eginda, leengoa bera eskatuz. Ori gutxi dalarik, erri-iritzia nai zenduten, eta egin da: Catalunya osoak estatutoaren alde autarkia bota du... Eta zuek, antziñean bezela, gu ez gerala Catalunya, diozute:



geienak ez daudela, Catalunyan ere, gure alde. Zer bear dezute bada?... Zeok egindako Konstituzioa etzazute ukatu, bai, ta aski degu».

* * *

Zuk ere aski dezu onezkero, irakurle. Ta Besteirok, guzoi atsegin ematearren, yoaleaz batzarra azkendu du.

Lau ordu t´erdiko egonaldi ederra egiñik nago, ta utziko al didazute kaña batzu artzera joaten.

Ta orain Erkalaren babesgarri-legea ez al didate ezarriko, legegin begiragarriok nik ikusi bezelaxe antzeztu ditudala-ta.

Madridetik 1932-Orrilla-13-g

Euzkadi, 1932-05-18 / 1932-05-24

TXINDURRIAK

Leen Itzak

Euskeraren landu-bearra ain da aundia, ezpaitugu arkitzen, maiz, arrunt samarreko salletan ere, gere mintzoz zeazki dazalkegunik.

Euskera zernaitara, apurka, bigundu dedin, bada guziok ibil bear genduken ta bakar batzuk dabilten bide bat. Erderazko idaztirik irakurri dugunean, aren mamia erakus genezake euskeraz. Ez itzez-itiz emana, baña bai, eragaitzaren inguruka gabe, ta gaiari aurrez aurre begiraturik, labur eta doiki adirazia.

Gai orok ditute esanbear berexiak; gai oro da, bere neurritz, erabilgaitza, iñork aurretik urratu ez badu. Argatik eman dit gogoak, txindurrieri buruz Maeterlinck Maurizi-k pantzeraz idatzia, nik emen jalkitzea, leen esandako taiuz.

Elburuari gagozkiola, ez dut uste gaia —berez ala iduri arren— orri auei ez dagokionik.

Maeterlinck Maurizi

Beljkar elertilari aipatua. Olerkiek, eta areago antzerkiek, ots aundia emana.

Lan oietaz bazter, izadia aztertu-zale izanik, zenbait xomorroen biziera ta goraberak idatzi ditu. Gertantzo (*neol.*) edo *novela* bezain atsegiñez irakurri ditezke: gaia jakingarri baitute, ta ebakera berriz gain-gaño-koa.

Erleen, txindurtzuriaren (*neol.* = *termite*) ta txindurrien berri emana du, idazti banatan.

Esan bezela, txindurriekikoa dut nik orain begien aurrean, ta neronek pantzeraz irakur ala, zueri euskeraz adirazi nai nizuteke. Ikus dezagun, alegia —euskera landuz bidenabar— Jainkoaren egintza zenbateraño dan arrigarri, are izaki apurrenekiko ere.

Orrela, euskera biguntzen ari orde, Maeterlinckek berak baño zitu oberik dakarkegu. Ura Jainkoaren lanaz bai-baita arritzen, ta ederresten



baitu; baña ez aitortu nai Egillea. Biziaren eta geroaren izkutuak urduri darabil, besterik erakutsi nai balu ere.

Txindurrieri Buruzko Jakingarrienak

Orok dazauzkigun txindurriez sei milla mota ditute dagoaneko bere-xi jakintsuek. Aurreragoan, agian, beste ainbeste banatu litezke.

Ludiko xomorrotarik lagunarte-zaleenak, txindurriak eta txindurtzuriak dira. Oso lagunekikoak erleak dirala uste izaten degu; baña, amar milla enda artetik, ozta bosteun dira lagun-zale; txindurrietan eta txindurtzurietan berriz, enda bat ere ez da arkitzen bakar-zale danik.

Txindurtzuriak lurralde beroetan ez besteetan diran bezela, txindurriak, goi gorrietara ta ludi-kazko izoztuetara izan ezik, noranai edatuak ditugu.

* * *

Ikus, orain, txindurritegiko biztanleen bereixkunea.

Talde bat: erregiñak. Au da, eme ernalgarriak. Amabi-bat urtez bizi izaten dira.

Bigarren taldea: langilleak. Ez ar ez eme; zenbatu ezin alako mordo-ka. Oien bizia, iru-bat-lau urtekoa.

Azken taldea: eundaka batzu ar, bost-bai-sei astebezez gero ostendubarrak. Xomorrotegietan ori oi da legea: ernarigoaz gero arrak alper dira, beren eginbear bakarra bete baitute.

Soilki, arr-emeok izaten ditute egoak, baña eztei-ondoa burutu arteko: gero, atera egiten ditute. Gure ezkonberrien bidaldi-soñekoa iduri.

Erleek eta txindurtzuriak erregin edo ama bakarra oi dute; txindurritegian, berriz, lagunarteak bear ainbat errule dira. Txindurritegi urrietan, bizpairu aski. Ugarietan, berrogeitamarreraño ere. Ta txindurritegi elkartuetan ez da lege jakiñik.

Esango litzake txindurritegiak izkutuan aginte-batzarren bat ote duan, ta aren erabakipean ote dabillen ango gorabera oro. Arrigarria baita ango eragoa (orden). Txindurriek soin bakar baten xatiak bailiran diardute. Elkar-kabi aundietan, esate baterako, langilleek nolatan antzematen diote, lagunarte ari zenbatzu eme dagozkion?...

Ukutu-izkutuko arrigarria dugu ori, Jainkoaren eskutiko beste zenbait bezela.

* * *

Badakusagu, beraz, txindurritegian, oro-lege bearkor bat: nork eta nola adierazia dan ez agertu arrea, aren indarrak daragio txindurri-erri osoari. Baña, lege orren ertzeka, txindurri bakoitzak baduke berezko ari-menik zerbait. Gizadian bezela, an ere badute nork-bere aalmentxoak, nork-bere eginbideen aukeramena.

Askotan ikusten degu txindurria, gauzen abagunez ta egokieraz berez oartzen. Or arki ditu, esate baterako, belar-ixpi batzu, alabearrez txabolatxo edo mandio dalako bat gertutzeko elkar-egokituak. Abagune ura atzeman ala, asten zaizu lanean, bera bakarrik. Ondar-aleak jaso ta antzetsu ditu ipintzen, ixpien tarteak beteaz. Aren asmoa ikusgarri biurtu danez gero, lagunuen batzu ere oartzen zazkio, ta badatozkio laguntzera. Ta bakar batek asmatutako etxagintza ura zenbaiten artean burutzen dizute. Badirudi, lenengo txindurria oarmenez, asmamenez ta ekimenez orma ote zan, gizakiok bezelatsu.

Are obeto dakuskezu ori, kabia bertan-bera uztekoan. Batez ere, enda nastuekiko kabietan. Argibidez: *Glebari* deritzenak *Amazona* direlakoan ethezai oi dituzu. Barne-lantxoetan diardute, nagusiek guda-arazoa erabilli bitartean. Eguna joan eguna etorri, etxea txikitxo edo ez bear bezelako, iduri zaiote: morroiei, noski, iduri, nagusiek ezpaitakite zer oien berri; erasorako ta burrukarako izan ezik, aundiki zabarrak dira aiek. Beñola, bada, morroi aietarik batek, auzo aldean, beste tokirik idoro du, txindurritegi utsa bear bada. Berena baño erosoagotzat edo lasagotzat jotzen badu, bereala, adar-ixpiak erabilliz, arkikundearen berri beste bizpairu lankideei demaie. An darakartzi, erdi-atoian, toki berriraño, ta erakusten die. Guziek obetsirik, or dijoaz irizkide geiago biltzera. Azkenerrako, erdibez (neol. = *minoriz*) bear bada, baña erdibe azkar ekikor baten kemenez —alatsu gizartean ere, maiz— leengo etxea ustutzea erabakitzen da, ta txindurtza osoak uzten du, berrira etorriaz. Orra orain, nagusi gudazale aundikiak ethez-aldatu bearra. Iritzia eskatzen al diete?... Ez, agian. Nagusi aundiketarik bana, morroiek artu, ta etxe berrira dakazte. An uzten ditute atarian. Beste morroi batzuk arrera egin, ta etxe-barruko itzul-inguruetan zear zuzentzen ditute. Ta orren urrena dator, arrautzen, umetxeen (neol. = *larva*) eta birrumeen (neol. = *ninfá*) etxe-aldatzea.



Izaten dira, aldizka, buruz-buruko iritziak ere: talde bat aldazale, geldizale bestea. Ordun, geldizaleek aldazaleei ezezkoa adierazten diete. Baita ere, gerta oi da, inoiz, etxe berrira aldatutako txindurtza, ezin-etsiz, edo leengoaren miñez, bertan-bera sallean zaarrera itzultzea.

Beraz, badirudi, lege bearkor ark jaregunerik uzten diela txindurrien naimen eta elkar-itumenari. Badirudi, maiz, txindurria gu bezelaxe, sen itsuari ala bere asmamenari, zeri jarraiko, artega ta zalantza ote dabillen.

Noiznai dakusaguz, asmamenez ta oarmenez azkarrago dituen lagunen ikasbideari jarraika. Bizkorrago oiek ez dute ezeren ezaugarririk; ikusgarritz ez dira berexiak. Alaz guziaz ere, argi ageri da azkarragotzat aitortzen eta ezagutzen dituela, ta aien aolkuek eta egiñek beste lagunen iritzian jaso aundia dutela.

Beraz, sena lege nagusi dutelarik, bakarkako asmo berexiak ere, badu, txindurri artean bere zeregiña.

Txindurritegiko batasun-eratasun ederrok, zer dute, oñarri? Elkar-maitasuna. Baña, maitasun garbia, gordinkeri ta lizunkeri gabea. Aurrerago ikusten aal dugunez, elkarrenganako lei on ori, txindurriek, gorputz-atal berexi baten bidez erakusten dute (*Huber*).

Espinas-en aburuz, ume xeenganako onginaiak darakar txindurritegiko batasuna ta eragoa.

Nolanai dala, or dugu erriketa eredu bikaña, gizartean beñere ezagutuko ez dugun bezain egokia ta osoa: ama-jaurgoa, amatasuna nagusi. Txindurri guziek, naiz ernalgarrri ez izan, arremezkorik (*sexo*) ez dutenak ere, berez ezin ama izanik ama-orde egiten ditute beren buruak, erruleak berak baño maitekiago.

Langilleetako bati ken zaiozute sabela, umea babesera jasotzen diardularik; artarañoko ankerrik baduzute, moztu zazkiozute atzeko anka biak. Daramanari jaregin gabe, gelditu zaizkan lau erroez, erraiak narrezka ditula —maitasuna bezain luze bizia izaki!— bideari jarraituko dio, ta il-bearraz ez dizu etsiko, arik eta umetxea naiz birrumea bear-tokira jaso arte.

Oarra. — Zenbait itz berri antola bear izan ditut. Benetan bear, gero? Maiz gertatzen zaigu, euskerak artarako itza bai izaki, baña guk ez jakitea. Ordun alperreko ezezik kaltegarri dugu asmakunde berria. Or gañean sortutakoen ordezko itz jatorrik iñork baleki, otoi, adierazi bezada.

Yakintza, 1933, 2. zbka.